



Kapitulua: **1**

Biztanleria



Kapitulua: **2**

Ekonomia eta enpresa



Kapitulua: **3**

Lan merkatua



Kapitulua: **4**

Merkataritza



Kapitulua: **5**

Turismoa



Kapitulua: **6**

Informazioaren eta berrikuntzaren gizartea



Kapitulua: **7**

kultura eta kirola



Kapitulua: **8**

Etxebizitza



Kapitulua: **9**

Garraioa eta ingurumena

Biztanleria

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura


Biztanleen mugimenduak
Biztanleak barruti eta auzoetan

Atzerriko biztanleak

Herritartasunaren arabera
Barrutietan

Biztanleria: Errenta, eskolatzeko eta hezkuntza maila

Pertsonen eta familien errenta
Gizarte babesa
Eskolatzeko maila
Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila



Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

Barrutietan arabera

Gizarte babesa

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

Orrialdea: 3

Bilboko

Urtekeri Sozioekonomikoa 2016

DEMOGRAFIA: BIZTANLERIAREN BILAKAERA ETA EGITURA

Bilbok 2016an 345.642

pertsonako biztanleria dauka.

2016ko urtarrilaren batean, Bilboko biztanleria 345.642 pertsonakoa da, 2015. urteko biztanleak baino 636

gutxiago (% -0,2). 2000. urtetik 2016ra erregistratu den biztanleria galera 9.846 pertsonakoa da, ehuneko terminoetan % 2,8ko jaitsiera dena.

Bilbok biltzen du, alde batetik, Metropoli Eremuko biztanleria osoaren % 38,3a, 35 udalerriz eta 900.307 biztanlez osatutako eremua; eta bestalde, Bilboko biztanleria da Bizkaiko biztanle guztien % 30,4a, Bizkaia guztira 1.138.852 biztanlekoa izanik.

Hiriak 40,6 km² dauzka zabal eta 8.504 biztanle dauzka km²-ko. Biztanleria dentsitate hau altuenetakoa da Estatu osoko probintzia hiriburuen artean. Biztanleen Udal Estatistikaren arabera (Eustat, 2016), Bizkaiko batez besteko biztanleria dentsitatea 514,19 bizt/km²-a da, eta EAEkoa 300,19 bizt/km²-a. Bilbo, euskal udalerrien rankingean, biztanleria dentsitate gehien dutenen artean bigarren postuan kokatzen da, Portugaletek soilik gaindituta (14.536,68 biz/km²).

Azken urteetan, egonkor mantendu da Bilbon gizon eta emakumeen arteko proportzioa, urtez urte emakumeen presentzia handiagoa erakutsiaz. 2016an emakumezkoak % 53a dira, gizonezkoen % 47aren aldean, hau da, 112 emakume daude 100 gizoneko.

Biztanleen % 23,5ak 65 urte

edo gehiago dauzka, eta %


4,20ak 85 urte baino gehiago.

Bilboko biztanleen batez besteko adina 46 urtekoa da (44 gizonezkoentzat eta 48 emakumezkoentzat).

Biztanle gazteenak, 15 urtetik behe-

rakoak, biztanleria osoaren % 12,1a dira eta 45 urtetik beherakoak dira guztien % 46,5a. 45 eta 64 urte bitarteko biztanleak % 29,9a dira eta 65 urte eta gehiagokoak hiriko biztanleria osoan duten pisua % 23,6koa da.

Biztanleriaren bilakaera 1960-2016



Iturria: Udal Errolda.

Biztanleria, sexuaren arabera

	2015	2016	% 2016/15
Biztanleria	346.278	345.642	-0,2
Emakumezkoak	183.172	182.697	-0,3
Gizonezkoak	163.106	162.945	-0,1

Iturria: Udal Errolda.

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

Barrutietan arabera

Gizarte babesa

Nivel de inst Eskolatzeta maila rucción

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

Orrialdea: 4

Bilboko

Urtekeri Sozioekonomikoa 2016

DEMOGRAFIA: BIZTANLERIAREN BILAKAERA ETA EGITURA

Adin tarteen arabera, 0 eta 44 urte bitarteko biztanleria % 1,2 murriztu da, eta 1.995 pertsona galdu ditu aurreko urtearen aldean. Zehazki, 30 eta 44 urte bitartean dagoen tartea da biztanleriaren murrizketa gehien nabaritu duena, izan ere, tarte honetan soilik 1.376 pertsona galdu dira (% -1,8).

Aurkako joerarekin, 45 eta 64 urte artekoen taldea % 1,0 hazi da azken urtean (1.026 pertsona gehiago) eta 85 urte eta gehiagokoak ere hazkunde nabarmena izan du, % 4,4koa (642 gehiago). 65 eta 84 urte bitartekoa % 0,5 jaitsi da eta 309 pertsona galdu ditu guztira.

Azken urteetan, zahartze indizea progresiboki handituz joan da udalerrian, eta 2016an heldu da kopuru altuenera, % 23,65era. 85 urtetik gorakoek egonkortu egin dute hiribilduan daukaten presentzia, 65 urtetik gorakoek multzoaren barruan % 18,6a dira (ehuneko 0,71 puntu gehiago aurreko urtean baino) eta % 4,4a 2016ko biztanleria osoaren aldean. Erreferentzia gisara, 2007an 65 urtetik gorakoek % 12,2a ziren eta biztanleria osoaren % 2,61a.

Bestalde, mendekotasun indizea ere hazi egin da 2016an, kasu honetan % 55,69ra heltzeraino (2015ean baino ehuneko 0,14 puntu gehiago). Biztanleriaren ageriko zahartzea da hazkunde honen eragile nagusia, progresiboa gainera, esfortzu geroz eta handiagoa eskatzen duena adin produktiboan dagoen biztanleen aldetik (15 eta 64 urte arteko biztanleria), mendekotasun ekonomikoa daukan biztanleriaren zatia sostengatzeko (haurrak eta agureak).

Biztanleria, adinaren arabera


	2015	2016	% 2016/15
Biztanleria	346.278	345.642	-0,2
0-14 urte bitartekoak	42.233	41.880	-0,8
15-29 urte bitartekoak	45.670	45.404	-0,6
30-44 urte bitartekoak	74.811	73.435	-1,8
45-64 urte bitartekoak	102.136	103.162	1,0
65-84 urte bitartekoak	66.872	66.563	-0,5
85 urte eta gehiago	14.556	15.198	4,4
%-tan, 0 eta 14 urte arteko biztanleria/biztanleria osoa	12,20	12,12	-0,08 pp
%-tan, 85 urte eta gehiagoko biztanleria/biztanleria osoa	4,20	4,40	0,19 pp
Zahartze Indizea ¹	23,52	23,65	0,13pp
Mendekotasun Indizea ²	23,52	23,65	0,13pp

(1) Zahartze Indizea: 64 urtetik gorako biztanleek duten pisua biztanleria osoarekiko.

(2) Mendekotasun Indizea: Biztanle ez-aktiboek (15 urtetik beherakoek eta 64tik gorakoek) duten pisua potentzialki aktiboak den biztanleriarekiko (15-64 urte bitartean).

Iturria: Udal Errolda.

Biztanleria, adinaren arabera



Iturria: Udal Errolda.

Biztanleria

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

	1	2	Atzeriko biztanleak	Biztanleria: Errenta, eskolatzeta eta hezkuntza maila		
Biztanleen mugimenduak			Herritartasunaren arabera	Pertsonen eta familien errenta	1	2
Biztanleak barruti eta auzoetan			Barrutietan arabera	Gizarte babesa		
				Eskolatzeta maila		
				Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila	1	2

Orrialdea: 5

DEMOGRAFIA: BIZTANLERIAREN BILAKAERA ETA EGITURA [Biztanleen mugimenduak

Bilboko
Urtekari Sozioekonomikoa **2016**

Jaiotzak murriztu egin dira, eta heriotzak igo.

Biztanleen mugimenduen ondorioz, kontutan hartuta bai biztanleriaren mugimendu naturalak zein migrazio mugimenduak, Bilboko udalerrian 2016. urtean zehar 16.860 alta berri izan dira, egondako 17.206 bajaren aldean.

Erregistratu diren 16.860 alden artean, % 66a udalerrri aldaketekin lotutako erroldatzei dagokio (11.038), 2.547 dagozkie atzerritik etorritako migrazioen alde, 2.443 jaiotzen ondorioz dira eta 832 bestelako altak dira.

Bajei dagokienez, -guztira 17.206 2016an-, %53a udalerrri aldaketei dagokie (9.103), % 23a heriotzei (3.907) eta gainerakoak banatu egiten dira oker egindako izen emateen (3.382) eta atzerrira joan izanagatik emandako (841) bajen artean, eta baita atzerritarren iraungitze datarekin lotuak ere (298).

2.443 jaiotza eta 3.907 heriotza eman direnez, Bilboko udalerrriaren saldo begetatiboa negatiboa da berriz ere 2016an, kasu honetan -1.464 biztanle.

Biztanleriaren mugimendu naturala

	2016
Hazkunde begetatiboa	-1.464
Jaiotzak	2.443
Heriotzak	3.907
Jaiotza tasa gordina (%o bizt.)	7,1
Heriotza tasa gordina (%o bizt.)	11,3

Iturria: Eustat.

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

Barrutietan arabera

Gizarte babesa

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

Orrialdea: 6

Bilboko

Urtekeri Sozioekonomikoa 2016

DEMOGRAFIA: BIZTANLERIAREN BILAKAERA ETA EGITURA [Biztanleak barruti eta auzoetan

Bilbo: 8 barruti eta 40 auzo, 4.065 hektareatan.

Bilbok guztira zortzi barruti eta berrogei auzo dauzka. Ibaiondokobarrutiakbiltzen du

Bilboko biztanleriaren % 17,9a eta hau da, hortaz, jendetsuena. Otxarkoaga aurkako aldean kokatzen da, hiribilduan bizi diren biztanleen % 7,6arekin, 26.254 pertsonarekin.

2016an jaitsi egin da Bilbon bizi den biztanleria zortzi barrutietatik seitan, eta bereziki nabarmentzen dira Otxarkoaga eta Deustu, biztanleria galera handienak izan dituztelako (433 eta 421 pertsona gutxiago, hurrenez hurren). Urribari eta Abandok, kasu bietan, 207 pertsona galdu dituzte. Bestalde, Basurtu-Zorrotza eta Ibaiondoko barrutiak ere nabarmentzekoak dira, biztanle kopurua hazi egin delako (665 eta 177 biztanle gehiago, hurrenkera horretan).

Ibaiondo da biztanle gehien daukan barrutia eta Abando da biztanle gehien daukana km2-ko.

Biztanleria dentsitate handiena bi barrutietan barnebiltzen da: Abando, 23.932 bizt./


km², eta Begoña, 23.134 bizt./km². Bi dentsitate hauek praktikoki hirukoiztu egiten dute udalerriko batez besteko datua. Era berean, Deustu eta Urribarik ere gainditu egiten dute Bilboko batez besteko dentsitatea (9.834 bizt./km² eta 8.595 bizt./km², hurrenez hurren). Gainerakoak azpitik kokatzen dira, Basurtu-Zorrotza iza-

rik batez besteko dentsitate baxuena duen barrutia (4.588 bizt./km²).

Auzo jendetsuenak dira Santutxu (31.818 biztanle), Indautxu (27.427), Abando (23.727) eta Deustuko San Pedro (20.256), eta lauak batera hartuta Bilboko biztanleriaren % 30a barnebiltzen dute 2016an. Aurkako aldean, Olabeaga, Loruri eta Erriberako auzoek 1.300 pertsonatik beherako biztanleria daukate kasu guztietan.

Biztanleria jaitsi egin da aurreko urtearekiko berrogei auzoetako 25etan. Hauen artean nabarmendu egiten dira Txurdinaga eta Deustuko San Pedro, biztanleria galera esanguratsuenekin, 286 biztanle galduta lehenak eta 212 bigarrenak. Aldiz, Basurtu eta Miribilla auzoek jasan dituzte biztanleria hazkunde garrantzitsuenak azken urtean, 797 eta 463 gehiago, hurrenkera honetan.

Bilboko biztanleriaren bilakaera 2015-2016an, auzoen arabera



Gehiengoa dira 2016an biztanleak galdu dituzten auzoak.

Biztanleria eta biztanle dentsitatea barrutien arabera

	2015	2016	% 2016/15	Bizt./Km ²
Biztanleria (kop.)	346.278	345.642	-0,2	8.504
Abando	51.361	51.154	-0,4	23.932
Basurtu-Zorrotza	31.942	32.607	2,1	4.588
Begoña	41.003	40.841	-0,4	23.134
Deustu	49.398	48.977	-0,9	9.834
Errekalde	47.632	47.584	-0,1	6.871
Ibaiondo	61.754	61.931	0,3	6.457
Otxarkoaga-Txurdinaga	26.687	26.254	-1,6	6.709
Urribari	36.501	36.294	-0,6	8.595

Iturria: Udal Errolda.

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

Barrutietan arabera

Gizarte babesa

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

Orrialdea: 7

ATZERRIKO BIZTANLEAK

Bilboko

Urtekeri Sozioekonomikoa **2016**

Herritartasunaren arabera


Atzerriko biztanleak biztanleria osoaren % 7,4a dira.

Atzerriko biztanleak 25.695 izatera heldu dira Bilbon. Kopurua murriztu egin da laugarren urtez jarraian,

eta biztanle guztien % 7,4a dira. Hiribilduak 5 pertsona atzerritar soilik galdu ditu aurreko urtearen aldean.

Atzerriko biztanleen profil ohikoena gaztea da, biztanleriaren piramideko erdialdeko tartetean kokatzen dena gehienbat. Hala, 2016an, atzerritarren % 54,3ak 25 eta 44 urte artean dauzka, % 13,4ak 15 urte baino gutxiago dauzka eta soilik % 2,1ak dauzka 65 urte edo gehiago. Sexuen arabera banaketan ez da ia ezberdintasunik sumatzen, nahiz eta oraindik gehiago diren erroldatuta dauden emakume atzerritarrak gizonezkoak baino, 12.892 emakume 12.803 gizonen aldean. Adin tartean arabera, gizonezkoen ehunekoa handiagoa da 45 urtetik beherakoaren artean, eta adin horretatik aurrera emakumezkoak dira gehiengoak.

Atzerriko biztanleak



Iturria: Udal Errolda.

Bilbon bizi diren biztanle atzerritarren ia erdiak Amerikatik etorritakoak dira, zehazki, guztien % 42,1a. Jarraian datoz, hurrenkera honetan, Afrikatik etorriak (% 27,0), Europatik (% 19,6) eta Asiatik etorriak (% 11,1).

Jatorri herrialdeen arabera, Bilbon Boliviatik etorritakoek jarraitzen dute izaten atzerriko biztanleria jendetsuena (2.812 pertsona), eta mila pertsonako kopurua gainditzen dute baita ere Maroko, Errumania, Txina, Kolonbia, Paraguay eta Nikaragua-tik etorritakoek (2.628, 2.458, 1.934, 1.552, 1.435 y 1.099). Zazpi herritartasun hauek, denak batera hartuta, Bilboko biztanleria atzerritarren % 54,2a batzen dute.

2015. urtearekiko eman den aldaketari dagokionez, gehien jaitsi den atzerriko biztanle taldea Amerikatik etorritakoena da (192 atzerritar gutxiago, % -1,7) eta, alderantziz, hazkunde handiena Afrikatik etorritako biztanleen artean eman da (222 gehiago, % 3,3).

Atzerriko biztanleak

	2015	2016	% 2016/2015
Atzerriko biztanleak	25.700	25.695	0,0
Emakumezkoak	12.951	12.892	-0,5
Gizonezkoak	12.749	12.803	0,4
0-15 urte bitartean	3.494	3.438	-1,6
16-24 urte bitartean	3.143	3.072	-2,3
25-44 urte bitartean	14.097	13.940	-1,1
45-64 urte bitartean	4.454	4.714	5,8
65 urte eta gehiago	512	531	3,7
Europa	5.212	5.032	-3,5
Afrika	6.709	6.931	3,3
Amerika	11.018	10.826	-1,7
Asia	2.716	2.865	5,5
Ozeania	11	12	9,1
Herrigabeak eta bestelakoak	34	29	-14,7
Bolivia	3.104	2.812	-9,4
Maroko	2.549	2.628	3,1
Errumania	2.433	2.458	1,0
Txina	1.915	1.934	1,0
Kolonbia	1.691	1.552	-8,2
Gainerako herrialdeak	14.008	14.311	2,2
% atzerriko bizt./biztanleria osoa	7,4	7,4	0,0 pp

Iturria: Udal Errolda.

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

Barrutietan arabera

Gizarte babesa

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

Orrialdea: 8

Bilboko


Urtekari Sozioekonomikoa **2016**

ATZERRIKO BIZTANLEAK [Barrutien arabera

Bilbon atzerriko biztanleek presentzia daukate barruti guztietan, baina banaketa nahiko desorekatuarekin. Zehazki, atzerriko hamar biztanletik zazpi barruti hauetan bizi dira: Ibaiondo (% 26,1), Errekalde (% 18,7), Deustu (% 12,1) eta Abando (% 11,0).


2016. urtean zehar, Deustu, Ibaiondo eta Abandoko barrutiek soilik galdu dute atzerriko biztanleria, azken hau izanik murrizketa gehien jasan duena. Guztira 166 pertsona atzerriar gutxiago dauzka, eta % 5,6ko jaitsiera jasan du 2015. urtearekiko. Jarraian datoz Ibaiondo eta Deustu 67 eta 10 atzerriar gutxiagorekin, hurrenez hurren (% -1,0 eta % -0,3, hurrenkera berean). Begoñak erakutsi du, aldiz, atzerriko biztanleen igoera esanguratsua (102 hiritar gehiago, % +4,0).

Biztanle guztien eta atzerriarren banaketa Bilbon 2016, barrutien arabera (%)



Iturria: Udal Errolda.

Bilboko biztanle atzerriarren bilakaera, barruti nagusiak 2008 - 2016



Iturria: Udal Errolda.

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

Barrutietan arabera

Gizarte babesa

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

BIZTANLERIA: ERRENTA, ESKOLATZETA ETA HEZKUNTZA MAILA [Pertsona eta familien errenta

Bilboko biztanleen batez besteko errenta pertsonala % 2,8 igo da 2015an.

Eustatek Pertsona eta Familien Errentaren inguruan argitaratu dituen azken datuek, 2015ari dagozkionek, erakusten dute Bilbon bizi diren 18 urte eta gehiagoko biztanleen batez besteko errenta pertsonala 20.313 eurokoa dela, 2014an lortutako datua baino % 2,8 gehiago. Bizkaian, batez besteko errenta pertsonala % 2,7 igotzen da, eta 19.589 eurotara heldu da 2015ean. Hiriburuek, beraz, lurraldeko batez besteko errenta gainditzen du, eta baita EAEkoa ere. Azken hau urte artean gehiago hazi bada ere, % 3a, EAEko batez bestekoa 19.968 eurotan gelditu da.

Laneko errenta pertsonala da diru sarreraren nagusia.


Laneko errenta pertsonala 11.734 euroko batez bestekora heldu da, azken bost urteetako beheranzko joera mantendu du eta beste behin ere kokatu da diru sarreraren nagusi gisa.

Errenta pertsonal erabilgarriari dagokionez (errenta osoa, kenduta Errentaren gaineko Zerga eta beharginak ordaindu beharreko gizarte kotizazioak), Bilboko batez bestekoa 16.797 eurokoa da, % 2,4 gehiago 2014aren aldean.

Familiako batez besteko errenta (familia bereko kideen errenta pertsonal guztiak gehituta lortzen dena) 41.535 eurotan kokatu da 2015an, % 1,9 hazi da 2014an erregistratutako batez besteko diru sarreraren aldean. Bizkaian lortutako batez bestekoaren gainetik kokatzen da (40.887 euro) eta baita Euskal Autonomi Erkidegokoaren gainetik ere (41.058 euro).

Errenta pertsonal erabilgarria (€) 16.399 16.797 2,4
Emakumezkoak 13.321 13.597 2,1
Gizonezkoak 19.971 20.507 2,7

Pertsonen eta familien batez besteko errenta (€), arlo desberdinetan, 2014-2015



Batez besteko errenta pertsonala

	2014	2015	% 2015/14
Errenta pertsonala (€)	19.761	20.313	2,8
Emakumezkoak	15.709	16.050	2,2
Gizonezkoak	24.463	25.255	3,2
Laneko errenta pertsonala (€)	11.737	11.734	0,0
Emakumezkoak	9.235	9.086	-1,6
Gizonezkoak	14.641	14.803	1,1
Errenta pertsonal erabilgarria (€)	16.399	16.797	2,4
Emakumezkoak	13.321	13.597	2,1
Gizonezkoak	19.971	20.507	2,7

Iturria: Eustat.

Familien batez besteko errenta

	2014	2015	% 2015/14
Familien errenta (€)	40.759	41.535	1,9
Emakumezkoak	33.603	35.207	4,8
Gizonezkoak	46.480	47.082	1,3
Familien laneko errenta (€)	24.269	24.085	-0,8
Emakumezkoak	19.523	21.146	8,3
Gizonezkoak	28.062	26.662	-5,0
Familien errenta erabilgarria (€)	33.804	34.321	1,5
Emakumezkoak	28.264	29.420	4,1
Gizonezkoak	38.232	38.618	1,0

Iturria: Eustat.

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

Barrutietan arabera

Gizarte babesa

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

Orrialdea: 10

Bilboko

Urtekeri Sozioekonomikoa **2016**

BIZTANLERIA: ERRENTA, ESKOLATZETA ETA HEZKUNTZA MAILA [Pertsona eta familien errenta

Errenta altuenak

Abando eta Indautxuko bizilagunenak dira.

Azkenik, auzoka egindako analisiak erakusten du zein ezberdintasun dauden errenta mailan Bilboko biztanleen artean, bai errenta pertsonalaren kasuan zein familakoarenean.


Abandok jarraitzen du izaten, 34.844 eurekin, hiri osoan batez besteko errenta pertsonal altuena daukan auzoa, eta atzetik Indautxu 33.958ko datuarekin. Apur bat urrunago Castaños auzoa dago, udalerriko hirugarren batez besteko errenta onenarekin, 28.702 euro.

39 auzoetatik hamar daude hiribilduaren batez bestekoaren gainetik. Eta batez besteko errenta altuenek hirukoiztu egiten dute baxuenaren kopurua.

Errenta hori Iturrigorri-Peñascali dagokio, 10.193 eurekin udal rankingaren atzealdean kokatzen da. Jarraian datoz, goraka, Uretamendi eta Otxarkoaga, 11.153 eta 11.172 euro, hurrenez hurren.

2015ean familien errentako batez besteko kopuru altuenak dagozkie, baita ere, Abandori, 72.702 eurekin, Indautxuri (70.795 euro) eta Castañosi (59.315 euro). Azpiko sailkapena ere errepikatu egiten da, familien errenta baxuenak jasotzen dituztenen artean. Hala, Iturrigorri-Peñascal, Uretamendi eta Otxarkoagako familiak dira familien errenta baxuenak dauzkatenak (21.602, 21.748 eta 21.935 euro, hurrenkera berean).

Familien errenta maximoa eta minimoa, auzoka, barrutiaren arabera. 2015



Iturria: Eustat. Familia eta pertsonen errentaren estatistika.

Pertsonen eta familien errenta. Bilbo auzoka, 2015

Auzoa	Pertsonen errenta	Familien errenta	Auzoa	Pertsonen errenta	Familien errenta	Auzoa	Pertsonen errenta	Familien errenta
Abando	34.844 ▲	72.702 ▲	Errekaldeberri	15.708 ▲	31.935 ▲	Otxarkoaga	11.172 ▲	21.935 ▲
Altamira	13.260 ▲	26.439 ▲	Ibarrekolanda	20.190 ▼	43.083 ▼	San Adrian	17.247 ▲	37.024 ▲
Ametzola	20.979 ▲	43.756 ▲	Indautxu	33.958 ▲	70.795 ▲	San Frantzisko	12.892 ▲	27.179 ▲
Arabella	13.868 ▼	26.341 ▲	Iralabarri	18.017 ▲	36.542 ▼	San Inazio	18.143 ▲	36.951 ▲
Arangoiti	14.069 ▲	29.428 ▲	Iturralde	18.510 ▲	36.615 ▼	Deustuko San Pedro	22.799 ▲	47.894 ▲
Atxuri	15.761 ▲	30.267 ▲	Iturrigorri-Peñascal	10.193 ▲	21.602 ▲	Santutxu	16.113 ▲	32.166 ▼
Basurtu	22.380 ▲	45.570 ▲	La Peña	14.525 ▲	29.997 ▲	Solokoetxe	17.581 ▲	36.560 ▲
Begoña	21.829 ▼	46.674 ▼	Erribera	15.840 ▲	29.924 ▲	Txurdinaga	18.378 ▲	41.504 ▲
Bilbo Zaharra	13.846 ▲	26.080 ▲	Larraskitu	14.756 ▲	28.802 ▲	Uretamendi	11.153 ▲	21.748 ▲
Bolueta	14.260 ▲	29.275 ▼	Masustegi-Mintegitxueta	18.117 ▲	38.464 ▲	Uribarri	16.073 ▲	31.694 ▲
Alde Zaharra Bilbo	22.830 ▲	43.569 ▲	Matiko	18.083 ▲	35.240 ▼	Zabala	14.077 ▲	27.842 ▲
Castaños	28.702 ▲	59.315 ▲	Miribilla	24.710 ▲	46.751 ▲	Zorrotza	14.788 ▲	30.463 ▲
Loruri	22.139 ▲	48.151 ▲	Olabeaga	15.413 ▲	28.437 ▲	Zurbaran	17.865 ▲	36.330 ▼

Iturria: Eustat. Familia eta pertsonen errentaren estatistika.

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

Barrutietan arabera

Gizarte babesa

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

Orrialdea: 11

Bilboko

Urtekeri Sozioekonomikoa 2016

BIZTANLERIA: ERRENTA, ESKOLATZETA ETA HEZKUNTZA MAILA [Gizarte babesa

Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta (2016)

EUSTATEk burututako Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkestak ahalbidetu egiten digu Euskadiko etxebizitzaren egoera ezagutzeko, pobrezia mailari dagokionez. Argitaratutako azken datuen arabera, pobrezia tasa erreala jaitsi egin da 2016an, bai EAEn eta baita Bizkaian ere, 2014. urtearekiko. Hala, EAEn 2014an % 5,9koa izatetik % 5,7ra igaro da 2016an; eta Bizkaian ere murriztu egin da 2014ko % 6,4tik % 5,5era 2016an (ehuneko -0,2 eta -0,9 puntuko jaitsiera, hurrenez hurren).

Bilboko kasuan, pobrezia errearen tasa % 7,7an dago 2016an, baxuagoa 2014an eta 2012an lortutako tasak baino (% 8,4 eta % 9,5, hurrenez hurren). 25.800 pertsona baino gehiago bizi dira pobrezia errealeko egoeran Bilbon.

Etxegabeentzako baliabideak (2016)

2016an zehar, eta Eustaten arabera, etxerik ez daukaten pertsonen arretak 20.911 mila euroko gastua izan du Bilbon. Datu hau Bizkaiko gastuaren % 81,5a da eta % 44,1a EAE osoaren aldean.

Bilbon etxegabeei arreta emateko zentroen sareak zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditu, oro har, ostatuak, jatetxeak, eguneko arreta eta kaleko arreta zerbitzuak. Udalerrri honetan biltzen dira Bizkaiko 131 zentroetatik 91, % 69,5a. Bertan, etxerik ez daukaten pertsonen 1.060 lotarako leku dauzkate, eta otorduarekiko 964, eta baita eguneko zentroetan 1.201 plaza ere, Bizkaiko zentroetan dauden % 88a.

910 dira hauetan ostatu hartutako pertsonak, jatetxe zerbitzuak milatik gora dira (1.353) eta eguneko zentroetan eta kaleko zerbitzuetan artatutako pertsonak 1.067 eta 173 dira, hurrenez hurren.

Mila pertsonen osatzen dute zerbitzu hauek aurrera eramaten dituen lan taldea, izan soldatapeko beharginak, bolondresak eta/edo azpikontratatuak.

Gizarte Babesa Bilbon

Gizarte larrialdietako 6.420 laguntza eta Diru Sarrerak Bermatzeko 16.220 Errenta.

honetako jarduera azaltzen du urteroko jardueren Memorian.

Gizarte Larrialdietako Laguntzei dagokionez, 2016. urtean 6.420 txosten onartu eta ordaindu dira, 5,5 milioi euroko kopurua guztira (2015ean baino % 7,4 gehiago).

Barrutien arabera, San Frantzisko-La Peñak biltzen ditu ordaindutako GLL gehienak (901 guztira), Otxarkoaga-Txurdinaga (865) eta Santutxu-Boluetaren (820) aurretik.

Ordaindutako gizarte larrialdietako laguntzak, oinarrizko gizarte zerbitzuen arabera

	2015	2016	% 2016/15
Ordaindutako laguntzak guztira (kop.)	6.251	6.420	2,7
Deustu-San Inazio	529	555	4,9
Uribarri-Zurbaran	562	573	2,0
Otxarkoaga-Txurdinaga	816	865	6,0
Santutxu-Bolueteta	795	820	3,1
Alde Zaharra	533	521	-2,3
San Frantzisko-La peña	913	901	-1,3
Irala-San Adrian	470	491	4,5
Errekalde-Peñaskal	697	694	-0,4
Abando	248	264	6,5
Zorrotza	239	228	-4,6
Basurtu-Altamira	306	308	0,7
Barreiatua	143	200	39,9

Iturria: Bilboko Udala, Gizarte Ekintza saila.

Gizarte Ekintzako Sailak udalerriko gizarte beharrak identifikatzen ditu, esku-hartzea egokia izan dadin, eta arlo

Abando eta Otxarkoaga-Txurdinaga dira bertako biztanleentzako larrialdietako laguntzetan urte arteko hazkunde handiena jasandutako barrutiak, % 6,5 eta % 6,0, kasu bakoitzean. Zorrotza, Alde Zaharra, San Frantzisko-La Peña eta Errekalde-Peñaskal dira jaitsi diren bakarrak 2015eko datuen aldean (% -4,6, % -2,3, % -1,3 eta % -0,4, hurrenez hurren).

Azkenik, 2016. urtean zehar 381.751,03 euro bideratu dira guztira Udala Laguntza Bereziak ematera.

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

Barrutietan arabera

Gizarte babesa

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

Orrialdea: 12

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa **2016**

BIZTANLERIA: ERRENTA, ESKOLATZETA ETA HEZKUNTZA MAILA [Eskolatzeta maila

Goi mailako ikasketak dauzkaten biztanleak % 21,6a dira.

Eustatek Bilboko Udal Hezkuntzaren Estatistikan argitaratutako azken datuen arabera, ikasten ari ez diren hiriko biztanleen % 21,6ak dauka goi mailako titulazio bat, 66.973 pertsona guztira, 2015. urtean baino % 2,0 gehiago eta 2010ean baino % 12,5 gehiago. Talde honi gehitzen badiogu erdi-goi mailako ikasketak dauzkan biztanleria, kopurua igo egiten da 92.619 pertsonakoa izateraino, eta biztanle guztien % 29,4a izatera heltzen da.

Biztanleen % 22,7ak bigarren mailako ikasketak dauzka, eta % 14,4ak profesionalak. % 30,3ak lehen mailako ikasketak dauzka, eta % 3,2ak ez dauka ikasketarik.

Heziketa

	2010	2013	2014	2015	2016	Ald.2016-15		Ald.2016-15	
						Nº	%	Nº	%
Burututako ikasketak	324.171	319.013	316.176	315.223	314.912	-311	-0,1	-9.259	-2,9
(10 urte eta gehiagoko bizt., kop.)	13.612	11.662	11.032	10.586	10.047	-539	-5,1	-3.565	-26,2
Analfabetoak eta ikasketa bakoak	106.751	101.016	98.749	96.934	95.301	-1.633	-1,7	-11.450	-10,7
Lehen mailakoak	41.164	43.690	44.323	44.817	45.388	571	1,3	4.224	10,3
Profesionalak	74.366	73.113	71.410	72.050	71.557	-493	-0,7	-2.809	-3,8
Bigarren mailakoak	27.853	25.274	24.709	24.210	24.646	436	1,8	-3.207	-11,5
Erdi-goi mailakoak	60.425	64.258	65.953	66.626	67.973	1.347	2,0	7.548	12,5

Goi-mailakoak

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

Barrutietan arabera

Gizarte babesa

Eskolatzeta maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

BIZTANLERIA: ERRENTA, ESKOLATZETA ETA HEZKUNTZA MAILA [Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

Bilboko hezkuntza zentroen sareak heziketa eskaintza zabala dauka, eta honen bidez ikasle kopuru handi bat erakartzea lortzen du, euren ikasketak hiribilduan egin nahi dituztenak, udalerrian bizi ala ez.

Araubide Orokorreko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza

Bilbon unibertsitatez kanpoko 55.568 ikasle daude. Eusko Jaurlaritzaren arabera, 2015-2016 ikasturtean zehar, Bilbok barnebiltzen du Bizkaiko Araubide Orokorreko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikasleen % 27,9a, eta EAE osoaren % 14,0a. Kopuru absolutuetan, 55.568 ikasle dira matrikula egin dutenak ikastetxe publiko eta/edo pribatu-itunpekoetan, beren unibertsitatez kanpoko ikasketak Bilbon egiteko asmoarekin.

Itunpeko irakaskuntzako zentroek Bilbon eskolatutako ikasleen % 57,3a hartzen dute (31.842 ikasle, kopuru absolutuetan). % 42,7a sare publikoari dagokio eta 23.726 ikasle dira guztira.

Bilbon hizkuntza eredu nagusia D eredia da, ikasle guztien % 43arekin. Jarraian A eredia (% 28,6) eta B eredia (% 26,6). Sare publikoan gehiengoa da D eredian dabilen ikasleria (% 64,7), eta sare pribatuan ikasleen % 27,6ak soilik hautatzen du. B ereduaren presentzia sare publikoan ez da oso esanguratsua, ikasleen % 3,4a hartzen du soilik, baina sare pribatuan eredu elebiduna aukeratzen duen ikasleria % 43,9raino igotzen da. Azkenik, sare publikoaren % 31,3a matrikulatzen da A eredian eta sare pribatuan % 26,2ak hartzen du aukera hau. X ereduak Bilbon 704 ikasle biltzen ditu, denak sare pribatuan.

Araubide orokorreko ikasleen banaketa, maila eta lurraldearen arabera, 2015-16

	Hasierako Irakaskuntzak			Bigarren Mailako Irakaskuntzak					HH	Guztira
	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	HB (*)	DBH		DBPH				
				DBH	HB (*)	Batx.	LH (Oinarrizko, Erdi eta Goi maila)	AT (*)		
Bilbao	11.371	16.476	96	10.896	25	5.431	7.791	91	3.391	55.568
Bizkaia	45.953	64.547	282	39.991	133	15.288	18.863	236	13.664	198.957
CAPV	92.601	128.093	502	79.486	306	30.168	38.749	521	25.630	396.056

(*) Hezkuntza Berezia: Haur eta Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Zereginen Ikaskuntza
Iturria: Eusko Jaurlaritza.

Araubide Bereziko irakaskuntza

Araubide Bereziko irakaskuntzak heziketako hiru arlo handi biltzen ditu: irakaskuntza artistikoa (musika, dantza, arte plastikoak eta diseinua eta arte dramatikoak), hizkuntzen irakaskuntza eta kirol irakaskuntza.

EAEan araubide bereziko irakaskuntzan 137 ikastetxe daude, 2.508 irakasle eta 85.454 ikasle, 2015-2016 ikasturterako matrikulatuta. Bilbon, 17 ikastetxek eskaintzen dituzte mota honetako irakaskuntzak.

Araubide orokorreko unibertsitatez kanpoko ikastetxeak Bilbon

	2016
Araubide orokorreko unibertsitatez kanpoko ikastetxeak	156
Haur hezkuntza (1. zikloa)	87
Haur hezkuntza (2. zikloa)	64
Lehen Hezkuntza	62
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	46
Batxilergoa	35
Lanbide Heziketa- Oinarrizkoa	11
Lanbide Heziketa- Erdi maila	22
Lanbide Heziketa- Goi maila	23
Hezkuntza Berezia	17
Helduentzako Hezkuntza- HH	6
Araubide Bereziko Ikastetxeak	17
Musika ikastetxeak- Oinarrizko maila	7
Musika ikastetxeak- Erdi maila	5
Musika ikastetxeak	6
Dantza ikastetxeak- Goi maila	1
Arte plastiko eta diseinu ikastetxeak- Goi maila	2
Hizkuntza eskolak	1
Kirol Irakaskuntza Zentroak- Erdi maila	2
Kirol Irakaskuntza Zentroak- Goi maila	1

Iturria: Bilboko Udala. Hezkuntza Saila.

Biztanleen mugimenduak

Herritartasunaren arabera

Pertsonen eta familien errenta

1 2

Biztanleak barruti eta auzoetan

Barrutietan arabera

Gizarte babesa

Eskolatzeko maila

Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

1 2

BIZTANLERIA: ERRENTA, ESKOLATZE ETA HEZKUNTZA MAILA [Ikasten diharduten biztanleen hezkuntza maila

Unibertsitateko Irakaskuntza


18.000 ikasle inguruk dihardute unibertsitateko ikasketak egiten Bilbon.

Bilbok unibertsitateko 17.950 ikasle dauzka 2016/2017 ikasturtean. Hauek, hirian kokatutako hiru unibertsitateetan banatzen

dira: Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea, azken biak pribatuak.

EHUK 9.742 ikasle dauzka matrikulatuta, ikasle guztien % 55,8a. Horietatik, 8.257 graduiko ikasketak egiten dabilta, 1.179 Master Ofizial ezberdinetan banatzen dira eta gainerakoak unibertsitateko titulu propioak ikasten dabilta. Bere aldetik, Deustuko Unibertsitateak ikasleen % 42,5a biltzen du, guztira 8.058 ikasle izanik bere ikasgeletan. Horietatik 6.078 graduiko ikasketak egiten dabilta, 1.387 unibertsitateko Masterrak egiten, 318 doktoitzak egiten eta gainerakoa ikasketak arautu ez ofizialak egiten dabil. Azkenik, Mondragon unibertsitateak 150 ikasle dauzka, 104 Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Graduak, 17 Erakundearen Nazioartekotze Masterrean eta 29 Marketing Digitaleko Masterrean.

Unibertsitateko ikasleak Bilbon



Iturria: EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea.

Ekonomia eta enpresa

Ekonomia eta enpresa jarduerak

Erradiografia jarduera sektoreka
Banaketa barrutietan

Soldatapeko beharginak dituzten enpresak

Afiliazioa Autonomoen Araubidean

Enpresen dinamikotasuna

Merkataritza elkarte berriak
Erregistro berriak Ekonomia Jardueren
gaineko Zergan
Kontratu erregistratuak

Ekoizpen ekonomia

Eraikuntza
Industria
Servicios
Zerbitzuak

CÁMARA BILBAO

Ekonomia eta enpresa jarduerak

Soldatapeko beharginak dituzten enpresak

Afiliazioa Autonomoen Araubidean

Enpresen dinamikotasuna

Ekoizpen ekonomia

Erradiografia jarduera sektoreka

Banaketa barrutietan

Merkataritza elkarte berriak

Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan

Kontratu erregistratuak

Eraikuntza 1 2

Industria

Zerbitzuak 1 2

Kanpo merkataritza

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa **2016**

Orrialdea: 16

EKONOMIA ETA ENPRESA JARDUERAK

2016an % 1,9 igo dira ekonomia jarduerak Bilbon.

Bilbok, 2016. urte amaieran, % 1,9 handitu du ekonomia jardueren lizentzia kopurua, guztira 39.981 izatera helduta, iazko urtea baino 758 lizentzia gehiago. Kopuru osotik, % 74,6a enpresa jarduerak dira (29.815), % 24,5a jarduera profesionalak (9.797) eta % 0,9a artistikoak (369).

Kopuru osotik, % 74,6a enpresa jarduerak dira (29.815), % 24,5a jarduera profesionalak (9.797) eta % 0,9a artistikoak (369).

Hazkundera handiagoa da, termino absolutuetan, enpresa jardueren kasuan (560 jarduera gehiago, % 1,9), jarraian profesionalak (164 jarduera gehiago, % 1,7) eta artistikoak (34 jarduera gehiago, % 10,1).

Enpresa jarduerak
% 74,6



% 1,9
2015: 29.255
2016: 29.815

Jarduera profesionalak
% 0,9




% 10,1
2015: 335
2016: 369

Actividades profesionales
% 24,5



% 1,7
2015: 9.633
2016: 9.797

Aldaketa % 2016-2015



Erradiografia jarduera sektoreka

Banaketa barrutietan

Merkataritza elkarte berriak

Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan

Kontratu erregistratuak

Eraikuntza 1 2

Industria

Zerbitzuak 1 2

Kanpo merkataritza

Billboko

Urtekari Sozioekonomikoa **2016**

Orrialdea: 17

EKONOMIA ETA ENPRESA JARDUERAK | Erradiografia jarduera sektoreka

Lehen analisi bat eginda hiriaren ekonomia ehundurari buruz, jarduera sektoreen arabera, argi ikus daiteke Zerbitzu Sektorearen garrantzia. Enpresa jarduerak zein jarduera profesionalak kontutan hartuta, sektoreak bere osotasunean 35.418 lizentzia banebiltzen ditu, osoaren % 88,6a. Bere aldetik, Eraikuntzak hartzen du lizentzien % 6,9a (2.763) eta Industriak % 3,6a (1.431). Hiriko enpresa ehundura osatzen dute jarduera artistikoek, 369 lizentziarekin eta osoaren % 0,9arekin.

Jarduera lizentzien kopuruak, 2015 urtearen aldean, bilakaera positiboa izan du sektore guztietan, eta bereziki nabarmentzekoak dira termino erlatiboetan izandako hazkundeak Eraikuntzako sektorean (% 6,1, 158 gehiago) eta jarduera artistikoetan (% 10,1, 34 gehiago). Industriak ere berreskuratu ditu lizentziak % 0,5 hazita (7 lizentzia gehiago) eta Zerbitzuek % 1,6 (395 gehiago).

Ekonomia eta enpresa jarduerak

	2015	2016	Ald. Abs.	% 2016/15
Ekonomia jarduerak	39.223	39.981	758	1,9
Enpresa jarduerak	29.255	29.815	560	1,9
Industria	1.424	1.431	7	0,5
Eraikuntza	2.605	2.763	158	6,1
Zerbitzuak	25.226	25.621	395	1,6
Merkataritza	9.011	8.991	-20	-0,2
Ostalaritza	3.076	3.114	38	1,2
Finantza eta aseguruak	834	833	-1	-0,1
Higiezinak	1.003	1.034	31	3,1
Enpresendako zerbitzuak	4.564	4.702	138	3,0
Bestelako zerbitzuak	6.738	6.947	209	3,1
Jarduera profesionalak	9.633	9.797	164	1,7
Jarduera artistikoak	335	369	34	10,1

Lizentzia kopurua. Urteko datuak, urteko azken hiruhilekoari dagozkionak. Kanpo utzi dira lehen sektoreko jarduerari dagozkien datuak. Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

Erradiografia jarduera sektoreka

Banaketa barrutietan

Merkataritza elkarte berriak

Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan

Kontratu erregistratuak

Eraikuntza 1 2

Industria

Zerbitzuak 1 2

Kanpo merkataritza

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa **2016**

Orrialdea: 18

EKONOMIA ETA ENPRESA JARDUERAK | Jardueren banaketa barrutietan

Ostalaritza eta txikizkako merkataritza dira barruti bakoitzean pisu gehien daukaten jarduerak.

Abandoko barrutian biltzen da hiriaren ekonomia jardueraren % 35,3a, 14.096 lizentzia izanik 2016. urtearen amaieran. Datu hauek % 1,0ko igoera erakusten dute, eta azaltzen dute baita

ere Abandok mantendu egiten duela bere erdigune izaera merkataritza, finantza eta zerbitzuen esparruetan.

Zerbitzuen sektoreak, 13.713 lizentziarekin, monopolizatu egiten ditu praktikan barrutiko enpresa eta negozio jarduerak, % 97,3a hartzen du. Sektoreko lizentzia guztietatik, 9.880 enpresa jarduerak dira: Merkataritza, jatetxeak eta ostatuak (3.945); Garraioa eta komunikabideak (296); Finantza erakundeak, aseguruak eta enpresendako zerbitzuak (3.884); eta Bestelako zerbitzuak (1.755). Gainontzekoa, 3.833 lizentzia, jardura profesionaleri dagokie, eta hauen barruan pisu gehien dutenak dira zuzenbideko profesionaleri loturikoak (1.306). Otxarkoaga-Txurdinaga da ekonomia jardura gutxien daukan barrutia: 639 lizentzia dauzka, hiribilduko jardura guztien % 1,6a delarik. Gainera, 2016an, kopuru hori % -1,8 murriztu da, hiria osotara % 1,9 hazi den bitartean.


Udalerrien gainontzekoan bezala, barruti honetan nabarmentzen den sektorea Zerbitzuena da, jardura guztien % 94,7a hartzen du eta 605 lizentziatara heltzen da. Jardueren xehetasuna aztertuta, esanguratsuenak dira merkataritza, jatetxeak eta ostatuak, 280 lizentzia biltzen dituzte, eta praktikan bi jardueratik bat hartzen dute.

Txikizkako merkataritza eta Ostalaritza dira pisu gehien daukaten jarduerak hiriko barruti guztietan. Nabarmentzekoak dira baita ere, Abandoko barrutian biltzen direlako, finantza eta zuzenbide zerbitzuak eskaintzeari lotutako jardura profesionalak.

Ekonomia jarduerak barrutiaren arabera

	2015	2016	%2016/15
Ekonomia jarduerak	39.223	39.981	1,9
Deustu	3.519	3.506	-0,4
Uribarri	1.824	1.831	0,4
Otxarkoaga-Txurdinaga	651	639	-1,8
Begoña	2.446	2.424	-0,9
Ibaiondo	4.369	4.401	0,7
Abando	13.962	14.096	1,0
Errekalde	2.535	2.522	-0,5
Basurtu - Zorrotza	1.814	1.804	-0,6
Barrutian zehaztu gabe	8.103	8.758	8,1

Lizentzia kopurua. Urteko datuak, urteko azken hiruhilekoari dagozkionak. Kanpo utzi dira lehen sektoreko jarduerari dagozkien datuak.
Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.



Erradiografia jarduera sektoreka

Banaketa barrutietan

Merkataritza elkarte berriak

Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan

Kontratu erregistratuak

Eraikuntza 1 2

Industria

Zerbitzuak 1 2

Kanpo merkataritza

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa **2016**

Orrialdea: 19

SOLDATAPEKO BEHARGINAK DITUZTEN ENPRESAK

Soldatapeko beharginak dituzten 7 enpresa gehiago Bilbon.

Bilbon Gizarte Segurantzaren izena emandako soldatapeko beharginak dituzten enpresa kopurua egonkor mantendu da 2016an, 7 enpresa gehiago batu dira soilik, eta 12.373 izatera heldu dira, % 0,1eko igoera 2015. urtearen itxieraren aldean. Soldatapeko beharginak dituzten zerbitzuen sektoreko enpresak, 10.997, nagusi dira hiriaren

enpresa ehundura eta bertako egituraren % 88,9a ordezkatzeko. Nabarmentzekoak dira, hauen artean merkataritza lotutako enpresak, osotasunaren % 23,3a izaki, eta joera negatiboa izan dute urtean zehar, % 1,6ko jaitsierarekin (47 gutxiago). Bigarrenik, kopuruaren arabera, aurki ditzakegu jarduera Profesional, zientifiko eta teknikoei loturiko enpresak, 1.597 dira guztira eta enpresa guztien % 12,9a biltzen dute. Aldaketa positiboa da kasu honetan, % 0,7 xumea hazita.

Industria eta energiak osotasunaren % 4,5a hartzen dute, eta 557 enpresa daukate Gizarte Segurantzaren izen emanda, 2016. urtean zehar % 0,9 murriztu ondoren. Eraikuntza % 2,6 jausi da, eta urtea itxi du izen emandako 793 enpresarekin. Lehen sektorea, 26 enpresarekin, kopuru aldetik ez da garrantzitsua hiriaren ehundura ekonomiko osoan.

Soldatapeko beharginak dituzten enpresak*

	2015	2016	% 2016/15
Enpresak	12.366	12.373	0,1
Lehen sektorea	25	26	4,0
Industria eta Energia	562	557	-0,9
Eraikuntza	814	793	-2,6
Zerbitzuak	10.965	10.997	0,3
Merkataritza	2.938	2.891	-1,6
Garraioa	498	484	-2,8
Ostalaritza eta ostatuak	1.342	1.443	7,5
Informazioa eta komunikazioak	396	436	10,1
Finantza eta aseguruak	386	375	-2,8
Higiezinak	312	317	1,6
Profesional, zientifiko eta teknikoak	1.586	1.597	0,7
Administratiboak eta laguntzaileak	654	647	-1,1
Administrazio Publikoa	113	109	-3,5
Hezkuntza	407	428	5,2
Osasungintza	713	702	-1,5
Gizarte zerbitzuak	253	264	4,3
Aisialdia eta kultura	266	288	8,3
Bestelako zerbitzuak	1.036	1.016	-1,9
Etxebizitzak enplegatzaile gisa	8.721	8.703	-0,2

Enpresa kopurua gutxienez soldatapeko pertsona bat daukana.

*Kanpo utzi dira familiak enplegatzaile gisa, eta hauek aparte erakusten dira.

Datuak urte bakoitzeko abenduari dagozkio.

Iturria: Enplegua eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

AFILIAZIOA AUTONOMOEN ARAUBIDEAN

Bilbon Behargin Autonomoen Erregimen Beregian afiliatutako biztanle kopurua, 2016ko abenduan, % 0,9 murriztu da urte arteko terminoetan, eta 22.535 pertsonatan kokatu da, 206 afiliazio galdu ondoren.

Erregimen honetan afiliatutako hamarretik zortzi pertsona inguru zerbitzuen sektorean dabilta beharrean (% 81,9). Nabarmenezkoak dira Txikizkako Merkataritzako afiliazioak, Ostalaritzakoekin batera 6.521 afiliazio biltzen dituztenak, eta autonomo afiliatutako biztanle guztien % 28,9a dira praktikoki. Nabarmendu egiten dira baita ere jarduera Profesional, zientifiko eta teknikoetan afiliatutakoak, 2.636 batzen dituztelarik (% 11,7 guztiaren aldean).

Sektorekako analisisian, eta ehuneko terminoetan ikusita, antzematen da Lehen sektorea dela gehien hazten dena (% 23,8). 78 pertsona ditu izen emanda, nahiz eta hirian duen presentzia garrantzia urrikoa izan. Eraikuntzan ere afiliazioak igo egin dira, kasu honetan % 0,9. Alderantziz, Industria eta energiaren sektorea eta Zerbitzuena % -1,8 eta % -1,2 murriztu dira, hurrenez hurren.

Zerbitzuen sektorearen barruan, eta hiribilduaren ekonomian duten garrantziaren ondorioz, nabarmenezkoak dira eman diren murrizketak txikizkako Merkataritzan (% -3,2) eta jarduera Administratibo eta zerbitzu laguntzaileetan (% -3,2). Alde positiboan, hazi egin dira jarduera Artistikoak, olgeta eta entretenimendukoak (% 4,6), Hezkuntza (% 2,2) eta Osasungintza eta bestelako gizarte zerbitzuak (% 1,7).

Behargin Autonomoen Erregimen Beregian Afiliatuak

	2015	2016	% 2016/15
Afiatutako biztanleak (kop.)	22.741	22.535	-0,9
Lehen Sektorea	63	78	23,8
Industria eta Energia	1.368	1.343	-1,8
Eraikuntza	2.635	2.660	0,9
Zerbitzuak	18.675	18.454	-1,2
Txikizkako merkataritza	4.228	4.092	-3,2
Ostalaritza	2.455	2.429	-1,1
Handizkako merkataritza	1.611	1.593	-1,1
Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	2.610	2.636	1,0
Garraioa eta biltegiatzea	1.472	1.481	0,6
Zerbitzu pertsonalak	1.512	1.473	-2,6
Osasungintza eta gizarte zerbitzuak	1.127	1.146	1,7
Jarduera administratiboak eta zerbitzu laguntzaileak	630	610	-3,2
Informazioa eta Komunikazioak	599	589	-1,7
Hezkuntza	624	638	2,2
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	464	444	-4,3
Finantza eta aseguru jarduerak	468	445	-4,9
Jarduera artistiko, olgeta eta entretenimendukoak	394	412	4,6
Bestelako zerbitzuak	481	466	-3,1

Gizarte Segurantzako Autonomoen Erregimenean afiliaturiko pertsonak, Bilbon burututako ekonomia jardueretan.

Datuak urte bakoitzeko abenduari dagozkie.

Iturria: Enplegua eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

ENPRESEN DINAMIKOTASUNA [Merkataritza elkarte berriak

707 merkataritza elkarte berri eratu dira Bilbon 2016an, % 9,6a.

2016. urtean zehar 707 elkarte berri eratu dira Bilbon. % 9,6ko jaitsiera izan da hau aurreko urtearekiko, eta joera hau islatu egin da jarduera sektore nagusietan. Zerbitzuen sektoreari

eragin dio gehien eraturako elkarte berrien kopuruaren jaitsierak, termino absolutuetan. Izan ere, merkataritza elkarte berrien % 82,5a zerbitzu sektorekoa bada ere, elkarteen sorkuntza % 8,3 murriztu da 2015. urtearen aldean. Guztira, 53 enpresa gutxiagok eman dute izena aurreko urtearekin alderatuta. Beren aldetik, Industria eta energiaren sektorea % 2,6 txikitu da (1 gutxiago) eta Eraikuntzarena % 23,1 (24 gutxiago).

Jarduera arloen arabera, soilik enpresei egindako zerbitzu eta higiezinak eta Finantzen arlokoek eduki dute igoera izen emandako enpresa kopuruan, zehazki % 9,1 eta % 7,7a, hurrenez hurren. 26 enpresetan jaitzi da Merkataritzaren arloan sorturiko enpresen kopurua (% -14,4), 19 Ostalaritzan (% -21,6) eta 18 Garraio eta Komunikazioetan (% -48,6).

Merkataritza elkarte berriak

	2015	2016	% 2016/15
Elkarte berriak	782	707	-9,6
Lehen sektorea	3	6	100,0
Industria eta Energia	39	38	-2,6
Eraikuntza	104	80	-23,1
Zerbitzuak	636	583	-8,3
Merkataritza	181	155	-14,4
Ostalaritza	88	69	-21,6
Garraioa eta komunikazioak	37	19	-48,6
Finantzak	39	42	7,7
Enpresendako zerbitzuak eta higiezinak	176	192	9,1
Bestelako zerbitzuak	115	106	-7,8

Iturria: Bilboko Merkataritza Ganbera eta Merkatal Erregistroa.

ENPRESEN DINAMIKOTASUNA [Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan

Ekonomia Jardueren gaineko Zergan Erregistro berriak % 1,0 murriztu dira.

Ekonomia Jardueren gaineko Zergan ematen den Erregistro berrien kopurua da enpresen dinamikotasunaren adierazle nagusietako bat, epe zehatz batean negozio berriak ezartzeko izen emateak irudikatzen baititu.

2016. urtean zehar Bilbon 6.491 erregistro berri eman dira zerga honetan, % 1,0ko murrizketa aurreko urtearen aldean.

Erregistro guztien aldean duten garrantzia aztertuta, enpresa jarduerak nabarmentzen dira, 4.376 batu eta % 67,4a direlako. 2016an kopurua % 1,1 jaitsi da, termino absolutuetan 50 izen emate gutxiago 2015ean baino.

Era berean, jardura profesioaletan urte arteko % 2,2ko jaitsiera eman da. 44 erregistro gutxiago termino absolutuetan, eta 1.995era heldu dira, erregistro guztien % 30,7a direlarik.

Hiru sektore handien urte arteko bilakaerak ere jardura ekintzailearen murrizketa erakusten du azken urtean, izan ere, hiru kasuetan jaitsi egin da ekonomia jardueren erregistro berrien kopurua. Ehunekotan, gehiago murriztu da Industrian, % -7,4a, eta emaitza hoberena Zerbitzuen sektoreak du, % -0,7a.

Zerbitzuetan zehazki, dinamikotasun handiena enpresendako Zerbitzuetan antzematen da. % 15,4 hazi dira, eta honek esan nahi du udalerrian 60 jardura berri ezarri direla; igo egin dira baita ere, 2016an, Jatetxeetako erregistroak (% 0,9).

Zerbitzuetako jardueren barruan duen garrantziagatik nabarmentzekoa da Merkataritzak izan duen joera negatiboa, non 2016an jasotako erregistroak aurreko urtekoak baino 67 gutxiago izan diren, % -5,0eko jaitsiera jasanda.

Ekonomia Jarduerak. Erregistroak.

	2015	2016	% 2016/15
Ekonomia jardueren erregistroak (kop.)	6.558	6.491	-1,0
Enpresa jardueren erregistroak (kop.)	4.426	4.376	-1,1
Industria	176	163	-7,4
Eraikuntza	917	904	-1,4
Zerbitzuak	3.333	3.309	-0,7
Merkataritza	1.345	1.278	-5,0
Jatetxeak	558	563	0,9
Finantza erakundeak, aseguruak	52	41	-21,2
Higiezin jarduerak	75	74	-1,3
Enpresendako zerbitzuak	419	479	14,3
Bestelako zerbitzuak	884	874	-1,1
Jardura profesioaletan erregistroak (kop.)	2.039	1.995	-2,2
Jardura artistikoetan erregistroak (kop.)	93	120	29,0

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

ENPRESEN DINAMIKOTASUNA [Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan

2016an Bilboko enpresek egindako kontratu kopurua % 7,3 hazi da urte artean. Datu honek indartu egiten du, dinamismoaren aldetik, egoera ekonomiko orokorrean ikusitako hobekuntza. Termino absolutuetan, 192.558 kontratu sinatu dira, aurreko urtean zehar sinatutakoak baino 13.085 gehiago, eta hazkunde honek gehiago eragin die emakumeei (% 13,2) gizonezkoei baino (% 0,6). Adin tarteei erreparatuta, igoera gehiago nabaritu da gazteenen artean, 16 eta 24 urte bitartekoan artean, kontratuetan % 26,0 gehiago sinatu dute eta.

Kontratuen hartzaile diren pertsona kopurua % 2,1 hazi da, eta kontratuen errotazio indizea 3 kontratuko da pertsonako 2016a ixtean, aurreko urteko datua baino hamarrekoko bat gehiago.

Jarduera sektoreen arabera eta ehuneko terminoetan, Zerbitzuen sektorea da erregistratutako kontratuetan hazkunde handiena erakusten duena, % 7,9a. Sektore honek bildu du 2016. urtean zehar enpresek udalerrian erregistratutako kontratuen % 93,4a. Lehen sektorea eta Industria, % 2,2 eta % 0,6 hazi dira urte artean, hurrenez hurren. % 2,5 murriztu da Eraikuntzako enpresen kontratazioa.

Jarduera arloen aldetik, sinatutako kontratuei erreparatuta dinamikoak dira Ostalaritza (34.853), Administratibo eta laguntzaileak (34.548) eta Osasungintza eta gizarte zerbitzuak (26.474). Urte arteko aldaketei dagokienez, gehien hazi diren jarduerak dira Ostalaritza bera (% 25,4), Administratibo eta laguntzaileak (% 21,6) eta Administrazio publikoa (% 20,3).

Erregistratutako kontratuak

	2015	2016	% 2016/2015
Erregistratutako kontratuak (kop.)	179.473	192.558	7,3
Emakumezkoak	95.324	107.889	13,2
Gizonezkoak	84.149	84.669	0,6
16-24 urte bitartean	26.772	33.740	26,0
25-44 urte bitartean	113.388	114.012	0,6
45 urte eta gehiago	39.313	44.806	14,0
Lehen sektorea	318	325	2,2
Industria	5.724	5.757	0,6
Eraikuntza	6.790	6.619	-2,5
Zerbitzuak	166.641	179.857	7,9
Finkoak eta finko bihurtuak	12.584	13.300	5,7
Aldi baterakoak	166.889	179.258	7,4
Kontratutako pertsonak	62.829	64.167	2,1

Iturria: SEPE.

EKOIZPEN EKONOMIA [Eraikuntza

Ekonomia jarduerak

Eraikuntzak 164 lizentzia gehiago dauzka 2016an.

Udalerrian dauden ekonomia jardueren kopuruari erreparatuta, badirudi eraikuntzak 2016an zehar berretsi egin duela bere susperraldia Bilboko ekonomian. 3.544 jarduera lizentziara heldu da, % 4,9ko hazkundearekin

-164 lizentzia gehiago-, hiribilduko lizentzia guztien batez besteko aldaketaren gainera. Batez besteko aldaketa % 1,9an kokatu da. Sektoreko lizentzia guztietatik, enpresenak 158 lizentzian hazi dira, % 6,1eko igoera izan dute eta, hala, 2.763 batu dituzte urte amaieran. Hazkundera txikiagoa da eraikuntzarako zerbitzuen jarduera profesionalen kasuan. 6 lizentzia irabazi dituzte (% 0,8) 2015. urtearen aldean.

Sektoreak hiriko ekonomian daukan pisua handitu egin du lizentzia kopuruari dagokionez, % 8,62tik % 8,86ra igarota, hau da, ehuneko 0,24 puntu gehiago.

Sektoreko mugimenduek adierazten dute egokitze aro batean jarraitzen duela. Alde batetik ikus daiteke nola handitzen den lizentzia aktiboen kopurua eta bestetik nola jaisten diren erregistro kopuruak bai ekonomia jardueren gaineko zergan eta baita merkataritza elkarte berrien sorreran ere.

Eraikuntza

	2015	2016	% 2016/15
Ekonomia Jarduerak Bilbo - Guztira	39.223	39.981	1,9
Ekonomia Jarduerak Bilbo – Eraikuntza - Guztira	3.380	3.544	4,9
Enpresa jarduerak - Eraikuntza	2.605	2.763	6,1
Jarduera Profesionalak – Eraikuntzarako zerbitzuak	775	781	0,8
Bilboko Eraikuntza sekt. Pisua / Lizentzia guztiekiko (%)	8,62	8,86	0,25 pp

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

Afiliatutako biztanleak

Eraikuntzako sektorean afiliatutako pertsonen kopuru osoa apur bat jaitsi da 2016. urtean zehar, eta hala izan da bai eraikuntzako lan propioetan beharrean dabiltzaneren artean eta baita eraikuntzarako laguntzaile gisa dabiltzaneren artean ere, kasu bietan % -0,2.

Afiliazio guztietatik 2.820, % 32,8a, eraikuntzari estu-estu lotuak daude eta 5.783 (% 67,2a), eraikuntzaren jarduera osagarriak. Lehenak 7 pertsonatan murriztu dira eta bigarrenak 11 lagunetan.

2016. urtean sektore honek izandako afiliazioak pisua galdu du udalerriko afiliazio guztien aldean, izan ere, % 5,09a izatetik % 4,98a izatera pasa da Bilbon, ehuneko 0,11 puntu gutxiago.

Afiliatutako biztanleak

	2015	2016	% 2016/15
Afiliatutako biztanleak (kop.)	169.462	172.830	2,0
Eraikuntza	8.621	8.603	-0,2
Eraikuntza	2.827	2.820	-0,2
Eraikuntzaren osagarriak	5.794	5.783	-0,2
Sektorearen pisua (%)	5,09	4,98	-0,11 pp

Iturria: Enplegua eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

EKOIZPEN EKONOMIA | Eraikuntza

Autonomoen Araubidean afiliatutako biztanleak

Eraikuntzako Behargin Autonomoen Erregimen Bereziko afiliazioak hazkunde arineko lerroa mantentzen du, 2015ean baino % 0,9 gehiago, eta afiliatutako 2.635 pertsona izatetik 2.660 izatera igaro da. Hazkunde positibo honek kontrastea egiten du Erregimen honetan izen emandako pertsona kopuru osoaren jaitzierarekin (% -0,9).

Autonomo Afiliatutako biztanleak

	2015	2016	% 2016/15
Autonomoen A.n afiliatutako biztanleak (kop.)	22.741	22.535	-0,9
Eraikuntza	2.635	2.660	0,9
Autonomoen pisua sektorean (%)	11,59	11,80	0,21 pp

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa

Etxebizitzen gaineko oniritziak eta lizitazioak

Bizkaiko etxebizitzen gaineko oniritzien eta lizitazioen datuak aztertuta egiaztatu dezakegu eraikuntzaren sektoreak daraman joera ezberdina, izan ere, 2016an zehar oniritzien kopurua % 33,5 hazi den bitartean, obra publikoen lizitazioak % 18,1 jausi dira.

Oniritziei soilik erreparatuta, obra berriarenak dira, guztien % 89,9, bilakaera onena izan dutenak, % 43,8a hazi dira eta, zabaltze eta/edo berritze obren % 18,4ko jaitzieraren aldean. Lizitazioei dagokienez, zentzu negatiboa dute bai Eraikuntzakoekin zein Obra zibilekoekin (% -1,7 eta % -23,8, hurrenez hurren). Osotara 99.326 euro galdu dira 2015. urtearen aldean.

Oniritziak

	2015	2016	% 2016/15
Etxebizitza oniritziak (kop.)	2.108	2.815	33,5
Obra berria	1.761	2.532	43,8
Zabaltze eta/edo berritzea	347	283	-18,4

Iturria: Sustapen Ministerioa.

Lizitazioak

	2015	2016	% 2016/15
Obra publikoaren lizitazioak (milaka €)	549.318	449.992	-18,1
Eraikuntza	142.194	139.753	-1,7
Obra zibila	407.124	310.239	-23,8

Iturria: SEOPAN.

Erradiografia jarduera sektoreka

Banaketa barrutietan

Merkataritza elkarte berriak

Erregistro berriak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan

Erregisitratutako kontratuak

Eraikuntza 1 2

Industria

Zerbitzuak 1 2

Kanpo merkataritza

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa **2016**

Orrialdea: 26

EKOIZPEN EKONOMIA [Industria

Ekonomia Jarduerak

Industriak, udalerrian dagoen ekonomia jardueren kopurua aztertuta, mantendu egiten du bere susperraldia Bilbon 2016. urtean zehar, jarduera lizentzien kopurua % 2,0 hazi ondoren, 34 lizentzia aktibo gehiago sektorean. Kasu honetan joera hau udalerriko ekonomia jarduera guztien joeraren antzekoa da, hauek % 1,9 hazi dira eta.

Jarduera profesionalak, berriz ere, joera hobea izan dute urtean zehar eta % 9,1 hazi dira, 298 lizentzia aktibotik 325era pasata. Igo egin dira, maila apalagoan, enpresa jarduerak ere, urte arteko % 0,5a, eta 2015ean 1.424 lizentzia izatetik 2016an 1.431 lizentzia izatera pasa dira, 7 lizentzia gehiago.

Industriak hiriko ekonomian duen pisua ez da aldatu, eta lizentzia guztien % 4,39a hartzen du 2016an.

Ekonomia jarduerak

	2015	2016	% 2016/15
Ekonomia Jarduerak Bilbo - Guztira	39.223	39.981	1,9
Ekonomia Jarduerak Bilbo - Industria - Guztira	1.722	1.756	2,0
Enpresa Jarduerak - Industria	1.424	1.431	0,5
Jarduera profesionalak - Industriadako zerbitzuak	298	325	9,1
Bilboko Industria sekt. pisua / Lizentzia guztiekiko (%)	4,39	4,39	0,00 pp

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia

Afiliatutako biztanleak

Industriaren afiliatutakoak % 6,0 hazi dira.

Industriaren sektorean afiliatutako biztanleei dagokienez, eta datua bermatuta jarduera lizentzien bilakaerak izandako joera onarekin, Bilboko enpresetan afiliatutako pertsona kopurua 8.617koa izateraino hazi da, % 6,0ko hazkundea 2015. urtearen aldean. Sektoreko afiliazio guztietatik 5.081 (% 59a) Industriari dagozkio, 1.132 (% 13a) energiaren azpisektoreari eta 2.404 (% 28a) ur eta hondakinen multzoari. Sektoreak osotara hiribilduan afiliatutako biztanleen % 4,99a biltzen du.


Afiliatutako biztanleak

	2015	2016	% 2016/15
Afiliatutako biztanleak (kop.)	169.462	172.830	2,0
Industria eta Energia	8.129	8.617	6,0
Industria	4.934	5.081	3,0
Energia	1.099	1.132	3,0
Ur eta hondakinak	2.096	2.404	14,7
Sektorearen pisua (%)	4,80	4,99	0,19pp

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa

Industria Ekoizpenaren Indizea

Industria jarduerak Bizkaian duela urte bi hasitako indarberritze joera bermatu du, Industria Ekoizpenaren Indizea (IEI) hazita % 0,50an 2016. urtean, krisiaren hasieratik % 28a jausi izanaren ondoren.



Iturria: EUSTAT

EKOIZPEN EKONOMIA [Zerbitzuak

Jarduera Lizentziak

Zerbitzuen sektorea 35.418 lizentzia izatera heldu da 2016. urtean, aurreko urtean baino % 1,6 gehiago, eta 559 lizentzia gehiago. Kopuru honek barnebiltzen ditu udalerriko 25.621 enpresa jarduerak eta 9.797 jarduera profesionalak, kontutan hartuta aurreko analisisan ere aztertu diren eraikuntzari eta industriari emandako zerbitzuak. Biek ala biek datu positiboak erakusten dituzte, nahiz eta jarduera profesionalen hazkundera enpresa jarduerena baina apur bat altuagoa izan, % 1,7 eta % 1,6 gehiago, hurrenez hurren. Sektore honek lizentzia kopuru osoaren barruan duen pisua % 88,59koa da, aurreko urtekoa baino txikiagoa ehuneko 0,25 puntutan.

Merkataritza eta ostalaritzako jarduerak dira lizentzia kopuru handiena dutenak, % 51,0, 13.077 lizentziara helduta 2016an. Jarraian datoz enpresendako zerbitzuak, 4.702 lizentziarekin, osotasunaren % 18,4a.

Finantza eta zuzenbide zerbitzuak (4.277) nabarmendu egiten dira jarduera profesionalen artean, eta garrantzia berezia lortu dute zuzenbideko profesionalen lizentziek, eta zehatzago, abokatuenek: 1.891 lizentzia 2016an. Garrantzitsua da bestelako zerbitzuekin loturiko lizentzia kopurua ere. Bertan, irakaskuntzako eta osasungintzako profesionalak 2.407 lizentzia biltzen dituzte.

Jarduera Lizentziak

	2015	2016	% 2016/15
Ekonomia Jarduerak Bilbo - Guztira	39.223	39.981	1,9
Ekonomia Jarduerak Bilbo – Zerbitzuak - Guztira	34.859	35.418	1,6
Enpresa Jarduerak - Zerbitzuak	25.226	25.621	1,6
Jarduera Profesionalak - Zerbitzuak*	9.633	9.797	1,7
Bilboko Zerbitzu Sekt. pisua / Lizentzia guztiekiko (%)	88,87	88,59	-0,25 pp

*Barne hartzen ditu industria eta eraikuntzari emandako zerbitzuak, jada aztertu direnak beren sektoreen barruan. Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

EKOIZPEN EKONOMIA [Zerbitzuak

Afiliatutako biztanleak

Hiribilduan afiliatutako biztanleen % 89,8a zerbitzuen sektoreari dagokio.

Bilbon zerbitzuen sektoreko enpresetan afiliatutako biztanleriak 155.260 pertsona biltzen ditu eta hiriko enpresen afiliazio guztien % 89,8a da. Merkataritzako sektoreak dauka

afiliatuen ehuneko handiena, % 13,4, eta jarraian datoz Hezkuntza eta Jarduera Administratibo eta zerbitzu laguntzaileak, % 11,7 kasu bietan. Urte arteko terminoetan, zerbitzuen sektoreko afiliazioak % 1,9 hazi dira, afiliatutako biztanleria osoa hazi den % 2,0a baino apur bat gutxiago

Sektoreko afiliazioen urte arteko bilakaera hoberena izan dute Olgeta eta Kultura jarduerak (% 18,6) eta Ostatu zerbitzuek (% 8,5) eta okerrenak Higiezinak zerbitzuek (% -9,8) eta Finantza eta aseguruak (% -5,4).

Zerbitzuen salmenta indizea

2016. urtean zehar hiriko egoera ekonomikoan sumatutako pixkanakako susperraldiak positiboki eragin dio zerbitzuen salmenta indizeari, % 3,1 hazi da, 95,8ra heltzeraino.

Aurreko urtearen aldean bilakaera hoberena izan duten jarduerak dira Ostalaritza eta jarduera Administratibo eta zerbitzu laguntzaileak, % 8,6 eta % 5,2 hazita, hurrenez hurren. Salmentak hazi egin dira baita ere jarduera Profesional, zientifiko eta teknikoetan (% 4,7) eta Informazio eta komunikazioenak (% 4,0). Emaizta negatibo bakarra Garraio eta biltegiatzearen arloari dagokio, % 1,8 jaitsi da eta.

Afiliatutako biztanleak

	2015	2016	% 2016/15
Afiliatutako biztanleak (kop.)	169.462	172.830	2,0
Zerbitzuak	152.371	155.260	1,9
Merkataritza	21.127	20.812	-1,5
Jard. Administratibo eta zerbitzu laguntzaileak	17.426	18.091	3,8
Hezkuntza	17.542	18.159	3,5
Jard. Profesional, zientifiko eta teknikoak	11.974	12.145	1,4
Administrazio Publikoa	10.703	10.796	0,9
Osasungintza	12.437	12.953	4,1
Gizarte zerbitzuak	8.260	8.390	1,6
Finantza eta aseguruak	8.407	7.950	-5,4
Garraioa eta biltegiatzea	7.992	8.188	2,5
Ostalaritza	9.367	9.768	4,3
Informazioa eta komunikazioak	7.499	7.877	5,0
Etxeko beharginak	7.291	7.293	0,0
Olgeta eta kultura	3.243	3.846	18,6
Ostatu zerbitzuak	1.202	1.304	8,5
Higiezinak	1.138	1.026	-9,8
Bestelako zerbitzuak	6.763	6.662	-1,5

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Zerbitzuen salmenta

	2015	2016	% 2016/15
Zerbitzuen salmenta Indizea	93,0	95,8	3,1
Merkataritza	95,4	98,2	3,1
Garraioa eta biltegiatzea	108,4	106,4	-1,8
Ostalaritza	82,6	89,8	8,6
Informazioa eta komunikazioak	76,2	79,2	4,0
Jard. Profesional, zientifiko eta teknikoak	86,9	91,0	4,7
Jard. Administratibo eta zerbitzu laguntzaileak	82,9	87,0	5,2

Iturria: EUSTAT.

EKOIZPEN EKONOMIA | Kanpo merkataritza

Bizkaian ondasun eta zerbitzuen esportazioak 2016an 7.985,71 milioi eurokoak izatera heldu ziren, % 11,7ko jaitsiera aurreko urtearen aldean. Jaitsiera are handiagoa izan da inportazioen kasuan, izan ere, 2015ean 9.904,00 milioi eurokoak izatetik 8.376,42 milioikoak izatera pasa ziren 2016an, % -15,4.

Era honetan, merkataritza saldo negatiboaren kopurua gutxitu egin da 467,8 milioi eurotan, 2015eko -858,51 milioitik -390,71 milioikoa izatera pasata 2016an.

Kanpo merkataritza

	2015	2016	% 2016/15
Esportazioak (Milioi €)	9.045,49	7.985,71	-11,7
Inportazioak (Milioi €)	9.904,00	8.376,42	-15,4
Merkataritza saldoa (Milioi €)	-858,51	-390,71	

Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa (DATACOMEX) Bizkaia.

Lan Merkatua

Biztanleria aktiboa, okupazioa eta langabezia

Jarduera
Okupazioa
Langabezia

Afiliatutako biztanleria

Afiliazioa erregimenaren arabera
Afiliazioa sektore eta jardueraren arabera

Bertakoei erregistratutako kontratuak

Langabezia erregistratua

Jarduera

Afiliazioa erregimenaren arabera

Okupazioa

Afiliazioa sektore eta jardueraren arabera

Langabezia

3

Orrialdea: 31

BIZTANLERIA AKTIBOA, OKUPAZIOA ETA LANGABEZIA [Jarduera

Bilboko

Urtekeri Sozioekonomikoa 2016

Biztanleria aktiboa % 2,4 jaitsi da Bilbon.

Biztanleria aktiboa Bilbon 160,8 mila pertsonaraino jaitsi da 2016. urtean, INE-k Biztanleria Aktiboaren Inkestan (EPA) eskainitako datuen arabera. Jaitsiera hau eragin dute okupatutako biztanleria gutxi hazteak eta biztanleria langabetua nabarmen murrizteak. Biztanleria aktiboa generoaren arabera aztertuta, oreka ikus dezakegu gizon (% 50,3) eta emakumeen (% 49,7) artean.


Urtean zehar beharrezko aritzeko moduan dagoen biztanleria % 2,4 murriztu da (3.900 pertsona gutxiago termino absolutuetan). Murrizketa hau eragin du gizonen artean biztanleria aktiboa jaitsi izanak (% -7,5), emakumeen kasuan hazi egin baita (% 3,5). Biztanleria aktiboaren uzurtzea askoz nabariagoa da 2015ean eman zena baino, 400 pertsona aktibo galdu ziren urte hartan.

Ondorioz, ateratzen den jarduera tasa % 55,81ean kokatzen da, 2015ekoa baino ehuneko 1,08 puntu baxuagoa. Era berean, mantendu egiten da generoaren araberako ezberdintasuna, izan ere, 2016. urtean 16 urte edo gehiagoko gizonen % 62,64a dago okupatua edo lan bila, egoera berdinean dauden emakumeen kasuan % 50,27a da.

Udalerriko jarduera tasa Bizkaiko batez bestekoaren azpitik gelditzen da (% 56,84), eta baita EAEkoaren azpitik (% 56,94) eta estatuko batez bestekoaren azpitik ere (% 59,23).

Biztanleria aktiboa

2016 160.800
2015 164.700



16 urte eta gehiagoko biztanleria aktiboa (milaka) eta jarduera tasa

	2015	2016	% 2016/2015
Biztanleria aktiboa (milaka)	164,7	160,8	-2,4
Emakumezkoak	77,2	79,9	3,5
Gizonezkoak	87,5	80,9	-7,5
Biztanleria okupatua	134,5	135,7	0,9
Biztanleria langabetua	30,2	25,1	-16,9
Jarduera tasa (%)	56,89	55,81	-1,08*
Emakumezkoak	49,22	50,27	1,05*
Gizonezkoak	65,96	62,64	-3,32*

* Aldea puntu portzentualetan

Iturria: INE - EPA. Urteko datuak hiruhilekako lau inkesten batez bestekoei dagozkie.

BIZTANLERIA AKTIBOA, OKUPAZIOA ETA LANGABEZIA [Okupazioa

Biztanle aktiboen %

84,4a okupatuta dago.

Bilbon okupatua dagoen biztanleria 135,7 mila pertsonakoa da 2016. urtean. Honek esan nahi du udalerriko pertsona aktiboen % 84,4ak enplegua duela epe honetan. Urteko batez bestekoa, okupatutako biztanleria % 0,9 hazi da 2015. urtearen aldean, 1.200 pertsona gehiago termino absolutuetan.

Emakumezkoek % 5,2ko okupazioa irabazi dute aurreko urtearen aldean, eta gizonezkoen artean % 3,0 murriztu da enplegua. Generoen parte hartzeari dagokionez, emakumezkoek lan merkatuan duten presentzia hazi egin da, 2015ean % 47,7koa izatetik % 49,7koa izateraino 2016an.


Enplegu tasa hazi egin da emakumezkoen zein gizonezkoen kasuan.

Enplegu tasak, 2016an, % 47,09ko batez bestekoa du, aurreko urtearen aldean ehuneko % 0,62 puntu hazi ondoren. Emakumezkoen kasuan, enplegu tasa (% 42,40) ehuneko 1,52 puntu igo da, eta gizonezkoena baino baxuagoa izaten jarraitzen du (% 52,86). Azken hau 1,37 puntu hazi da.

Edonola ere, Bilboko enplegu tasaren hazkundea ez da nahikoa izan Euskal Autonomi Erkidegoko batez besteko enplegu tasa gainditzeko (% 49,78), ezta Espainiar Estatuko gainditzeko ere (% 47,60).

Okupazioaren inguruko datuak jarduera sektoreka aztertuta, Zerbitzuak dira Bilbon bizi den biztanleria okupatuaren zati handiena hartzen dutenak (% 81,8), guztira 111,0 mila pertsona izanda. Industriak, 16,3 mila pertsona okupaturekin, % 12a barnebiltzen du eta Eraikuntzako sektorean okupatutako biztanleria 8,1 mila pertsonakoa izatera heldu da, % 6,0a. Lehen sektoreak okupazioan duen ordezkariak, % 0,2a, ez da esanguratsua.

Industria sektoreak okupazioaren % 32,5a irabazi du 2016. urtean zehar, 4.000 pertsona okupatu gehiago. Eraikuntzan 500 pertsona okupatu galdu dira (% -5,8) eta Zerbitzuen sektorean % 2,3 murriztu da okupazioa, 2.300 pertsona gutxiago. Lehen sektoreak, 300 pertsonarekin, mantendu egin du 2015ean zuen okupazioa.



16 urte eta gehiagoko biztanleria okupatua eta enplegu tasa

	2015	2016	% 2016/2015
Biztanleria okupatua (milaka)	134,5	135,7	0,9
Emakumezkoak	64,1	67,4	5,2
Gizonezkoak	70,4	68,3	-3,0
Nekazaritza	0,3	0,3	0,0
Industria	12,3	16,3	32,5
Eraikuntza	8,6	8,1	-5,8
Zerbitzuak	113,3	111,0	-2,0
Enplegu tasa (%)	46,47	47,09	0,62*
Emakumezkoak	40,88	42,40	1,52*
Gizonezkoak	51,49	52,86	1,37*
16 urte eta gehiagoko biztanleria (milaka)	289,42	288,07	-0,46

* Aldea puntu portzentualetan

Iturria: INE - EPA. Urteko datuak hiru hilabetez bestekoei dagozkie.


Biztanleria langabetua % 16,9 jaitsi da 2016an.

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (EPA) arabera, Bilboko biztanleria langabetua 25,1 mila pertsonakoa da 2016. urtean, horietatik 12,5 emakumezkoak dira eta 12,6 gizonezkoak. Honela, 2016an zehar inkestatutako biztanleria langabea % 16,9 jaitsi da, 5.100 pertsona langabe kenduta, eta egonkortu egin da aurreko urteko susperraldirako joera.

Bi sexuei lagundu die langabeziaren murrizketak, baina eragin handiagoa izan du nabarmen gizonezkoen artean. Talde honetako biztanleria langabetua % 26,3 jaitsi da, 4.500 langabetu gutxiago, eta emakumezkoen kasuan murrizketa % 4,6koa izan da, 600 langabetu gutxiago.

Bilbon udalerriko urteko langabezia tasaren batez bestekoa % 15,6koa da, altuagoa Euskadikoa baino (% 12,6), baina Estatuko batez bestekoaren azpitik. Espainiar Estatuan % 19,6ko batez besteko langabezia tasa dago 2016an.

Langabezia tasaren bilakaera



Iturria: INE - EPA. Datuak hiruhilekoka.

16 urte eta gehiagoko biztanleria langabetua eta langabezia tasa

	2015	2016	% 2016/2015
Biztanleria langabetua (milaka)	30,2	25,1	-16,9
Emakumezkoak	13,1	12,5	-4,6
Gizonezkoak	17,1	12,6	-26,3
Langabezia tasa (%)	18,33	15,62	-2,71*
Emakumezkoak	16,94	15,62	1,32*
Gizonezkoak	19,54	15,61	3,93*

* Aldea puntu portzentualetan

Iturria: INE - EPA. Urteko datuak hiruhileka egindako lau inkesten batez bestekoei dagozkie.

AFILIATUTAKO BIZTANLERIA [Afiliazioa erregimenaren arabera

2016. urtean zehar egonkortu egin da Gizarte Segurantzaren egindako afiliazioen hazkundera.

hiru urteetan jarraian emandako hazkundera, 2007. urtetik murrizketa sorta bat jasan eta gero.

Erregimen Orokorreko afiliazioa % 2,0 hazi da 2016an.


Afiliazio erregimenei erreparatuta, azpimarratzeko modukoa da afiliatutako biztanle gehienak Erregimen Orokorrean sartzen direla, afiliatu guztien % 82,7a. 142.852 pertsona dira guztira, dauden hamar afiliatuetatik zortzi. Bigarren kotizazio talde jendetsuena Behargin Autonomoen Erregimen Berezian afiliatutako beharginei dagokie. 22.535 afiliazio daude bertan, afiliazio guztien % 13,0a. Azkenik, afiliazioaren % 3,9a, 6.717 pertsona, Etxeko Beharginen erregimen berezian kokatzen da. Gutxiengoa delarik, afiliatuen % 0,4a Itsasoko eta Nekazaritza sektoreko Beharginen Erregimen Berezian dago, azken bi hauen artean 726 afiliazio.

Aurreko urtearekin alderatuta, erregimenen arabeko afiliazioen bilakaerak Erregimen Orokorra lagundu du gehien. 3.471 pertsona afiliatu gehiago dauzka, eta % 2,5eko hazkundera ehunekotan. Aldiz, Behargin Autonomoen Erregimen Berezian 206 afiliazio galdu ditu, urte arteko terminoetan % -0,9. Nekazaritzakoak 8 afiliatu galdu ditu, % 4,9 gutxiago, eta Itsasoko Erregimenak 85 irabazi ditu, % 17,5eko hazkundera sektore honentzat.

Azkenik, Etxeko Beharginen Erregimen Berezian dagoen taldeak 2016. urtea itxi du % 0,4ko hazkunderarekin 2015. urtearen aldean, 26 afiliatu gehiago.

Bilboko enpresetan, guztira 172.830 pertsona daude afiliatuta Gizarte Segurantzako kotizazio erregimen desberdinetan, 2016. urtea ixterakoan. Urte arteko terminoetan % 2,0ko igoera eman da, aurreko urtean baino 3.368 pertsona gehiago afiliatuta. Afiliazioan emandako hazkundera honek egonkortu egin du azken

Afiliatutako biztanleriaren bilakaera



Datuak abenduko hilabeteari dagozkio.
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

AFILIATUTAKO BIZTANLERIA [Afiliazioa sektore eta jardueraren arabera

Industria eta energiako afiliazioa hazi egin da berriro ere.

Jarduera sektoreen arabera banaketari dagokionez, Zerbitzuek barnebiltzen dute 2016an Bilboko enpresek sortutako enplegu guztiaren % 89,8a, 155.260 pertsona afiliatuta urte amaieran. Zerbitzuena da afiliazioaren termino absolutuetan enplegu gehien batu duena, 2.889 pertsona gehiago.

Merkataritzak mantendu egin du afiliazio kopuruan zeukan garrantzia.

Industria eta Energiaren sektorean afiliatutako pertsonen kopurua da ehunekotan gehien hazi dena, % 6,0, eta 8.617 afiliatutan kokatu da, 2015. urtean baino 488 gehiago. Eraikuntzaren portaerari dagokionez, negatiboa da beste behin ere, afiliatuen % 0,2 galduta 2016an.

Jarduera esparruen arabera azterketa zehatzago bat egitean, ikus daiteke merkataritza sektoreak Bizkaiko hiriburuaren ekonomian daukan garrantzia. Afiliazio kopuru handiena dauka, 20.812 pertsona guztira, afiliazio guztien % 12,0a. Daukaten afiliazio tasa altuagatik nabarmentzekoak dira baita ere Hezkuntza (% 10,5), Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak (% 10,5), Osasungintza (% 7,5) Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak (% 7,0) eta Administrazio publikoa (% 6,2).

Manufakturen industriako afiliazioa hazi egin da aurreko urtearekiko eta 147 pertsona afiliatu berri irabazi ditu, % 3,0a. Gehiago hazi da oraindik, ehuneko terminoetan, bigarren sektorearen barruan energiaren sektoreko jarduerari lotutako enplegua, 123 afiliatu gehiago batuta (% 12,2). Ur hornikuntza eta hondakinen kudeaketa jarduerak % 14,7 igo dira.

Afiliazioa apur bat jaitsi da Eraikuntzan. % 0,2ko murrizketa jasan du, 18 pertsona gutxiago. Jarduera osagarrietan (iturgintza, elektrizitatea, etab.) ehuneko berean jaitsi da kopurua (% -0,2), 11 pertsona gutxiago, eta eraikuntzari zehazki eragiten dioten arloetan 7 afiliatu galdu dira.

Nabarmendu egin da Industria eta Energia jardueretan emandako % 6,0ko hazkundea.

Zerbitzuen sektoreko afiliazioak joera positiboa izan du 2016. urtean. Nabarmentzekoak dira ehuneko terminoetan eman diren hazkundeak Olgeta eta kultur jardueretan (% 18,6), Ostatu jardueretan (% 8,5), Informazio eta komunikazioetan (% 5,0) eta Ostalaritzan (% 4,3). Hazi egin dira baita ere Osasungintza (% 4,1), Administrazio jarduera eta zerbitzu osagarriak (% 3,8) eta Hezkuntza (% 3,5), besteak beste.

Zerbitzu sektorearen joera orokorra positiboa izan bada ere, jarduera arlo batzuek afiliatuak galdu dituzte. Hau da Higiezineta zerbitzuen kasua, 140 afiliazio galdu dituzte (% -9,8). Galerak eman diren beste arlo batzuk izan dira Finantza eta aseguruena (% -5,4) eta Merkataritzarena (% -1,5). Azken hau garrantzi handiko galera izan da, sektore honek Bilbon duen pisuagatik (315 afiliazio gutxiago).

Gainontzeko euskal hiriburuetan ere, afiliatutako biztanleriak joera positiboa izan du: Gasteizen % 2,6 hazi da eta Donostian % 2,1.

Afiliatutako biztanleria, kotizazio erregimenen eta jarduera sektoreen arabera

	2015	2016	% 2016/15
Afiliatutako biztanleria	169.462	172.830	2,0
Erregimen Orokorra	139.381	142.852	2,5
Autonomoak	22.741	22.535	-0,9
Etxebizitza	6.691	6.717	0,4
Nekazaritza	163	155	-4,9
Lehen sektorea	341	350	2,6
Industria eta Energia	8.129	8.617	6,0
Eraikuntza	8.621	8.603	-0,2
Zerbitzuak	152.371	155.260	1,9

Datuak abenduko hilabeteari dagozkio.
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Afiliazioa jarduera arloen arabera

	2015	2016	% 2016/15
Afiliatutako biztanleak	169.462	172.830	2,0
Lehen sektorea	341	350	2,6
Industria eta Energia	8.129	8.617	6,0
Industria	4.934	5.081	3,0
Energia	1.009	1.132	12,2
Hondakinak eta Ura	2.096	2.404	14,7
Eraikuntza	8.621	8.603	-0,2
Eraikuntza	2.827	2.820	-0,2
Eraikuntzaren osagarriak	5.794	5.783	-0,2
Zerbitzuak	152.371	155.260	1,9
Merkataritza	21.127	20.812	-1,5
Administratiboak eta osagarriak	17.426	18.091	3,8
Hezkuntza	17.542	18.159	3,5
Profesional, zientifiko eta teknikoak	11.974	12.145	1,4
Administrazio Publikoa	10.703	10.796	0,9
Osasungintza	12.437	12.953	4,1
Gizarte zerbitzuak	8.260	8.390	1,6
Finantzak eta aseguruak	8.407	7.950	-5,4
Garraioa eta biltegiatzea	7.992	8.188	2,5
Ostalaritza	9.367	9.768	4,3
Informazioa eta komunikazioak	7.499	7.877	5,0
Etxeko beharginak	7.291	7.293	0,0
Olgeta eta kultur jarduerak	3.243	3.846	18,6
Ostatu zerbitzuak	1.202	1.304	8,5
Higiezinak	1.138	1.026	-9,8
Bestelako zerbitzuak	6.763	6.662	-1,5

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Afiliatutako biztanleria. Hiriburuak

	2015	2016	% 2016/15
Bilbo	169.462	172.830	2,0
Gasteiz	112.755	115.704	2,6
Donostia	109.427	111.691	2,1

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

BERTAKOEI ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK

% 10,3 hazi dira Bilbon bizi diren pertsonen erregistratutako kontratuak.

2016an zehar 139.802 laneko kontratu formalizatu dira, Bilbon bizi diren biztanleei zuzenduak. 13.007 gehiago aurreko urtean baino (% 10,3), udalerritik kanpo edo udalerririk barruan ezarritako enpresek burututa.

Kontratu hauen erdia baino zertxobait gehiago emakumezkoen egin zaizkie (% 51,2). Hauek, gainera, ikusi dute nola urte arteko alderaketan euren kontratazioa igo egin den gizonezkoen izandako hazkundearen gainetik, % 10,9, gizonezkoen % 9,6aren aldean.

Kontratuen errotazio/txandakatze indizea pertsonako 3,4 kontratukoa da. 3,5 emakumezkoen kasuan eta 3,3 gizonezkoen.

16-24 urte bitarteko pertsonen erregistratutako kontratuak

Bilbon bizi diren biztanleei erregistratutako kontratuen % 32,6a 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen dagokie. 45.617 datu absolutuetan. Hurrengo adin tarteak, erregistratutako kontratuen kopuruaren arabera, 35 eta 44 urte bitartekoak da, % 25,5a izanik, 35.624 kontratu batu dituzte.

%24,3 hazi dira.

2015. urtearen aldean, aztertutako adin tarte guztiek erakutsi dituzte igoerak erregistratutako kontratuen kopuruan. Nabarmentzekoak dira eman diren hazkunde garrantzitsuak 16 eta 24 urte bitartekoan taldean (% 24,3) eta 45 urte eta gehiagokoen taldean (% 14,2).

Sinatutako kontratuen % 10,5a, atzerriko naziotasuna duten pertsonen egin zaie, 14.640 kontratu guztira, eta kontratazio hauen bilakaera % 9,9 handiagoa izan da 2016an. Biztanle multzo honendako, gizonezkoen egindako kontratuen pisuak (% 58) gaintu egiten du emakumezkoena (% 42). Gizonezkoen dagokie kontratuen urte arteko hazkunde handiena, % 13,0a emakumezkoen izandako % 5,9ko igoeraren aldean.

Azken urtean zehar mantendu egin da erregistratutako kontratu berrien aldi baterakotasun izaera. Sinatutako kontratuen % 91,6 dira aldi baterakoak. Mota honetako aldi baterako kontratuak, gainera, gehiago hazi dira ehunekotan finkoak eta finko bihurtuak baino, urte arteko % 10,8, azken bi hauen % 4,6ko igoeraren aldean.

Zerbitzuen sektorea da kontratazioan protagonismo gehien duena. Izan ere, 2016an erregistratutako kontratuen % 85,9a sektore honetako enpresenak izan dira. Azken urtean % 10,3ko hazkundea izan dute. Hazi egin dira baita ere kontratazioak industria jardueretan (% 9,8), eraikuntzan (% 4,6) eta lehen sektorean (% 31,5).

Erregistratutako kontratuak

	2015	2016	% 2016/15
Erregistratutako kontratuak (kop.)	126.795	139.802	10,3
Emakumezkoak	64.561	71.587	10,9
Gizonezkoak	62.234	68.215	9,6
16-24 urte bitartean	20.057	24.929	24,3
25-34 urte bitartean	44.380	45.617	2,8
35-44 urte bitartean	32.906	35.624	8,3
45 urte eta gehiago	29.452	33.632	14,2
Finkoak eta finko bihurtuak	11.242	11.762	4,6
Aldi baterakoak	115.553	128.040	10,8
Lehen sektorea	1.282	1.686	31,5
Industria	11.170	12.268	9,8
Eraikuntza	5.541	5.797	4,6
Zerbitzuak	108.802	120.051	10,3
Kontratutako pertsonak	39.574	40.959	3,5
Txandakatze indizea	3,2	3,4	6,3

Iturria: SEPE.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Hiribilduan 2016 amaieran 2.255 pertsona langabe gutxiago daude.

SEPE, Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoaren arabera, langabe dauden 26.181 pertsona erregistratuta amaitu da 2016. urtea Bilbon. Azken urtean, langabezia erregistratua % 6,5 jaitsi da emakumezkoen artean eta % 9,2 gizonezkoen artean. Hala, langabe dauden emakumezkoak 13.833 dira, guztien % 52,8a, eta gizonezko langabeak 12.384 dira (% 47,2).

Azken urtean udalerrian eman den langabeziaren jaitsiera % 7,9koa da. Honek ekarri du 2.255 pertsona langabe gutxiago egotea, 2015ean hasitako jaitsiera egonkortuz.


Erregistratutako langabezia jaitsi egin da aztertutako adin tarte guztietan.

Bilbon erregistratutako langabeziaren % 49,4a 45 urte eta gehiagoko pertsonetan biltzen da. Bigarren talde jendetsuena 35 eta 44 urte bitartekoena da, osotasunaren % 26,0a

hartzen dutelarik. Gazteen artean, 16 eta 24 urte bitartekoak erregistratutako % 5,8a dira, eta 25 eta 34 urte bitartekoak % 18,8a.

Aurreko urtearen aldean, 35 eta 44 urte bitartean dauzkaten pertsonak dira bilakaera hoberena izan dutenak, % 10,9 jaitsi baita euren langabezia tasa. Beren aldetik, 16 eta 24 urte bitarteko gazteek % 6,8 hobetu dute egoera, eta 25 eta 34 urte bitarteko langabeak % 10,6 murriztu dira. Helduenak dira, 45 urte eta gehiagokoak, gutxien jaitsi direnak, erregistratutako pertsona langabeen kopuruan % 5,4ko jaitsiera izan dute eta.

Erregistratutako biztanle langabeen bilakaera



Datuak abendu hilabeteari dagozkie.

Iturria: Sepe.

Gasteiz da 2016an langabezia gehien jaitsi den hiriburua.

Langabe gisa izen emandako pertsonen % 66,1ak, 17.313 pertsona, lan egin izan du zerbitzuen sektorean. Eraikuntzatik dator % 10,1a eta industriatik % 8,3a. Lehen sektoreak langabe guztien % 2,1a ekartzen du, eta 3.492 pertsona langabek, % 13,3ak, ez dute beste lanik izan lehenago.

Langabeziaren joerak onera egin du sektore guztietan 2016an zehar. Nabarmentzekoak dira Eraikuntza eta Industria, termino erlatiboetan, % 15,0 eta 12,4 jaitsi baitute, hurrenez hurren, langabeziari egiten dioten ekarpena. Zerbitzuen sektoreak ere murrizketa handi bat izan du, % 7,5ekoa, eta Lehen Sektoreak % 1,5ekoa. Lehenago beharrean aritu gabeak % 1,9 jaitsi dira.

Hamar langabetik seik derrigorrezko ikasketak amaitu dauzkate 2016an. Gainontzekoak banatu egiten dira Batxilergoko ikasketak dituztenen (% 10,7), Lanbide Heziketa egin dutenen (% 13,8) eta Unibertsitateko ikasketak egin dituztenen (% 13,4) artean. Azken urte honetan, murrizketa erlatibo handiena izan dutenak Batxilergoko ikasketak dituztenak izan dira (% -11,5), eta jarraian Lanbide Heziketa egin dutenak (% -9,8). Unibertsitateko ikasketak dituzten pertsona langabeak % 7,7 murriztu dira, eta derrigorrezko ikasketak dituztenek ere kopurua jaitsi dute, % 6,9.

Langabezian dauden pertsonen % 43,2ak bi urtetik gora darama egoera horretan eta nabarmentzekoa da kopuru hau txikitu egin dela bigarren urtez jarraian (% -7,5). Langabezia egoeran sei hilabete baino gutxiago daramatzatenak talde osoaren % 29,2a dira, eta multzo honek ere murriztu egin du langabetuen kopurua (% -4,4). SEPEan izen emanda urtebete eta bi urte bitartean daramatenak dira jaitsiera handiena izan dutenak (% -12,1); eta 6 hilabete eta urtebete

bitartean daramatenak ere murriztu egin dira, kasu honetan % 11,9.

Euskal hiriburu guztietan behera egin du erregistratutako langabeziak, eta Gasteiz izan da ehuneko handienez jaitsi dena (% -10,0). Jarraian Donostia (% -9,7) eta Bilbo (% -7,9).

Erregistratutako biztanleria langabetua

	2015	2016	% 2016/15
Erregistratutako biztanleria langabetua	28.436	26.181	-7,9
Emakumezkoak	14.801	13.833	-6,5
Gizonezkoak	13.635	12.384	-9,2
16-24 urte bitartean	1.634	1.523	-6,8
25-34 urte bitartean	5.496	4.915	-10,6
35-44 urte bitartean	7.638	6.809	-10,9
45 eta gehiago	13.668	12.934	-5,4
Lehen sektorea	548	540	-1,5
Industria	2.488	2.180	-12,4
Eraikuntza	3.124	2.656	-15,0
Zerbitzuak	18.716	17.313	-7,5
Lehenago beharrean aritu gabeak	3.560	3.492	-1,9
Derrigorrezko ikasketak	17.472	16.266	-6,9
Batxilergoa	3.152	2.790	-11,5
Lanbide Heziketa	4.017	3.623	-9,8
Unibertsitatea	3.795	3.502	-7,7
6 hilabetera arte	7.984	7.632	-4,4
6 hilabetetik urtebetera	3.779	3.331	-11,9
Urtebetetik 2 urtera	4.431	3.895	-12,1
2 urtetik gora	12.242	11.323	-7,5

Iturria: SEPE. Datuak abendu hilabeteari dagozkie.

Erregistratutako biztanleria langabetua. Hiriburuek

	2015	2016	% 2016/15
Bilbo	28.436	26.181	-7,9
Gasteiz	19.108	17.187	-10,0
Donostia	9.668	8.733	-9,7

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

Merkataritza



Merkataritza jarduerak eta enpresak

Merkataritza jardueraren dinamikotasuna

Soldatapeko enplegua

Etxebizitzen kontsumoa

Sektorearen salmentak

MERKATARITZA JARDUERAK ETA ENPRESAK

2016an lizentziak irabazi ditu handizkako merkataritzak.

jardueratik bat talde honi dagokio.

Txikizkako merkataritza eskaintzak, 6.960 lizentziarekin, hiribilduko merkataritza jardueren % 77,4a hartzen du, eta handizkako merkataritzaren azpisektoreari dagokio gainerako % 22,6a.

Urtean zehar 20 unitatetan murriztu da merkataritza jardueren kopurua, 2015ean baino % 0,2 gutxiago. Murrizketa xume hau txikizkako merkataritzako lizentziak jaitsi izanak eragin du, % -0,7, 47 lizentzia gutxiago. Handizkako merkataritzak, bere aldetik, 27 lizentzia irabazi ditu (% 1,4).

Hiribilduan duten kopuruagatik, gehien nabarmentzen diren txikizkako merkataritza jarduerak dira Elikadura, edaria eta tabakoari lotutakoak, 2.075 merkataritza jarduera dituztelarik, Oihal eta oinetakoak, 1.306 izanik, eta Etxe tresneria eta eraikuntzakoak, 968 jarduerarekin. Eta kategoria hauek dira, hain zuzen ere, presentzia galdu dutenak urtean zehar, % -2,7 oihal eta oinetakoak eta etxe tresneriaren kasuan, eta % -1,0 elikadura, edaria eta tabakoa eskaintzen duten denden artean.

Aurkako aldean, % 6,6 hazi da lur, aire eta itsasoko ibilgailuen merkataritza kopurua -20 gehiago dituzte-. Bestelakoak kategorian, barne hartzen dituena erabilitako ondasunak, musika instrumentuak, erregaiak, etab., % 9,5 hazi da, 18 lizentzia gehiagorekin. Igo egin dira, baita ere, saltoki handi eta bazarren lizentziak, kasu honetan % 3,2.

Handizkako merkataritzan, industria artekoa da lizentzia kopuru handiena hartzen duena, 421 guztira, eta ondoren merkataritza bitartekariak 373 lizentziarekin, nekazaritzako lehengaien merkaturak, 353rekin eta, azkenik, epe luzeko kontsumo ondasunena, 307 lizentziarekin. Arlo hau da, hain zuzen, lizentzia gehien gehitu dituen 2016an, % 4,4, 13 lizentzia gehiago. Kopuru aldetik jarraian ditu oihal, jantzizigintza, oinetako eta larruaren handizkako merkataritza guneak, 11 lizentziatan hazi direnak, % 9,2 gehiago. Alabaina, industria arteko merkataritzak sei lizentzia galdu ditu.

Bilboko merkataritza jarduera 8.991 lizentzia ekonomiko aktibo izanik itxi da 2016an, eta udalerrriaren barruan pisu gehien daukana izaten jarraitzen du. Izan ere, Bilbon lau

Merkataritza jarduerak

	2015	2016	Aktiboen saldoa	% 2016/15
Merkataritza jarduerak	9.011	8.991	-20	-0,2
Txikizkako merkataritza	7.007	6.960	-47	-0,7
Elikadura, edariak, tabakoa	2.097	2.075	-22	-1,0
Oihal eta oinetakoak	1.342	1.306	-36	-2,7
Farmazia, edergintza eta drogeria prod.	523	525	2	0,4
Etxe tresneria eta eraikuntza	995	968	-27	-2,7
Altzairuak, bulegoen homikuntza	169	166	-3	-1,8
Liburuak, egunkariak	361	362	1	0,3
Bitxiteria	175	174	-1	-0,6
Jostailuak, kirol gaiak	128	128	0	0,0
Medikuntza tresneria, ortopedia, optika	145	143	-2	-1,4
Loradenda eta antzekoak	93	93	0	0,0
Lurreko, aireko, itsasoko etab. ibilgailuak	305	325	20	6,6
Saltoki handiak, bazarrak	218	225	7	3,2
Saltokiz kanpoko salmenta	267	263	-4	-1,5
Gainerakoa (erabilitako ondasunak, musika instrumentuak, zigilu eta txanponak, sex-shopak, erregaiak, etab.)	189	207	18	9,5
Handizkako merkataritza	2.004	2.031	27	1,3
Handizkako merkataritza	1.572	1.593	21	1,3
Nekazaritzako lehengaiak	348	353	5	1,4
Oihalak, jantzizigintza, etab.	119	130	11	9,2
Farmazia eta etxerako produktuak	120	118	-2	-1,7
Epe luzeko kontsumo ondasunak	294	307	13	4,4
Industria arteko merkataritza	427	421	-6	-1,4
Bestelako handizkako merkataritza	264	264	0	0,0
Produktuen berreskuratzea	66	65	-1	-1,5
Merkataritza bitartekariak	366	373	7	1,9

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Ekonomia Jardueren Zerga.

MERKATARITZA JARDUERAK ETA ENPRESAK

% 1,6 murriztu dira soldatapeko beharginak dauzkaten merkataritza enpresak.

heldu direla. Hauetatik, txikizkako merkataritzak hartzen du % 68a, 1.972 enpresa, eta handizkakoak % 24a, 700 izanik. Ibilgailuen konponketa eta salmentak, 219 enpresarekin, enpresa guztien % 7,6a hartzen du.

Sektoreak orokorrean % 1,6ko murrizketa jasan du azken urte honetan, 47 enpresa gutxiagoko emaitzarekin. Jaitsi egin dira bai txikizkako merkataritzan izen emandako enpresak (-30, % -1,5), eta baita handizkakoak ere (-17, % -2,4). Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa soilik mantendu da egonkor.

Merkataritza sektorearekin lotutako autonomoen kolektiboa 6.129 pertsonak osatzen dute. Aurreko urtearekin alderatzen badugu izen emandako 174 autonomo gutxiago daude, % -2,8. Talde hau osatzen duten hiru azpisektoreek jarrera negatibo bera erakusten dute, baina tamaina ezberdinekoa. Jaitsiera handiena txikizkako merkataritzak jasan du 136 afiliatu gutxiagorekin, % -3,2, eta jarraian datoz ibilgailuen salmenta eta konponketari lotutako autonomoak, 20 afiliatu gutxiagorekin (% -4,3). Azkenik, handizkako merkataritzan dabilzanek 18 autonomo gutxiagorekin amaitu dute urtea, % -1,1.

Sektoreko beste ikuspegi batetik, soldatapeko beharginak dauzkaten eta Gizarte Segurantzaren izen emanda dauden enpresen erregistroak eskaintzen duen ikuspegitik, ikus daiteke 2016a amaitzean merkataritzari lotutako 2.891 enpresa izatera

Soldatapeko beharginak dauzkaten enpresak

	2015	2016	% 2016/15
Empresas con personal asalariado	2.938	2.891	-1,6
Comercio minorista	2.002	1.972	-1,5
Comercio mayorista	717	700	-2,4
Venta y reparación de vehículos	219	219	0,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa

Autonomoen Erregimen Berezian afiliatutako Biztanleak. Merkataritza

	2015	2016	% 2016/15
Afiliazioa Autonomoen E. B.an	6.303	6.129	-2,8
Txikizkako merkataritza	4.228	4.092	-3,2
Handizkako merkataritza	1.611	1.593	-1,1
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	464	444	-4,3

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa

MERKATARITZA JARDUERAREN DINAMIKOTASUNA

Txikizkako merkataritzako altak % 6,5 jaitsi dira, eta handizkakoak % 2,6 hazi.

2016 urtean zehar guztira 1.044 txikizkako merkatarik eman dute alta, 2015ean baino 72 gutxiago (% -6,5). Handizkako merkataritzaren kasuan 234 alta erregistratu dira, urtebete lehenago baino sei gehiago, % 2,6.

Txikizkako merkataritzan alta eman duten lizentzien % 37a elikadura, edari eta tabako merkataritza guneei dagokie, 386 zehazki, eta hau da jarduera dinamikoena, oihal eta oinetakoekin eta etxe tresneriakoekin batera, azken hauek 162 eta 111 alta erregistratu dituztenak, hurrenez hurren.

Aurreko urteko aldetik alderatuta, gehien hazi den kategoria elikadura, edari eta tabakoena da, 2015ean baino 59 gehiago izanik, eta alta gutxien erregistratu dituen oihal eta oinetakoena da, 44 alta gutxiagorekin. Etxe tresneriarenak eta saltokiz kanpoko merkataritzak 2016an 41 eta 25 alta gutxiago dauzkate, hurrenez hurren.

Handizkako merkataritzan 2015ean baino sei alta gehiago eman dira. Alten erregistro positiboak dauzkaten artean nabarmendu egiten dira farmazia, edergintza eta drogeria produktuen handizkako merkataritza eta industria arteko merkataritza, aurreko urtean baino lau alta gehiagorekin kasu bietan, eta oihal eta oinetakoekin handizkako merkataritza, birekin. Nekazaritzako lehengaien kopuru handietako merkataritzak 2015ean baino hiru alta gutxiago izan ditu.

Merkataritza jardueren altak

	2015	2016	% 2016/15
Txikizkako merkataritza jardueren altak	1.116	1.044	-6,5
Elikadura, edaria eta tabakoa	327	386	18,0
Oihal eta oinetakoak	206	162	-21,4
Farmazia edergintza eta drogeria produktuak	57	63	10,5
Etxe tresneria eta eraikuntza	152	111	-27,0
Altzariak, bulego hornikuntza	17	12	-29,4
Liburuak, egunkariak	37	42	13,5
Bitxiteria	14	9	-35,7
Jostailuak, kirol gaiak	19	12	-36,8
Medikuntza tresneria, ortopedia	22	10	-54,5
Loradenda eta antzekoak	17	9	-47,1
Lur, aire, itsaso etab.eko ibilgailuak	47	49	4,3
Saltoki handiak, bazarrak	39	36	-7,7
Saltokiz kanpoko merkataritza	121	96	-20,7
Gainerakoa (erabilitako ondasunak, musika instrumentuak, zigilu eta txanponak, sex-shopak, erregaiak, etab.)	41	47	14,6
Handizkako merkataritza jardueren altak	228	234	2,6
Handizkako merkataritza	173	179	3,5
Nekazaritzako lehengaiak	49	46	-6,1
Oihalak, jantzigintza, etab.	16	18	12,5
Farmazia eta etxeko produktuak	12	16	33,3
Epe luzeko kontsumo ondasunak	37	36	-2,7
Industria arteko merkataritza	22	26	18,2
Bestelako handizkako merkataritza	37	37	0,0
Produktuen berreskuratzea	8	7	-12,5
Merkataritza bitartekariak	47	48	2,1

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Ekonomia Jardueren Zerga.

SOLDATAPEKO ENPLEGUA

% 1,5 jaitsi da Bilbon merkataritzara afiliatutako pertsonen kopurua.

Merkataritzak Bilbon 20.812 pertsonari ematen die enplegua 2016 amaieran, Gizarte Segurantzako erregistroen arabera. Jarduera ekonomiko guztiaren barruan enpleguaren % 12a ordezkatzen du, pertsona gehien enplegatzen dituen sektorea bihurtzen delarik.

Txikizkako merkataritza da nagusi 14.416 afiliaturekin, urrutitik jarraitzen dio handizkako merkataritzak 5.026 pertsonarekin eta, azkenik, ibilgailuen salmenta eta konponketa, afiliatutako 1.370 pertsonarekin.


Enplegu alderatuaren datuak aldaketa negatiboa azaltzen du, afiliatu kopurua % -1,5 jaitsi delako aurreko urtearen aldean. Hala, hiriko merkataritza sektoreak 315 pertsona enplegatu gutxiago dauzka. Zehazki handizkako merkataritza da afiliatu gehien galdu dituen, 163 pertsona (% -3,1); txikizkakoak 143 afiliatu gutxiago dauzka, % -1,0 gutxiago, eta ibilgailuen salmenta eta konponketak % -0,7 murriztu du enplegua, bederati afiliatu galduta 2016 urte amaieran.

Enpleguari egiten dion ekarpena murriztu duen arren, handizkako merkataritzak sostengatzen du hiriko merkataritzako enplegu guztiaren % 24a eta, egoera berean, merkataritzan, ibilgailuen salmenta eta konponketak % 7a hartzen du.

Sektorean, enplegatutako hamar pertsonatik zazpi besteren kontura dabilta beharrez, erregimen orokorrean kotizatuz, eta hiru daude erregistratuta behargin autonomoen erregimen berezian. Bi eredu hauek galdu dituzte afiliatuak urte honetan: % 1,0 soldatapeko pertsonen taldeak eta % 2,8 autonomoak.

Enplegatutako pertsonak

▲ Aldaketa % 2016-2015



Enplegatutako pertsonak

	2015	2016	% 2016/15
Enplegatutako pertsonak	21.127	20.812	-1,5
Txikizkako merkataritza	14.559	14.416	-1,0
Handizkako merkataritza	5.189	5.026	-3,1
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	1.379	1.370	-0,7
Soldatapeko pertsonak	14.823	14.682	-1,0
Pertsona autonomoak	6.303	6.129	-2,8

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa

ETXEBIZITZEN KONTSUMOIA

2016an euskal etxebizitzetako kontsumoak aurreko urteko erritmo positiboa mantendu du, % 1,1 igota 2015. urtearen aldean. Euskal Autonomi Erkidegoko gastu osoa 30.311.924,2 mila eurokoa izan zen 2016an, % 1,1ean gaindituz 2015ean erregistratutako kopurua. Euskadin etxebizitzako batez besteko gastua 33.691 eurokoa da 2016an, aurreko urtean baino % 1,0 gehiago.

Bestalde, txikizkako merkataritzaren Salmenta Indizea % 2,8 hazi da Bizkaiko lurraldean 2015. urtearen aldean. Bitartean, kontsumo prezioen indizeak 2016. urtea amaitu du % 1,7ko igoerarekin; 2015. urteak urte arteko % 0,2ko aldaketa izan zuen.

Euskal etxebizitzen gastuaren banaketak erakusten du pisu gehien duen aurrekontua dela etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaiei bideratutakoa, gastu osoaren % 34a. Honen ondoren daude Elikagai eta edari ez alkoholdunak eta Hotel, kafe eta jatetxeak, % 13,9a eta % 11,6arekin, hurrenkera horretan.

Esanguratsua da Hezkuntzara (% 1,57) eta Edari alkoholdun eta tabakoetara (% 1,58) bideratutako gastu sortak direla pisu gutxien daukatenak EAEko etxebizitzen gastu guztiaren barruan.

Gastu sorta guztiak ez dute bilakaera bera izan 2016. urtean zehar. Nabarmentzekoa da Komunikazioetan emandako % 10eko igoera, eta % 9,2ko hazkundea Etxe tresneria eta etxebizitzaren kontserbaziorako ohiko gastuei bideratutako gastu sortan. Era berean, % 6,8 igo da Ostalaritzari zuzendutako aurrekontua. Hala ere, % 7,9 murriztu da Hezkuntzari bideratutako gastua, % 5,1 Aisialdi eta kulturarena eta % 2,9 Jantzi eta oinetakoei bideratutakoa, besteak beste.

Kontsumo adierazleak


	% 2016/15
Etxebizitzen kontsumoa	1,1
Txikizkako merkataritzaren salmenta indizea	2,8
Kontsumo prezioak	1,7

Bizkaiko datuak Etxebizitzen kontsumoa izan ezik (EAE).

Iturria: Eustat. Familien Aurrekontuen eta KPI-ren Inkesta (INE).

Etxebizitzen kontsumoko gastuen egitura. 2016.

▲ Aldaketa % 2016-2015
▼ Aldaketa % 2016-2015



Bizkaiko datuak. KPIren kopuruak, %tan.
Iturria: Eustat. Familien Gastuaren Estatistika.

SEKTOREAREN SALMENTAK

2016. urtean Bizkaiko merkataritza sektorearen salmentek beren joera positiboa indartu dute urte arteko % 3,0ko hazkundearekin, aurreko urteko emaitza hobetuz (% 0,6); hiru urtez jarraian izan dute hazkundera. Datu positiboak datoz bai txikizkako merkataritzaren aldetik, % 2,7 hazi dena, eta baita handizkako merkataritzatik ere, % 1,9 igota.

Txikizkako merkataritzaren salmenta indizearen hazkundera ekarri du indizearen bi osagairen hobekuntza esanguratsuak. Alde batetik, elikaduraren merkataritzako salmentak % 4,5 igo dira, aurreko urtean % 0,3 hazi zen bitartean. Bestalde, elikaduraz kanpoko produktuen salmentako hazkunderako joera mantendu egin da, % 2,8, nahiz eta aurreko urtekoa baino gutxiago hazi den (% 3,8).

Beren aldetik, ibilgailuen erregaien salmentak % 7ko jaitsiera jasan du, baina aurreko urtean izandako murrizketa baino xumeagoa izan da (% -14,5).

Bizkaiko merkataritza sektoreko enpleguak beste urte batez mantendu du bilakaera positiboa, % 1,5 hazi delako, eta gainditu egin duelako aurreko urteko % 0,1a, urte batzuk iragan ondoren etengabeko murrizketan.

Bizkaian, ibilgailuen matrikulazioak joera ona erakusten jarraitzen du, guztira 19.510 matrikulaziotara helduta 2016an, 2015ean zenbatutakoak baino % 2,8 gehiago. Igoera handiena partikularrak edo enpresakoak ez diren ibilgailuek izan dute, % 56a. Jarraian dator enpresako ibilgailuen matrikulazioa, % 12 gehitu duena aurreko urtearen aldean. Matrikulatutako hamar ibilgailutatik zazpi erabilera partikularrekoak dira, euren kopurua % 1,3 jaitsi ondoren 2015. urtearekiko.

Merkataritza sektorearen salmentak

	2015	2016	% 2016/15
Salmenta Indizea	95,3	98,2	3,0
Txikizkako merkataritza	99,8	102,6	2,8
Elikadura	97,9	102,3	4,5
Gainerako produktuak	102,7	105,5	2,7
Ibilgailuen erregaiak	86,6	80,5	-7,0
Handizkako merkataritza	91,8	93,5	1,9

2016ko batez besteko datuak. Iturria: EUSTAT.

Ibilgailuen matrikulazioa

	2015	2016	% 2016/15
Partikularrak	13.878	13.693	-1,3
Enpresak	4.859	5.451	12,2
Bestelakoak	235	366	55,7
GUZTIRA	18.972	19.510	2,8

Iturria: Faconauto.

Turismoa

Turismo Jarduera

Bilboko Turismo Jarduera
Bidaia sarrera, jatorria eta igarotako gauak
Itsas bidaietako turismoa

Biltzar eta bileretako Turismoa

Bilboko Turismo Jarduera

Bidaiari sarrera, jatorria eta igarotako gauak 1 2 3

Itsas bidaietako turismoa

5

Orrialdea: 46

TURISMO JARDUERA [Bilboko Turismo Jarduera

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa 2016

2016an Bilbon hazi egin da hotel eskaintza. Bilbok 2016. urtean 71 egoitzako hotel eskaintza dauka, -hiru izar eta gehiagoko 23 hotel eta izar bat eta biko 48 hotel edo ostatu-, Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) landutako

Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestaren arabera.

Hotel egoitzek Bilboko hirira heltzen diren bisitarien eskura ipintzen dituzte egunero guztira 4.010 gela eta 7.817 toki, eta horietatik % 80a kategoria altueneko multzoari dagokio, hiru izar eta gehiagoko hotelei.

Hotel egoitzen batez besteko neurria 110 plazatakoa da. Batez besteko hau 271raino igotzen da kategoria altueneko hotelen artean, 3, 4 eta 5 izarrekoetan, eta 33 plazaraino jaisten da kategoria urriagoko hotelen eta ostatuen artean.

Bilboko hotel eskaintza hazi egin da, 2015. urtearen aldean, izar 1 eta 2ko hotel eta ostatuen kategoriako egoitza bat gehiago izateraino soilik. Eguneko plaza kopurua hazi egin da bai kategoria baxuagoko hotelen artean eta baita 3, 4 eta 5 izarreko hotelen artean. Eguneko 38 eta 114 plaza gehiago eskaintzen dituzte, hurrenez hurren.

Ostatu zerbitzuen ekonomia jarduerak, zuzenean turismoari lotuak, % 20,9 igo dira aurreko urtearekiko, 2015ean 110 lizentzia aktibo izatetik 133 izatera igarota 2016an. Azken urte honetan aztertutako talde guztien kopurua hazi da, eta bereziki nabarmentzekoa da "Bestelako ostatu lizentziak" taldearena, apartamentu turistikoak barnebiltzen dituena, izan ere, multzo honek izan du hazkunde esanguratsua, % 123,1ekoa.

Hotel egoitzen eskaintza

	2015	2016	% 2016/15
Egoitzak guztira	70	71	1,4
3, 4 eta 5 izarreko hotelak	23	23	0,0
Izar 1 edo 2ko hotel eta ostatuak	47	48	2,1
Eguneko loleku eskaintza, guztira	7.665	7.817	2,0
3, 4 eta 5 izarreko hotelak	6.108	6.222	1,9
Izar 1 edo 2ko hotel eta ostatuak	1.557	1.595	2,4
Eguneko logelak, guztira	3.974	4.010	0,9
3, 4 eta 5 izarreko hotelak	3.118	3.146	0,9
Izar 1 edo 2ko hotel eta ostatuak	856	864	0,9

Iturria: Eustat.

Ostatatze jarduerak (lizentziak)

	2015	2016	% 2016/15
Ostatatze lizentziak guztira	110	133	20,9
Hotelak eta motelak	38	41	7,9
Ostatu eta apopilo egoitzak	45	48	6,7
Fondak	14	15	7,1
Gainontzekoa	13	29	123,1

Laugarren hiruhilekoari dagozkion datuak.

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia (Ekonomia Jardueren gaineko Zerga).

Bilboko Turismo Jarduera

Bidaieri sarrera, jatorria eta igarotako gauak 1 2 3

Itsas bidaietako turismoa

5

Orialdia: 47

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa 2016

TURISMO JARDUERA [Bidaieri sarrera, jatorria eta igarotako gauak

Bidaieri sarrera

Hazi egin dira bidaiarien sarrera eta hoteletan igarotako gauak. Hiriko hotel egoitzei lotutako turismo jarduerak, Bilbon, urte arteko aldaketa oso positiboarekin amaitu dute 2016a. Urtean zehar guztira 877.847 bidaieri sarrera jaso dira eta 1.689.806 gau igaro. Kopuru

hauek erakusten dute % 7,9ko eta % 8,3ko urte arteko hazkundea eman dela, hurrenez hurren, sarreretan eta igarotako gauetan. Datu hauek historiako emaitza hoberenak dira eta Bilbo egonkortu egiten dute turismo helmuga gisa.

Jatorria


Espainiar Estatuko turismoa da Bilbora bidaieri gehien bidaltzen duena. Hiribilduko hotel egoitzetan ostatu hartu duten turisten jatorriari erreparatuta, ikus dezakegu 2016. urtean zehar bisitarien erdia baino gehiago Espainiar Estatutik etorritakoak direla

(% 58,7). Turista hauek aurreko urtekoak baino % 8,2 gehiago dira, - 39.232 gehiago datu absolutuetan -, eta 515.449 bidaiariko zifrara heldu dira Estatutik etorritakoak.


Estatuko bidaieri ugariak Madrileko Erkidegotik datozenak dira, estatuko bidaieri sarreraren laurdena baino gehiago hartzen dutelarik, % 29,5a. Datu honekin madrildarrak aurretik kokatu zaizkie Kataluniakoei (% 15,0), Andaluziakoei (% 9,4) eta Valentziar Erkidegokoei (% 4,5). EAetik etorritako bisitariak baino gehiago ere badira. Azken hauek estatutik etorritako guztien % 17a biltzen dute.

Estatuz kanpotik etorritako bidaiariek ere oso joera positiboa azaldu dute, % 7,5eko hazkundearekin, estatukoaren igoeratik gertu. 2016. urtean zehar estatuz kanpoko 25.258 bisitari gehiago zenbatu dira 2015ean baino, eta 362.398 izan dira guztira. Frantzia da jatorri herrialde nagusia, guztien % 17,5arekin, eta jarraian datoz Erresuma Batua (% 11,1), Alemania (% 10,6), AEB (% 8,1) eta Italia (% 7,6).

Bidaieri sarreraren bilakaera (*)



(*) Zuzendu egin dira 2011-2016 urteetako datuak, Eustatek Establezimendu Turistiko Hartzaileren Inkestan egindako aldaketan ondorioz, aldaketek informazio bilketan eta emaitzak lortzean duten eraginagatik. Iturria: Eustat.



Iturria: Eustat.

Bilboko Turismo Jarduera

Bidaiari sarrera, jatorria eta igarotako gauak 1 2 3

Itsas bidaietako turismoa

5

Orrialdea: 48

TURISMO JARDUERA [Bidaiari sarrera, jatorria eta igarotako gauak

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa **2016**

Igarotako gauak

Igarotako hamar gauetik zortzi 3 izar eta gehiagoko hoteletan eman dira.


2016an zehar Bilboko hotel egoitzetan igarotako gauak 1.689.806 izatera heldu dira, aurreko urteko datua % 8,3 hobetzen da honela eta guztira 129.621 gau gehiago igaro dira termino absolutuetan. Igarotako gauen %57a espainiar

estatutik etorritako bidaiarietara dagozkie, 2015ean baino % 7,7 gehiago. Estatuz kanpoko turistek igarotako gauak ere igo egin dira, kasu honetan % 9,2 gehiago aurreko urtearen aldean, eta guztira 720.389 gau gehiago igaro dira.

Egoitzen kategoria kontutan hartuta, 2016. urtean igarotako gauen % 79,0a 3, 4 eta 5 izarretako hoteletan eman dira. Kategoria apalagoko hotel eta ostaluetan gau gutxiago igaro dira, baina urte arteko hazkunde handiagoa izan dute, % 9,6koa, kategoria altuagokoen % 8,0ko igoeraren aldean.

Bilboko hotel egoitzetan ostatu hartutako bidaiariaren batez besteko egonaldia 1,92 egunekoa da, aurreko urtean lortutako datuaren antzekoa. Estatuz kanpoko bidaiariak dira beren egonaldia gehien luzatzen dutenak, batez besteko 1,99 egunekin. Espainiar Estatutik etorritakoek 1,88 egun igarotzen dituzte, batez beste. Lolekuen okupazio maila ere hazi egin da, hiribilduko egoitzen batez besteko datua % 59,1ekoa izateraino.

Bidaiarietako igarotako gau kopuruaren bilakaera (*)



(*) Zuzendu egin dira 2011-2016 urteetako datuak, Eustatek Establezimendu Turistikoa Hartzaileren Inkestan egindako aldaketan ondorioz, aldatzeko informazio bilketan eta emaitzak lortzean duten eraginagatik.
Iturria: Eustat.

Bidaiarietako igarotako gauak, jatorriaren arabera

	2015	2016	% 2016/2015
Bidaiarietako igarotako gauak	1.560.185	1.689.806	8,3
Espainiar Estatukoak	900.459	969.417	7,7
Estatuz kanpokoak	659.726	720.389	9,2
3, 4 eta 5 izarreko hotelak	1.235.748	1.334.116	8,0
Izar 1 eta 2ko hotel eta ostaluetak	324.437	355.690	9,6

Iturria: Eustat.

Batez besteko egonaldia eta lolekuen okupazio maila

	2015	2016	% 2016/15
Batez besteko egonaldia	1,92	1,92	0,01
Okupazio maila (%)	55,8%	59,1%	3,3 pp

Iturria: Eustat.

Bilboko Turismo Jarduera

Bidaiari sarrera, jatorria eta igarotako gauak 1 2 3

Itsas bidaietako turismoa

5

Orrialdea: 49

Bilboko


Urtekeri Sozioekonomikoa 2016

TURISMO JARDUERA [Bidaiari sarrera, jatorria eta igarotako gauak


Datuak hiriburuka

Azken urtean EAEko hiru hiriburuak hobetu dituzte turismo jardueraren datuak, aurreko epearen aldean. Bilbok hartzen du hiriburuetan emandako bidaiari sarreraren eta igarotako gauen erdia praktikoki, % 49,2a eta % 48,3a, hurrenez hurren. Donostia izan da igarotako gau kopuruan gehien hazi den hiriburua, % 8,4 hazita, eta batez besteko bi gaueko egonaldia gainditzen duen bakarra da, 2,03 zehazki. Eta, azkenik, Gasteizek bidaiari aldetik hazkunde apalena izan du, eta hiru hiriburuetakoa batez besteko egonaldi baxuena dauka (1,90), nahiz eta aurreko urteko datua (1,80) hobetu duen.

Bidaiari sarrerak EAE hiriburuak



Igarotako gauak EAE hiriburuak



Bilboko Turismo Jarduera

Bidaieri sarrera, jatorria eta igarotako gauak 1 2 3

Itsas bidaietako turismoa

5

Orrialdea: 50


TURISMO JARDUERA [Itsas bidaietako turismoa

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa 2016

2016an igo egin da itsas bidaiei loturiko jarduera.

Itsas gurutzaldiei lotutako turismoak guztira 51 gurutzaldi eta 86.598 bidaiarirekin amaitu du 2016. urtea. Ematza hauek % 18,6ko hazkundera dira lehenengoetan, eta % 22,8koa bigarrenetan, 2015ean lortutako datuekin alderatuta.



Iturria: Bilboko Portua.

Bilboko Turismo Jarduera

Bidaieri sarrera, jatorria eta igarotako gauak 1 2 3

Itsas bidaietako turismoa

5

Orrialdea: 51

Bilboko

Urtekeri Sozioekonomikoa **2016**

BILTZAR ETA BILERETAKO TURISMOA

Negoioetako turismoa 2016. urtean 1.129 bilkura burutu dira Bilbon, 2015ean lortutako kopurua baino 107 gehiago, Bilbao Convention Bureau-k eskaintako informazioaren arabera.

% 10,5 hazi da 2015. urtearen aldean.

Bilkura mota kontutan hartuta, jardunaldiak dira %79,3a, eta % 2,9 hazi dira 2015eko datuekiko (25 gehiago), nahiz eta pisua galdu duten sektoreko jardueretan. Batzar eta konbentzio kopurua ere hazi egin da, eta jardunaldiak baino era biziagoan gainera, % 24,3ko eta % 82,1eko hazkundeak eman dira, hurrenez hurren. 18 eta 64 bilera gehiago, hurrenkera horretan.

Bilbon batzarrak, konbentzioak eta jardunaldiak sortzen dituzten sektore nagusiak dira ekonomia-merkataritza jardueri lotuak (% 26,8), medikuntza-osasungintzakoak (% 22,6) eta teknologikoak (% 17,1). Gainontzekoa banandu egiten da gehienbat gizarte-kultura arloan (% 10) eta unibertsitate esparruan (% 5).

2016. urtean hiribilduan burutu diren bilkura guztien artean 180.624 ordezkari eta/edo parte hartzaile bildu dira. Kopuru hau 2015ean lortu zena baino apur bat altuagoa da, eta hiriarentzako % 2,8ko hazkundera ekarri du, 4.856 batzarkide gehiago.

2016ean udalerrian egindako bilkuren batez besteko iraupena 1,69 egunekoa izan da, 2015ean baino % 7,0 gehiago.

Bilkura hauen urte sasoiari erreparatuta, jarduera handiena apiriletik ekainera bitartean eta iraila eta azaroa bitartean ematen da. Bi tarte hauetan ospatu da urtean zehar egindako 1.129 bilkuren % 70a. Udarako hilabeteetan zehar batzarren jarduna askoz urriagoa da, minimo ia sinbolikoetara jaisten da; uztaila eta abuztuan bilkura guztien % 5,6a egin da soilik.


Aurreko urteetan lez, batzarren jardueraren murrizketa aisialdiko turismoak orekatzen du, bigarren honek udarako hilabeteetan zehar biltzen baitu hiribildura datozen bidaieri kopuru handiena.

Biltzar eta bilera

	2015	2016	% 2016/15
Bilkurak	1.022	1.129	10,5
Batzarrak	79	92	24,3
Konbentzioak	78	142	82,1
Jardunaldiak	870	895	2,9
Parte hartzaileak	175.768	180.624	2,8
Batez besteko iraupena (egunak)	1,58	1,69	7,0


Iturria: Bilbao Convention Bureau.

Bilkuretako ordezkarien bilakaera



Iturria: Bilbao Convention Bureau. Eustat.

Bilkura eta ohiko turismoa Bilbon urte sasoiaren arabera alderatuak



Iturria: Bilbao Convention Bureau. Eustat.

Informazioaren eta Berrikuntzaren Gizartea

Informazioaren gizartea Bilbon

Informazioaren gizartea eta enpresak
Informazioaren gizartea eta familiak

Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Enpresa eta profesionalen ezagutza jarduera
trinkoak

Unibertsitatea ikerketa iturri




INFORMAZIOAREN GIZARTEA BILBON

Ikerketa, garapena eta berrikuntzari dagokionez, Europako Berrikuntza Adierazleen Panelak -European Innovation Scoreboard (EIS) 2016, lehen Innovation Union Scoreboard (IUS)- Europar Batasuneko herrialdeak sailkatzen ditu, beren ekonomiek berrikuntza jarduerak garatzeko daukaten gaitasun mailaren arabera, eta aurrera daramatzaten jardueren arabera.

Euskal A. E.ak 0,482 puntu lortu ditu, 2015eko 0,478aren aldean, eta hala berrikuntza altua daukaten herrialdeen multzoaren mailan kokatzen da. EB-28ko batez bestekoaren % 90 eta % 120aren artean kokatzen da, 13. postua mantenduz europar estatuen artean, Espainiak baino maila berritzaile handiagoarekin, baina EB-28ko batez bestekoaren azpitik.

Europako Berrikuntza Panela IUS 2016. Euskal A. E. eta EB-28



Iturria: EUSTAT

INFORMAZIOAREN GIZARTEA BILBON [Informazioaren gizartea eta enpresak

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa 2016

Bilbon hamar enpresatik ia bederatzik daukate Internetera sarbidea.

izan da 2015. urtearen aldean. Hamar enplegu edo gehiagoko enpresetan, Sarerako sarbidearen txertaketa maila % 97,7raino igotzen da.

Interneterako konexio modu nagusia banda zabala da. Zehazki, 2016an Sareko sarbidea daukaten hiribilduko enpresen % 76a ADSL bidez konektatzen da. Hala ere, aurreko urteen aldean ikusi da konexio mota hau jaisten ari dela apurka apurka, sarbide teknologia berrien mesedetan, hala nola, kable edo zuntz optiko bidezko konexioak (% 55,1) eta konexio mugikorak (% 81,7).

Beste teknologia ekipamendu aurreratuen ezarpen maila ere geroz eta handiagoa da, adibidez, sare informatiko finkoak, wireless, funtsen transferentzia elektronikoetarako sistema informatikoak eta intranet edo extranet sareak. Are gehiago, 2016an hiribilduko enpresen % 65,6ak dio sare informatiko bat daukala ezarrita eta horien % 55,5ak adierazi du haririk gabeko sare bat dela.

Lau enpresatik batek dauka bere intranet sare propioa, eta kopuru hau % 65,2ra heltzen da tamaina handienekoen artean. % 17,7ak extranet bat dauka zabaldua enpresaren muga fisikoetatik harago, eta % 41,0ra igotzen da ehuneko 10 enplegu edo gehiagoko enpresen kasuan.

% 29,3a arte hazi da, Interneteko sarbidea daukaten enpresen artean, merkataritza elektronikoa erabiltzen dutenen kopurua, erosketak egiteko nagusiki.

soilik burutu ditu online salmentak. 10 behargin eta gehiagoko enpresen kasuan, ehunekoak aldatu egiten dira, enpresen % 24,5ak egin ditu erosketak elektronikokoak eta % 7,6ak izan ditu salmentak.

Interneteko sarbidea daukaten 10 behargin eta gehiagoko enpresen % 90,5ak dauka web orria.

Sarea eta bitarteko elektronikokoak. Zehazki, 2016an, 10 behargin edo gehiagoko enpresen % 90,5ak dauka web orria, eta bertan eskaintzen dituzten zerbitzuen artean enpresaren informazio orokorra (% 99,4) eta produktu eta zerbitzuen zerrenda (% 65,1) nabarmentzen dira.

Bilboko enpresetan Internetak izan duen txertatzea enpresa guztien % 87,6an egonkortu da, ehuneko 1,6 puntuko murrizketa xumea

Teknologia ekipamenduak Bilboko enpresetan (%)

	2015	2016
Internetera sarbidea daukaten enpresak	89,2	87,6
10 enplegu eta gehiago	96,0	97,7
Web orridun enpresak	58,2	56,3
10 enplegu eta gehiago	85,4	90,5
Merkataritza elektronikoa egiten duten enpresak	28,4	29,3
10 enplegu eta gehiago	26,1	28,2
% Erosketak egiten dituzten enpresak	25,2	25,8
% Salmentak egiten dituzten enpresak	7,7	9,1

Iturria: Informazioaren Gizartea Enpresetan Inkesta, Eustat.

INFORMAZIOAREN GIZARTEA BILBON | Informazioaren Gizartea eta Familiak

Bilboko

Urtekeri Sozioekonomikoa 2016

Bilbon bizi diren 15 urte eta gehiagoko pertsonen % 72,7a Internet erabiltzailea da.

Gure biztanleriaren artean teknologi ekipamenduak etengabeko hazkundera daude, nahiz eta denak ez diren era berean eta intentsitate berberekin hazten. Teknologia batzuk zuzenean etxebizitzarekin

lotuta dauden arren, KIT-en banaketa ezberdina antzematen da biztanleen artean, adina, jarduerarekin duten lotura eta hezkuntza maila bezalako irizpideen arabera.

Bizkaiko lurraldean, telefono mugikorra da 15 urte eta gehiagoko biztanleen artean presentzia gehien daukan ekipamendua, % 95,9. Jarraian datoz ordenagailua, % 78,4arekin, eta Internet konexioa, % 78,0arekin.

Beste gizarte aurreratuetan gertatzen den moduan, teknologi ekipamenduak gerok eta presenteago daude familietan. Gailu sorta zabal eta anitza dago etxebizitzetan, eta etengabe ordezkatzen doaz gailu berriagoekin.

2016. urtean, eta Bizkaiko Lurraldeari dagozkion datuen arabera, jarraitzen du jaitzierak ordenagailu pertsonala daukaten pertsonen kopuruan (% -5,5). Hazi egin dira, hala ere, 604,5 milaraino (% 4,7 gehiago) ordenagailu eramangarria daukatenak. Datu honek, tablet bat daukaten 15 urte eta gehiagoko biztanleen hazkunderarekin batera (% 39,9), erakusten du ekipamendu bat besteagatik ordezkatzen ari dela.


Urte honetan zehar hazi egin da, baita ere, Internet konexioa daukaten 15 urte eta gehiagoko biztanle kopurua, 2015ean 753,4 milakoa izatetik 790,0 milakoa izatera igaro da 2016an (% 4,9). Etxebizitzako posta elektronikoa kopurua ere hazi egin da, 696,6 milatik 766,0 milara (% 10,0).

Internetaren erabilerrari dagokionez kontutan hartu beharreko lehen alderdia da Bilboko 15 urte eta gehiagoko biztanleen % 72,7a Interneteko erabiltzailea dela 2016 amaieran. Ehuneko honek 2,6 puntuko hazkundera erakusten du aurreko urtearen aldean.

Udalerriko biztanleen artean sareko sarbide maila altua bada ere, oraindik ere haustura digitala antzematen da sexuen arabera teknologia honen erabilera ezberdinean. Zehazki, 2016an, Bilbon bizi eta Internet erabili duten gizonezkoen ehunekoak (% 76,7) 7,4 puntutan gainditzen du emakumezkoen batez besteko konexio maila (% 69,3). 2015ean Interneten erabilerraren genero tarte hori ehuneko 10,8 puntutan kokatzen zen.

Erabilitako zerbitzuen rankingean Whatsapp-a da liderra. Jarraian datoz posta elektronikoa erabilera, ondasun eta zerbitzuen kontsulta, komunikabideen edizio digitalak eta sare sozialetara sarbidea.

Teknologi ekipamendu nagusiak Bizkaiko familietan (15 urte eta gehiagoko biztanleak, milaka)



Iturria: Informazioaren Gizartea Familietan Inkesta, Eustat

Internet erabiltzen duten Biztanleak (15 urte eta gehiagoko biztanleen %)

	2015	2016
Guztira	70,1	72,7
Emakumezkoak	65,1	69,3
Gizonezkoak	75,9	76,7
Haustura digitala (e.p.)	10,8	7,4

Iturria: Informazioaren Gizartea Familiak Inkesta, Eustat

IKERKETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA

Bilbon berrikuntzako gastua % 2,9 hazi da, 280,8 milioi eurotara heltzeraino. Eustatek argitaratutako azken datuen arabera, Bizkaian 9,4 mila enpresa berritzaile daude, kopuru hau % 2,2 hazi da aurreko urteko emaitzaren aldean. 10 behargin eta gehiagoko enpresen kasuan, kopurua gehiago hazten da, zehazki % 14,3, eta hala, probintzian, 1,6 mila enpresa berritzaile daude.

Datu hauek erakusten dute hiriak zein lurraldeak ikerketa, garapen eta berrikuntza (I+G+B) jarduerari ematen jarraitzen duten bultzada, eta enpresa eta pertsonen prestakuntzarako emandako laguntza, jarduera hauek garatzeko.

I+G+B-ari eskainitako indar ekonomikoa agerian geratzen da ikusita Bilboko 10 behargin eta gehiagoko enpresek 280,8 milioi euro bideratu zituztela berrikuntza jardueretara 2015ean, % 2,9ko hazkundea 2014. urtearen aldean.

Bilbon, 10 behargin eta gehiagoko 1,6 mila enpresek burutu zituzten berrikuntza jarduerak 2015ean. Kopuru hau % 14,3 altuagoa da aurreko urtean lortutakoa baino (1,4 mila 2014an).

174 enpresa bilbotarrek garatu dituzte I+G jarduerak, 117,5 milioi euroko gastuarekin, 2015ean.

I+G jarduerari dagokienez, guztira Hiribilduko 174 enpresek aipatu dute mota honetako jarduerak garatu izana 2015 urtean zehar, aurreko urtean baino % 8,4 gutxiago. Enpresek guztira 4.227 behargin enplegatu

dituzte funtzio hauek garatzeko, eta hauen % 66,8a (2.825) dagokio behargin ikertzaileen kolektiboari.

I+G jarduerak garatzeak 117,5 milioi euroko gastua sortu du, % 2,9ko hazkundea 2014 urtearekiko. Ekintza sektoreka hartuta, enpresei dagozkien 55,5 milioi, 43,3 milioi unibertsitateari eta 18,6 Administrazio Publikoei.

2016an zehar eman den asmakuntza jarduerak balantze negatiboa erakutsi du 2015eko adierazleekin alderatuta. Zehazki, 2016an 8 patente eskaera erregistratu dira, 2015ean baino 16 gutxiago. Era berean, 402 marka komertzial berri eskatu dira (2015ean baino % 1,3 gehiago), 9 baliagarritasun modelo, 8 diseinu industrial eta 49 izendapen komertzial.

Berrikuntza

	2014	2015	% 2015/2014
Enpresa berritzaileak (milaka)	9,2	9,4	2,2
10 behargin eta gehiago	1,4	1,6	14,3
Berrikuntza jardueretako gastua (milioika)	1.197,3	1.185,8	-1,0
10 behargin eta gehiago	1.010,2	1.033,8	2,3

Iturria: Berrikuntza Inkesta EUSTAT (Bizkaia).

I+G

	2014	2015	% 2015/2014
I+G Gastua (milaka €)	114.223	117.484	2,9
I+G jarduera daukaten enpresak (kop.)	190	174	-8,4
I+G-ra bideratutako beharginak (kop.)	4.026	4.227	5,0
I+G-ra bideratutako behargin ikertzaileak (kop.)	2.521	2.825	12,1

Iturria: I+G Inkesta, Eustat.

Patenteak eta markak. Bilbon erregistratutako eskaerak

	2015	2016	% 2016/2015
Patenteak	24	8	-66,7
Markak	397	402	1,3
Baliagarritasun modelook	9	9	0,0
Diseinu industrialak	14	8	-42,9
Izendapen komertzialak	56	49	-12,5

Iturria: OEPM.

ENPRESA ETA PROFESIOALEN EZAGUTZA JARDUERA TRINKOAK

Informazio eta komunikazioen jarduerak (telekomunikazioak, zerbitzu informatikoak, ikus-entzunezko zerbitzuak, informaziokoak eta edizioak), finantza eta aseguru zerbitzuek eta jardura profesional, zientifiko eta teknikoek (zerbitzu juridikoak, kontulariak, aholkularitza, arkitektura eta ingeniariaritz, I+G, publizitatea, marketinga, etab.) osatzen dute "sektorea", enpresa eta profesionalen ezagutza jardura trinko moduan ezagutzen dena, estuago lotuak berrikuntza eta ezagutzaren gizartearekin.

2016a amaitzean, 27.972 pertsona zeuden sektore honetara afiliatuta Bilbon (enplegu guztiaren % 16,2ko parte hartze erlatiboarekin). Aurreko urtearen aldean % 0,3ko hazkunde txikia erakusten du, ezagutzako enplegu trinkoan.

Zerbitzu profesional, zientifiko eta teknikoaren azpisektoreak sortzen ditu hamarretik lau enplegu baino zertxobait gehiago (% 43,4), eta hauen erdia inguru (% 49,7) daude lotuta zerbitzu juridiko, kontularitza eta aholkularitzara (6.037 pertsona afiliatu).

Informazio eta komunikazio zerbitzuen taldearen barruan, zerbitzu informatikoak nabarmentzen dira enplegu gehien daukan jardura atal gisa (4.534). Finantza eta aseguru zerbitzuen azpisektorean, aldiz, enpleguaren % 62,4a dagokie finantza jardueri (4.964 enplegu).

Azken urtean zehar hazi egin da enplegua Informazio eta komunikazioen azpisektorean (% 5,0) eta zerbitzu profesional, zientifiko eta teknikoetan (% 1,4). Aldiz, datu negatiboa Finantza eta aseguru zerbitzuek dakarte, enplegua galduta (% -5,4)

Nabarmendu egin da enpleguaren hazkundea zerbitzu informatikoetan (% 12,5) eta bestelako zerbitzu profesionaletan (% 12,3), eta datu negatibo gisa, telekomunikazio zerbitzuen murrizketa (% -17,6), eta publizitate eta marketingekoa (% -10,3).

Beren jardura enpresa eta profesionalen ezagutza zerbitzu trinkoen sektorean garatzen duten enpresa establezimenduak 8.107 izatera heldu dira 2016an, eta honek egonkortasun apur bat erakusten du (% 0,2) 2015. urtearen aldean. Zerbitzu profesional, zientifiko eta teknikoaren multzoa da ugariena 6.138 enpresarekin, eta hau da hazi den bakarra, % 0,9. Beren

aldetik, Finantza eta aseguru zerbitzuek, 1.097 negozio unitaterekin, % 2,9a galdu dute urtebetean. Azkenik, Informazio eta komunikazio zerbitzuek 872 enpresa dauzkate eta egonkor mantendu dira azken urtean.

Enpresa eta profesionalen ezagutza zerbitzu trinkoak.

Afiliatutako pertsonak		Enpresa establezimenduak			
	2016	2015	2015	2016	
	▲ % 0,3	27.972	27.880	8.088	8.107 ▲ % 0,2
▲ % 5,0	7.877	7.499	Informazio eta Komunikazioa		872 872 % 0,0
▼ % -17,6	848	1.029	Telekomunikazioak		88 81 ▼ % -8,0
▲ % 12,5	4.534	4.032	Zerbitzu informatikoak		447 464 ▲ % 3,8
▲ % 2,3	2.495	2.438	Ikus-entzunezko, informazio eta edizio zerbitzuak		337 327 ▼ % -3,0
▼ % -5,4	7.950	8.407	Finantza eta aseguru zerbitzuak		1.130 1.097 ▼ % -2,9
▼ % -6,4	4.964	5.303	Finantzazkoak		357 346 ▼ % -3,1
▼ % -3,8	2.986	3.104	Aseguruak eta osagarriak		773 751 ▼ % -2,8
▲ % 1,4	12.145	11.974	Zerbitzu profesional, zientifiko eta teknikoak		6.086 6.138 ▲ % 0,9
▲ % 2,9	6.037	5.865	Zerbitzu juridikoak, kontularitza eta aholkularitza		3.763 3.854 ▲ % 2,4
▼ % -0,4	3.562	3.578	Arkitektura, ingeniariaritz eta I+G zerbitzuak		1.225 1.226 ▲ % 0,1
▼ % -10,3	1.179	1.314	Publizitatea eta marketinga		476 448 ▼ % -5,9
▲ % 12,3	1.367	1.217	Bestelakoak		622 610 ▼ % -1,9

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa

UNIBERTSITATEA IKERKETA ITURRI


Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU), publikoa, Deustuko Unibertsitateak, pribatua, eta Mondragon Unibertsitateak, pribatua hau ere, osatzen dute Bilboko udalerriko unibertsitate eskaintza esanguratsua. Beren presentzia garrantzitsua da hiriburu bizkaitarrean, unibertsitate hauen egoitza esanguratsuenetako batzuk bertan daude eta. Hala, titulazio proposamen garrantzitsu bat egonkortzen da, hiria goi mailako hezkuntzako erreferente gisa kokatzen duena, eta geroz eta azpiegitura eta baliabide eskaintza hobea daukana.

Eredu hauek osatzen dute Bilbok daukan apustua unibertsitateko bikaintasunaren alde, eta ikasketa hauek ekoizpen ekonomiara hurbiltzearen alde. Argi daukate Hiribilduak hiriburutza ekonomikoaren ardatz gisara jokatu beharreko papera, ezagutzako zerbitzu aurreratu trinkoetara bideratua, eta ekonomiari eta gizarteari laguntza emateko asmotan.

Ezagutza sortzaile gisa egiten duen lana, eta ondoren enpresei eta gizarteari egiten zaion transferentzia gakoak dira hiriaren garapen ekonomikorako. Unibertsitateek garatutako ikerketa eta berrikuntza ekintzen emaitzak patenteen bidez neurtu daitezke, beren egoera eta bilakaera aztertzeko adierazle baliagarri diren heinean.

Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratutako azken datuek, 2016ari dagozkionez, adierazten dute 32 izan direla patente erregistro eskaerak, aurreko urtearen aldean jaitsiera xume bat izan dutenak, baina 2014ko datua hobetuz.

EHUK aurkeztutako patenteen bilakaera 2000-2016



Iturria: EHU ZENBAKITAN 2016.

UNIBERTSITATEA IKERKETA ITURRI

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa **2016**

Euskal Herriko Unibertsitateak 9.742 ikasle dauzka Bilbon.

Enpresa Zientzien Fakultatean matrikulatutako pertsonak, 4.116 eta 2.532 ikasle, hurrenez hurren. Basurtoko Ospitalean dagoen Medikuntza Irakasguneak 282 ikasle dauzka, eta hauei esperientzia geletako 347 ikasleak batzen zaizkie.

Bilbon Deustuko Unibertsitatearen campusa Guggenheim Museoaren parean dago kokatuta. Campus hau osatzen dute Eraikin nagusiak, Zuzenbide eta Letretako ikasketak ematen dira bertan, Deustu Business School eraikinak, lehen "La Comercial" gisa ezagutzen zena, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea hartzen duena, ESIDE eraikinak, ingeniariak irakasten dira bertan, eta Mendeurreneko Eraikinak. Hauen aurrean dago Liburutegia-IIBZ (Ikaskuntza eta Ikerketarako Baliabide Zentroa), ibaiaren gainetik igarotzen den Aita Arrupe Pasabidearen bidez lotzen dena campusarekin.

Bilboko campusak 8.058 ikasle hartzen ditu 2016. urtean, eta Psikologia eta Hezkuntza Fakultateko 1.369 ikasleak dira nabarmenenak. Matrikula kopuruagatik jarraian datoz Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea (1.012), Zuzenbide Fakultatea (829), Magisteritza Eskola (743), Ingeniaritza Fakultatea (543) eta Teologia Fakultatea (62). Graduondoko eta Doktoretza ikastaroetan parte hartzen duen ikasle kopurua 1.980 pertsonakoa da.

EHUk fakultate ezberdinak dauzka Bilbon, gaur egun hiriko zonalde ezberdinetan banatuta daudenak. 2016an, ikasketak Bilbon burutzen dituzten EHUko ikasle kopurua 9.742 ikaslekoa da. Kopuruagatik nabarmendu egiten dira Ingeniaritza ikasketetan eta Ekonomia eta

Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleak (Bilboko Campusa)

	2016
EHU Bilboko Campusa Guztira	9.742
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	2.532
G.E.T. Ingeniaritza	1.875
I.U.E. Teknikoa Industriala	1.747
I.U.E. Teknikoa Mehatze eta Herri Lanak	494
U.I.E. Enpresa Ikasketak	999
Medikuntza Irakasgunea (Basurtoko Ospitalea)	275
Esperientzia Gelak	335
Master eta titulu propioak	1.485

Iturria: UPV ZENBAKITAN 2016.

Deustuko Unibertsitateko ikasleak (Bilboko Campusa)

	2016
Deustuko Unibertsitatea	8.058
Zuzenbide Fakultatea	829
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea	1.012
Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea	1.369
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	445
Ingeniaritza Fakultatea	543
Teologia Fakultatea	62
Ikasketa ofizialen programazio bateratua	1.075
Magisteritza Eskola	743
Graduondoko eta Doktoretza Ikastaroak	1.980

Iturria: Deustuko Unibertsitatea.

Sarrera

Udal kultura jarduera

Antzerki, dantza eta musika jarduerak

Museoetako jarduerak

Liburutegiak

Kirola

Sormena eta kultur aniztasuna izan dira hirien arrakastaren motor nagusiak.

Irina Bokova
UNESCOko Zuzendari Nagusia

Bilbok 2016an berriro ere lortu du hirugarren postua, estatuko hirien artean, bere kultur eskaintzaren kalitate eta berrikuntzagatik. Hala adierazi du Fundazio Garaikidearen Kulturaren Behatokiak¹. Urtero galdeketa bat egiten dio Fundazioak, kulturako esparru ezberdinetako lehen mailako aditu talde bati, sormen eta ekoizpenetik hasita kudeaketa publiko zein pribaturaino.

Madril eta Bartzelonako eskaintzek soilik jaso dituzte Bizkaiko hiriburuak baino puntuaketa hobekak epaitutako bi alderdietan.

Behatokiak burututako galdeketa 2009. urtetik egiten da, eta bere asmoa da adierazi multzo bat osatzea, kultur jarduera ezberdinak aztertzeko, izan autonomi erkidego eta hiriak, urteko kultur instituzio eta gertakari nabarmenenak eta baita kulturaren aurrekontuen bilakaera ere.

Hauetako baloratzeko galdera ireki bat egiten zaio adituen taldeko profesional bakoitzari, -aurten 361- eta bertatik, 2016an, 55 kultur instituzio eta jarduera agertu dira gutxienez bi aipamen jaso dituztenak.


Kultur panoramaren onenek, estatuko rankingean, 5. postuan kokatu dute Guggenheim Museoa, lau postu igota aurreko urtearen aldean. Alabaina, kasu honetan, Bilboko beste kultur ekitaldi edo instituzio batek ere ez du lortu gehien baloratutako 55en zerrendan sartzea.

2016an lehen aldiz aurkeztu dira autonomi erkidego bakoitzeko ranking zehatzak, urteko kulturaren atal onenekin.

Estatu mailako rankinga estatu osoko adituen iritziarekin osatzen da, baina erkidego bakoitzeko rankingak erkidego horretako adituen iritziaz erakusten ditu soilik. Iritzi hauek galdera ireki bati erantzunez ematen dira, izenik eman gabe eta hamar instituzio edo kultur ekitaldi aipatu daitezke, urteko aipagarrienak bezala. Gai bakoitza aipatu duten adituen ehunekoekin osatzen dira puntuak.

(1) Fundazio Garaikideak burutua, aditu talde bati galdeketa eginez. Talde hau kulturarekin lotutako ospe handiko profesionalak osatzen dute, eta baita administrazio publikoko kultur esparru eta instituzioen arduradunek ere.

Kultur instituzio eta jardunaldien EAEko rankinga, adituen arabera. 2016



UDAL KULTURA JARDUERA

“Kulturak edertu egiten zaitu”.

Irina Bokova-k, UNESCOko Zuzendari Nagusiak, “Hirien garapen jasangarri-

rako kulturari buruzko munduko txostena”-ren sarreran, azaltzen du kulturak hirien zaharberitzea eta berrikuntza duen garrantzia. Kultura baliabide estrategikoa dela dio, ahalbidetzen duena hiri jasangarriago, sortzaileago eta inklusiboagoak sortzea. Arrazoi hauen ondorioz, kultura hirien arrakastaren motor gisa ulertzen du.

Bilbok 2005ean onartu egin zuen, 21 Agendaren baitan, kulturak oinarritzko garrantzia zeukala hiriko politketan. Orain, gaur egun Sarearen parte diren 116 hirietako bat den heinean, Bilbok bere egin du helburu bateratu baten bidean lan egiteko konpromisoa: sormena eta kultur industriak hiriaren garapenerako planaren erdigunean kokatzea eta nazioarteko mailan aktiboki elkarlanean aritzea gai honetan.

Zehazki udal mailako eremuan, Bilbok beti defendatu izan du kultura ireki eta anitzaren balioa, hiri osoak parte hartu dezan pentsatua eta hiritar guztiek elkarbanatua. “Kulturak edertu egiten zaitu” leloa hartu du Bilbok, eta hitzak egikaritu egin dira: ehunka kultura eta aisialdiko programa, antzerki, zinema eta musika jaialdiak, literatur lehiaketak eta jardunaldiak, arte jarduerak, jarduera dibulgatzaileak eta ondarearen sustapenerako jarduerak, esanguratsuenak aipatzearen.

Sei helburu nagusi izanik, eta asmo handiko kultur programa batekin, hiri osoan zehar barreiatu dira 1.741 kultur ekitaldi, eta 814.626 pertsona baino gehiago izan dira bertan, urtean zehar kultura izan duten 365 egunetan.

Udal kultur jardueren adierazleak - 2016

Helburuak eta programak	Proiektuak	Ekitaldi kop.	Harrera	Helburuak eta programak	Proiektuak	Ekitaldi kop.	Harrera
Kultur programazioa sustatzea, hiritarrek gozatu dezaten		797	70.389	Esperientzia eta adierazpen kultural eta artistikoak partekatzea		2	1.000
Liburuak eta irakurketa bultzatu eta ezagutza literario, humanista, zientifiko eta poetikoa indartu	Bidebarrieta Kulturgunea Liburu Feriei babesa BilbaoPoesia Udal Liburutegien Sarearen Kultur programazioa Bilboko Kalealdia Bilbao Antzerki Dantza	482	23.913	Europa eta munduko hiriekin akordioak, kultur eremuan lankidetzaz izateko Donostia 2016, Santander, Barcelona			
Erdi mailako jaialdien egutegia egonkortu	Udal Liburutegien Sarearen Kultur programazioa Bilboko Kalealdia Bilbao Antzerki Dantza Zinebi-ren 57. Edizioa FANT Bilboko Txotxongiloen XXXV. Jaialdia	307	46.232	Elkarlaneko ekoizpenak sustatu beste erakunde edo jaialdi euskaldunekin edo estatukoekin Lurrak Proiektua “Pirineos de Circo” mugaz bestaldeko proiektuan sartzeara.			
Ikus-entzunezkoen jarduera sustatu	Hilabeteko dokumentala	8	244	Hiritar guztiek kulturara sarbidea izan dezaten lagundu		128	22.134
Gainera: Argitalpenak, diru-laguntzak eta hitzarmenak, Kultur Programazioa, Sare Sozialak, kultur agenda				Doako kultur jarduerak			
Kultur sormena eta ekoizpena babestea		167	9.109	Kalea kultur oholta gisa Kultura Kalez Kale Zinema Abuztua		120 8	20.534 1.600
Sormena bultzatu arte eszenikoen arloan	BilboEszena Bilboko Zirkuitua Bilbo Haurrentzako Antzerkia	81	7.788	Auzoetatik gertuko kultura indartu		359	698.614
Heziketa artistikoa sustatu	Kultur ikastaroak	86	1.321	Kultura barrutik: programazioa 8 barrutietan Expodistrito.		244 76	21.934 11.550
Hiria eta lurraldearen irudia sustatu errodajeak egiteko kokaleku gisa	Bilbao Bizkaia Film Comission			Deszentralizatutako kultur programak handitu	Bilbo Distrito Jazz Gabonetako Kontzertu Koralak Zinebiklub El Día+Corto ED+C BLV-Art	5 10 7 17 27	950 1.900 154 532 1.130
Gainera: Haurrentzako Antzerki lehiaketa, Artistak egoiliar gisa, Literatur lehiaketak, kolektibo eszenikoendako entseatzeko gune eskaintza				Udal Liburutegien Sarea eta Udal Artxiboa egonkortu			660.464
Euskal nortasuna sustatzea kulturaren bidez		288	13.380				
Bilboko kultur identitatea indartu	Bilbo Izan Dantza Plazetan Udaberriko Bertso Saioak Bilbainada Gala	288	13.380				
Gainera: Euskarazko ekitaldien programazioa sustatzea							
				ANTOLATU DIREN KULTUR EKITALDIEN KOPURUA ETA EKITALDIETARA BERTARATUTAKOEN KOPURUA		1.741	814.626

Iturria: Bilboko Udala

ANTZERKI, DANTZA ETA MUSIKA JARDUERAK

Antzerkiak, musikak eta dantzak 478.112 pertsona eraman dituzte Arriaga eta Euskaldunara 2016an.

2016. urtean zehar Bilbok ikuskizun eszenikoen eskaintza zabala gozatu ahal izan du, hiri osoan zehar banatutako gune ezberdinetan garatu dena.

Guzti horietatik, Arriaga Antzokia, Euskalduna Jauregia eta Campos Eliseos -Eliseoko Zelaiak- Antzokia izan dira gehien nabarmendu direnak, programazio handiena daukatelako. Hala ere, antzerkia, dantza eta musika oholza gainera igo dira Hiribilduak dauzkan hamaika eszena-gune eta sei kontzertu aretoetan, programazio zaindu eta erakargarriarekin.

Bilbo BBK Live, Zine Dokumental eta Laburmetraien 58. Nazioarteko Jaialdia, ZineBi, Bilboko BAD Antzerki eta Dantza Garaikidearen jaialdiko dantza eta antzerki garaikidea, Txotxongiloen XXXV. Nazioarteko Jaialdia. Musika auzoetan izan da Bilbao Distrito Jazz-arekin eta hiri osoko kaleak izan dira kulturarentzako oholza Kultura Kalez Kale ekimenean, Arriaga eta Campos Eliseos Antzokien eta Euskalduna Jauregiaren antzerki eta musika egitarau osoarekin batera. Guzti hauek ondo erakusten dute hiriak proposatzen duen kultur eskaintza.

2016an **Arriaga Antzokiak** 87 ikuskizun programatu ditu, 227 emanaldi izan dituztenak, eta guztira 181.299 ikusle erakarri dituzte. Emanaldi bakoitzeko 654 ikusleko batez bestekoa du, eta 215 gunez zabaldu ditu ateak antzokiak.

Eskainitako 87 ikuskizunetatik, 31 antzerki obrak izan dira, 10 dantza ikuskizunak, 27 kontzertu, 6 opera, 5 musikal eta 8 jarduera anitzak.

2016. urtean **Euskalduna Jauregiak** luzatu egin du lidergoa Estatuko Kongresu Jauregien artean, 731 ekimen eta emanaldi ospatu ostean bere instalazioetan.

Musika jarduera eta ikuskizunekin lotutakoek 318 emanaldi izan dituzte eta 296.813 ikusle bildu dituzte.

Antzerki ikuskizunek jarraitzen dute izaten emanaldi gehien dauzkaten jarduerak, 83 2016. urtean zehar. Nabarmentzekoak dira, baita ere, Orkestra eta Koroen 78 kontzertuak, Opera denboraldia 23 emanaldirekin, Ballet eta Dantzako 16 ikuskizunak eta bestelako 26 kontzertu eta emanaldi.

Bilborock, Bilbo Eszena –Antzerki baliabideen zentroa, 6 Pabiloia, hACERIA aretoa, Kafe Antzokia, La Fundición, Muelle 3 Dantza eta Kontainer Aretoa hartuta, hiribilduko eszena-gune eta kontzertu sala garrantzitsuenen zerrenda osatzen da.

Arriaga Antzokia

87 Emanaldiak
181.299 Ikusleak



Euskalduna Jauregia

731 Jazoera eta emanaldiak

MUSEOETAKO JARDUERAK

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa **2016**

Guggenheim eta Arte Ederrek 1.439.381 bisitari bildu dituzte.

Fundazio Garaikidearen Kulturaren Behatokiak, urtean zehar kultur panoramako onenaren rankinga egiten duten 361 aditu profesionalak burututako azterketaren ondoren, Bilboko Guggenheim Museoa bostgarren postuan kokatu du 2016an Estatuko kultur instituzio eta gertakarien artean. Euskal kultur erakundeen artean, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzak soilik gainditzen du museo bilbotarra.

Hala, Guggenheim Museoak, datorren urtean XX. urteurrena ospatuko duenak, eta Arte Ederretako Museoak, bilbotar eta bisitariak gozatzeko aukera daukaten bi pinakoteka ospetsu jarraitzen dute izaten. Eta hauekin batera, hiriko museo eskaintza osatzen da beste hamar museo garrantzitsu eta arte galeria kopuru esanguratsu batekin.

Ospe eta aitortza horiek lortu dira, duda barik, museoaren abangoardiako arkitekturaren nazioarteko hedapenari esker eta, horrekin batera, barruan gordetzen duten arte bilduma garrantzitsuei eta galerista ausart askori esker, jarraitzen dutenak bilbotar eta kanpotarrei erakusketa eduki baliotsuak eskaintzen.

Guggenheim Bilbo Museoak 2016an 1.169.404 bisitariko kopurua lortu du. Hauen % 66a atzeritik etorritakoak dira. Atzeritarren artean nabarmentzekoak dira, kopuruagatik, Frantziatik datozen bisitariak eta, apur bat urrunago, Britainia Handia, Alemania, AEB eta Italiatik datozenak. Museoak jasotako estatuko bisitarien % 32a Euskal Herriatik dator, eta asko Bizkaitik.

Andy Warhol: Itzalak izan da aldi baterako erakusketa bisitatuena 2016an. Honekin batera nabarmentzen dira, publikoaren artean izandako harreragatik, *Louise Bourgeois*. *Existentziaren egiturak: zeldak, eta hain erakargarria den Francis Bacon: Picassotik Velazquezera*.

Bilboko Arte Ederren Museoak 269.977 bisitari bildu ditu 2016. urtean. Bisitari horien % 70a EAEko leku ezberdinetatik dator eta % 16a atzeritik.

Eskultura Hiperrealista 1973-2016 erakusketa nabarmendu da gehien, 152.669 pertsonak bisitatu dute, eta bisitariak hiperrealismoaren mugimenduko 26 artista esanguratsuenen eskulturak ikusi ahal izan dituzte.

Bilboko museo eskaintza ospe handiko beste gune batzuek osatzen dute: Euskal Museoa, Arte Sacro-Eleizmuseoa, Arkeologi Museoa, Bilboko Berreginen Museoa, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa, etab.

Museoak

	2015	2016
Museo kopurua	12	12
Guggenheim	1.103.211	1.169.404
Arte Ederrak	201.060	269.977

Iturria: Guggenheim Bilbo Museoa, Arte Ederren Museoa.

LIBURUTEGIAK

Bilboko

Urtekeri Sozioekonomikoa **2016**

Bilboko liburutegi publikoek 660.364 bisita jasotzen dituzte urtean.

eta udal liburutegien sare zabal eta aberatsak osatzen du eskaintza.

Zehatzago, Bidebarrietako Liburutegi Nagusiaren jardueraz gain, 14 udal liburutegietan banatuta dagoena hartu behar da kontutan, barruti ezberdinetan banatuta daudenak, hala nola, Begoña, Deustu, Uribarri, Txurdinaga-Otxarkoaga, Ibaiondo, Errekalde eta Basurtu-Zorrotzan. Era berean, Bilbo Musika dago, musikaz soilik hornitutako liburutegi espezializatu modura.

2016an, % 1,4 hazi da liburutegiko txartela daukaten pertsona erabiltzaileen kopurua, eta hazi egin da, baita ere, liburutegiek gordetzen duten bildumaren tamaina, kasu honetan % 2,7. Hala ere, egiaztatu egin da maileguak murriztu egin direla eta liburutegietara fisikoki hurbiltzeak ere behera egin duela.

Bidebarrietako Liburutegi Nagusiak biltzen du udal liburutegien sareko funts bibliografikoen % 27a baino gehiago. Alde Zaharrea kokatuta dago, leku pribilegiatu batean, eta liburutegi honek jaso du 2016. urtean zehar udalerriko liburutegietara egin diren bisiten % 41,6a.

Eremu publikoan bereziki esanguratsua da Bizkaiko Foru Liburutegiak daukan funts bibliografiko eta hemerografikoa, 300.000 ale inguru dauzkana. Bertan, nabarmentzeko modukoak dira 46 inkunabile eta 699 eskuizkribu.

Baliabide sare hau hobetu eta osatu egiten da museo azpiegiturei lotutako beste gune bibliofilo batzuekin (Arte Ederrak, Guggenheim, Euskal Museoa...). Eskaintza osatzen da baita ere unibertsitateari lotutako beste guneekin, esaterako Deustuko Unibertsitateko Liburutegia, inprimatutako milioi bat ale inguru dauzkana, eta baita beste baliabide batzuekin ere (Alhondigako Medioteka, Azkue Biblioteka, besteak beste).

Bilboko hiritarren eskura aintzat hartzeko moduko eskaintza dago liburutegi, hemeroteka eta dokumentazio eta ikerketa zentroen artean. Publikoak diren zerbitzuen eremuan, Bizkaiko Foru Liburutegia da esanguratsuen

Liburutegien adierazleak

	2015	2016
Berlaratzea	706.318	660.364
Maileguak	360.494	287.329
Bildumaren tamaina	449.200	461.206
Txartela daukaten erabiltzaileak	113.743	115.352

Iturria: Bilboko Udal Liburutegiak.

Liburutegien adierazleak (2016)

	Bisitak	Erabiltzaileak	Maileguak	Funtsak
GUZTIRA	660.364	115.352	287.329	461.206
Bidebarrieta	274.467	39.253	93.995	126.647
Deustu	93.766	15.711	36.919	33.773
Begoña	65.331	15.906	42.053	39.173
San Inazio	45.179	8.092	21.417	22.424
Zorrotza	31.181	4.918	15.084	15.343
Errekalde	32.906	9.436	12.628	16.663
Ibaialde	26.149	1.858	6.197	9.083
San Frantzisko	17.218	4.367	8.939	16.814
Castaños	17.953	2.302	8.833	7.050
Otxarkoaga	15.729	3.582	9.145	15.397
Bilbo Musika	13.066	1.030	3.434	9.934
Irala	10.385	2.675	7.616	11.379
Zurbaranbarri	7.793	2.824	6.781	8.611
San Adrian	5.292	2.334	5.256	8.100
Zabala	3.882	1.037	4.165	4.961
Buia	67	27	0	1.563
Gordailua	*	*	4.867	114.291

Iturria: Bilboko Udal Liburutegiak.

KIROLA

82.510 bilbotarrek egiten dute kirola udal kiroldegietan.

Kirola hiritarren bizi kalitatea hobetzeko, hiriaren irudia indartzeko eta aberastasuna

sortzen laguntzeko, harremanak sortu eta gizarte ongizatea gehitzeko, gazteenen hezkuntza sustatzeko.

Horretarako, Bilbon kirol instalazio eta ekipamendu sare zabala dago, eta bertan adin eta gizarte maila guztietako hiritarrek beren aisialdiko denbora librea kirola egiteko erabili dezakete.

Kirolerako gune eskaintza zabala dago Bilbon. Bizkaia Frontoia, Bilbo Arena estadioa, Casilla-ko pabiloia edo San Mames Barriaren gisako kalitatezko instalazioak, 10 udal kiroldegi, Azkuna Zentroko jarduerak fisikoetarako zentroa, zazpi futbol zelai, bi frontoi ireki eta arraunerako pabiloi bat. Gainera, erabilera publikoa daukaten kanpoaldeko kirol ekipamenduak. Guzti honek ahalbidetzen du Bilbon, udalaren kirol eskaintza soilik aintzat hartuta, 79 kirol diziplina ezberdin jorratu ahal izatea, praktikatuenetatik gutxiengoan daudenetara, zailenetatik eskuragarrietara.

2016. urtean zehar 82.510 izan dira kiroldegi hauek erabili dituzten abonodun pertsonak, 39.574 emakume eta 42.936 gizon.

Bilbon, gainera, kirol ekitaldi anitz ugari ospatu dira 2016an. Batzuk profesionalak eta beste batzuk herrikoia goak, hiritar guztien parte hartzea sustatzea bilatzen zutenak. Batean edo bestean, esanguratsuenak nabarmentzen dira: Munduko Badminton Gazte Txapelketa, "Bilbo Hiribildua" Atletismoko Nazioarteko Bilkuraren XVI. edizioa, Paracycling World Cup-a, Bilbao Night Marathon-aren zortzigarren edizioa, Artxandara Igoera-Martxa Herrikoa, edo Euskadiko Aizkolarien Bakarkako Txapelketa.

Etxebizitza

Etxebizitza

Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

Higiezinaren eskaintza

Etxebizitza berria eta erabilitakoa

Etxebizitzaren transakzioak

Etxebizitzaren alokairua

Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak 1 2

Etxebizitza berria eta erabilitakoa
Etxebizitza transakzioak
Etxebizitza alokairua
Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak



Orrialdea: 68

ETXEBIZITZA [Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

Bilboko
Urtekeri Sozioekonomikoa **2016**

Biztanleen eta etxebizitzaren errola

Bilbok 162.643 familia etxebizitzako parkea dauka, eta hauen batez besteko adina 50,2 urtekoa da.


etxebizitza nagusiak dira, hau da, ohiko etxebizitza gisa erabiltzen dira, eta % 11,6a osatzen dute bigarren mailako etxebizitzek edo etxebizitza hutsek, EAEko batez bestekoa baino ehuneko 3,5 puntu gutxiago.

Bilbon, familia etxebizitzaren % 55,3a 20 etxebizitza baino gehiagoko eraikinetan dago kokatuta, eta % 1,2a soilik dira familia bakarrekoak edo bi familiako eraikinak.

Egituraren ezaugarri dagokienez, familia etxebizitzek 50,2 urteko batez besteko adina dute, eta 82 m²-ko batez besteko azalera erabilgarria. Bestalde, % 72ak dauzka 4 edo 5 gela, % 69,1ak komun bat dauka eta % 83,1ak igogailu bat dauka gutxienez.

Egoitza kolektiboak, euren aldetik, 341 dira guztira, eta hauen % 34,9a hutsik dago. Hiribilduko egoitza kolektiboen inbentario zabala osatzen dute zahar-etxeek, babes-etxe eta/edo konbentuek, hotelek, ostatuek eta antzeko beste ostatu egoitzek.

Familia etxebizitzaren ezaugarri nagusiak



Euskal A. E.ko etxebizitzak lurraldeka eta motaren arabera. 2016

	Etxebizitzak Guztira	Familia etxebizitzak			Egoitza kolektiboak		
		Guztira	Nagusiak	Gainerakoa	Guztira	Nagusiak	Hutsik
Euskal A. E.	1.045.061	1.043.590	886.366	157.224	1.471	984	487
Araba	163.270	162.985	135.265	27.720	285	186	99
Gipuzkoa	339.853	339.427	288.997	50.430	426	285	141
Bizkaia	541.938	541.178	462.104	79.074	760	513	247
Gasteiz	117.174	116.991	103.226	13.765	183	133	50
Donostia	90.973	90.816	76.643	14.173	157	116	41
Bilbo	162.984	162.643	143.855	18.788	341	222	119

Iturria: Eustat. Etxebizitzaren Udal estatistika, 2016.

Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak 1 2

Etxebizitza berria eta erabilitakoa
Etxebizitzen transakzioak
Etxebizitzen alokairua
Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

Bilboko

Urtekeri Sozioekonomikoa **2016**

ETXEBIZITZA [Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

Etxebizitzak

Udal Erroldan 159.161 etxebizitza erregistratu dira guztira hiribilduan.

20.000 etxebizitza baino gehiagoko parkea izanik. Otxarkoaga-Txurdinagako barrutiak etxebizitza guztien % 7,1a biltzen du soilik eta aurkako muturrean kokatzen da.


Barrutien zabalera kontutan hartuta, etxebizitzen dentsitate handiena Abando eta Begoñan ematen da; hektarea bakoitzeko 114,36 eta 110,82 etxebizitza dauzkate, hurrenez hurren. Dentsitate baxuena Basurtu-Zorrotzan ematen da, 21,49 etxebizitza/hektareako.

Bilboko Udaleko Etxebizitza Sailak egindako "etxebizitza hutsei buruzko Txostenari" esker identifikatu eta zenbatu egin ahal izan dira udalerrian hutsik dauden etxebizitzak, eta udalerraren egoeraren datu eguneratuak eskaintzen dira. Ikerketa hau burutzeko kontutan hartutako datuak izan dira biztanleen errolda, Ur Partzuergoaren datuak, Ekonomia Jardueren gaineko Zergarenak eta Eusko Jaurlaritzako Alokairuen fidantzen Gordailuaren datuak. Datu hauetaz gainera, aztertu egin dira hutsik dauden etxebizitzen kokapena, tamaina eta adinaren datuak.

Etxebizitza huts gisa hartu dira erroldatutako biztanle barik eta ur kontsumo barik dauden etxeak. Txosten honetan argitaratutako datuen arabera, Abando eta Errekaldeko barrutiak dira etxe hutsen tasa altuenak dauzkaten barrutiak, % 4,48 eta % 4,33, hurrenez hurren. Ondoren Ibaiondo eta Basurtu-Zorrotza, % 3,95 eta % 3,63arekin, hurrenez hurren. Otxarkoaga Txurdinaga da, aldiz, etxebizitza huts gutxien daukan barrutia. Etxebizitzen % 1,87a soilik dago hutsik.

Bilboko etxebizitza huts guztien batez besteko azalera 76 m²-koa da. Abando dago lider etxebizitza huts handien rankingean (110 m²), eta jarraian dator Ibaiondoko barrutia (81 m²). Aurkako muturrean kokatzen dira Begoña eta Otxarkoaga-Txurdinagako barrutiak, azalera txikiak dituztenak, 70 m² eta 67 m² hurrenez hurren.

Auzoetako etxebizitza-dentsitatea



Bilboko etxebizitzen parkea, barrutien arabera (kop.), 2016

	Etxebizitza parkea Guztira	Etxebizitza hutsak		Gutxi erabilitako etxebizitzak (*)		Etxebizitza hutsak eta gutxi erabiliak	
		Guztira	% parke guztiarekiko	Guztira	% parke guztiarekiko	Guztira	% parke guztiarekiko
Etxebizitzak Guztira (kop.)	162.560	5.453	3,35	3.269	2,01	8.722	5,37
Deustu	23.120	501	2,17	473	2,05	974	4,21
Uribarri	18.585	616	3,31	451	2,43	1.067	5,74
Otxarkoaga-Txurdinaga	11.530	216	1,87	157	1,36	373	3,24
Begoña	19.565	412	2,11	379	1,94	791	4,04
Ibaiondo	28.295	1.118	3,95	487	1,72	1.605	5,67
Abando	24.445	1.094	4,48	542	2,22	1.636	6,69
Errekalde	21.750	941	4,33	447	2,06	1.388	6,38
Basurtu-Zorrotza	15.270	555	3,63	333	2,18	888	5,82

(*) Gutxi erabilitako etxebizitzak: Erroldatutako biztanlerik gabeko etxebizitzak eta ur kontsumo baxua daukatzenak (<19 m³/urtean). Iturria: Bilbon etxebizitza hutsen inguruko ikerketa. Bilboko Udala.

HIGIEZINEN ESKAINTZA [Etxebizitza berria eta erabilitakoa

Bilbon, gehiago jaitsi da etxebizitza berriaren salneurria erabiliarena baino.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak osatutako Higiezinaren Eskaintzaren Estatistikan, 3.625,8 €/m²-tan ezarri da Bilbon 2016an eskainitako etxebizitza berri libreen prezioa. Aurreko urtearen aldean % 6,7 jaitsi da

salneurria, eta batez besteko prezio osoa 288,7 mila eurokoa da.

2016an bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta prezioa ere jaitsi egin da, kasu honetan urte arteko % 3,3, 2015ean 3.382,7 €/m²-koa izatetik 3.271,5 €/m²-koa izateraino 2016. urtean. Erabilitako etxebizitzaren batez besteko salmenta prezioa 309,7 mila euroa heldu da.

Erabilitako etxebizitzaren prezioa barrutien arabera zehatzago aztertuta, Abando identifikatu daiteke salneurri altuena duen barruti gisa, 3.979,5 €/m², eta barruti hau da hiriko batez bestekoa gainditzen duen bakarra, 3.276,54 €/m²-koa da batez bestekoa. Salmenta prezio baxuena Otxarkoagan erregistratu da, 2.602 €/m²-ko batez besteko salneurriarekin.

Jaitsi egin da etxebizitza berriaren eta erabiliaren salmenta prezioa aurreko urtearen aldean, hiru lurraldeetan eta EAEn orokorrean. Bizkaiak, urte arteko % 1,1eko murrizketa jasan duen arren, jarraitzen du prezio altuenak izaten, bai etxebizitza berrien kasuan, 3.333,81 €/m², zein erabilitako etxebizitzaren kasuan (2.900,73 euro/m², % -3,9). Araba da etxebizitzaren salneurri baxuenak dauzkan lurraldea.

Etxebizitzaren batez besteko prezioa (4. hiruilekoa 2016)

	2015	2016	% 2016/15
Etxebizitza berria (€/m ²)	3.884,5	3.625,8	-6,7
Etxebizitza erabilia (€/m ²)	3.382,7	3.271,5	-3,3

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Higiezinaren Eskaintzaren Estatistika.

Etxebizitza berri libreen eta erabiliaren batez besteko salmenta prezioa (€/m²) esparru ezberdinetan (4. hiruilekoa 2016)

	Etxebizitza berri libreak		Etxebizitza erabiliak	
	Prezioa/m ² (€)	Prezioa etxebizitzako (milaka €)	Prezioa/m ² (€)	Prezioa etxebizitzako (milaka €)
EAE	3.180,71	253,53	2.778,92	238,65
Bizkaia	3.333,81	261,03	2.900,73	258,57
Araba	2.527,34	210,13	2.417,93	198,12
Gipuzkoa	3.148,80	253,84	2.879,02	233,55
Bilbo metropolia	3.428,74	268,95	3.023,25	273,80
Bilbo	3.625,82	288,70	3.271,54	309,72
Deustu-San Inazio	3.764,13	323,07	3.236,50	281,48
Uribarri	-	-	2.839,99	215,28
Otxarkoaga	-	-	2.601,95	215,12
Boluetza	-	-	2.892,78	228,84
Alde Zaharra	3.561,20	242,55	2.792,19	234,79
Abando	-	-	3.979,50	445,86
Errekalde	-	-	2.878,86	225,57
Basurtu	-	-	2.872,56	232,37

(-) (-) Balio gabe lagin eskasiaren ondorioz.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Higiezinaren Eskaintzaren Inkesta.

HIGIEZINEN ESKAINTZA | Etxebizitzen transakzioak

2016an etxebizitzen transakzioak % 0,1 jaitsi dira Bilbon.


Espainiako Sustapen Ministerioaren Higiezin Transakzioen Estatistikak, notario aurrean eskritura publikora altxaturiko etxebizitzen salerosketako

datuetan oinarrituta, adierazi du Bilbon % 0,1 jaitsi dela salerosketan emandako etxebizitza kopurua 2016. urtean zehar. Guztira 3.625 eragiketa burutu dira, eta datu hau 2007an lortutako datua baino apurtxo bat baxuagoa da. Urte hartan errekorra lortu zen, 3.840 transakzio zenbatuta.

Etxebizitza librearen merkatuak hartzen du 2016an egindako transakzioen % 95,1a, eta urte arteko % 15,9ko hazkundea azaltzen du eragiketa kopuruan. Etxebizitza babestuen artean 176 eragiketa soilik erregistratu dira, termino absolutuetan 478 erregistro gutxiago eta urte arteko % 73,1eko jaitsiera.

Nabarmentzeko moduko jaitsiera izan dute, baita ere, etxebizitza eraiki berrien transakzioek 2015. urtearen aldean, % -43,5. Bigarren eskukoaren kasuan, kontrako joera izan dute: 2.944 eragiketa burutu dira, aurreko urtean baino 520 gehiago eta urte arteko % 21,5eko hazkundea ehunekatotan.

Trasakzioak	2016	3.625
	2015	3.629



Etxebizitzen transakzioak

	2015	2016	% 2016/15
Etxebizitzak Guztira	3.629	3.625	-0,1
Librea	2.975	3.449	15,9
Babestua	654	176	-73,1
Eraiki berriak	1.205	681	-43,5
Bigarren eskukoak	2.424	2.944	21,5

Iturria: Sustapen Ministerioa.

HIGIEZINEN ESKAINTZA [Etxebizitzen alokairua

Bilbon etxebizitza baten batez besteko alokairua 962,6 eurokoa da hilabeteko.

Bilbon etxebizitza baten batez besteko alokairua 2016. urtean % 4,1 hazi da aurreko urtearekiko, eta batez besteko errenta 962,6 eurotan kokatu da.

Lurralde historikoen arabera, Bizkaiak dauka alokairuaren batez besteko koste handiena, 889,4 €/hileko, 2015ean

baino % 1 gehiago. Ondoren Gipuzkoa dator 868,6 €/hileko alokairuarekin, eta aurreko urtearekiko % 4,7 jaitsita. Araban nabarmentzeko moduko igoera eman da etxebizitza librean alokairuaren kostuan (% 4,5).

2016an, hiru barrutiri buruzko informazioa daukagu (Alde Zaharra, Abando eta Errekalde), eta hiru barruti horiek hazkundea erakutsi dute alokairuaren errentan, eta Alde Zaharra izan da urte arteko hazkunde esanguratsuena izan duena (% 4,7).

Erregimen libreko etxebizitzaren alokairuko kostu altuena Abandon aurki dezakegu, 1.091,7 €/hileko, eta baxuena Errekalden, 839,7 €/hileko.

Erregimen libreko etxebizitzaren alokairua (€/hileko) esparru ezberdinetan. (4. hiruhilekoa 2016)

	2015	2016	% 2016/15
EAE	871,7	879,9	0,9
Bizkaia	880,1	889,4	1,1
Araba	740,4	773,8	4,5
Gipuzkoa	911,5	868,6	-4,7
Bilbo metropolia	904,5	924,8	2,2
Bilbo	924,8	962,6	4,1
Deustu-San Inazio	926,6	-	-
Uribarri	782,4	-	-
Otxarkoaga	-	-	-
Boluetza	806,6	-	-
Alde Zaharra	849,2	888,9	4,7
Abando	1.074,4	1.091,7	1,6
Errekalde	829,3	839,7	1,3
Basurtu	-	-	-

* Etxebizitza kolektiboaren errentak soilik jaso dira.

(-) Lagin eskaria daukaten laukiak.

Iturria : Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Higiezin Eskaintzaren Inkesta.

Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak 1 2

Etxebizitza berria eta erabilitakoa
Etxebizitzen transakzioak
Etxebizitzen alokairua
Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

HIGIEZINEN ESKAINTZA [Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

Bilbon eskaintzen diren lokal komertzial libreen batez besteko salmenta prezioa 2.562,31 €/m²-koa da, Autonomi Erkidegoan baino 676,48 €/m² gehiago, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak emandako datuen arabera. Bestalde, hiriko alokairua hilabetean 2.124,99 €-ra heldu da, 813 € gehiago hiru probintzien batez besteko kostua baino.

Bilboko garaje libreen batez besteko salmenta prezioa 36.438,13 eurotarra heldu da 2016an, urte arteko % 9,2 gutxiago. Kopuru hau askoz handiago da EAE osoaren batez besteko prezioa baino (24.158,98 euro), eta hiru lurraldeetako bakoitza baino.

Bestalde, trastelekuaren salmenta libreko prezioa Bilbon 1.876,93 €/m²-koa da 2016an, EAE osoko prezioak eta beste lurraldeetakoak baino altuagoa.

Lokal komertzialak EAEn, lurraldeka. Salmenta eta alokairuaren prezioak. 2016

	Libreak	
	Salmenta Prezioa/m ² (€)	Alokairua Errenta/hileko
EAE	1.885,83	1.313,25
Bizkaia	2.037,72	1.349,18
Araba	1.569,89	1.085,87
Gipuzkoa	2.135,31	1.500,95
Bilbo	2.562,31	2.124,99

Iturria : Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Higiezinaren Eskaintzaren Inkesta.

Garajeak EAEn, lurraldeka. Salmenta eta alokairuaren prezioak. 2016

	Libreak		Babestuak	
	Salmenta Prezioa	Alokairua Errenta/hileko	Salmenta Prezioa	Alokairua Errenta/hileko
EAE	24.158,98	95,27	15.395,71	43,81
Bizkaia	26.202,24	86,25	14.077,61	29,91
Araba	17.347,69	75,43	-	-
Gipuzkoa	23.880,81	120,73	16.841,42	67,63
Bilbo	36.438,13	106,22	-	-

(-) Lagin eskasia daukaten laukiak

Iturria : Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Higiezinaren Eskaintzaren Inkesta.

Taula Trastelekuak EAEn, lurraldeka. Salmenta eta alokairuaren prezioak. 2016

	Libreak		Babestuak	
	Salmenta Prezioa	Alokairua Errenta/hileko	Salmenta Prezioa	Alokairua Errenta/hileko
EAE	1.222,87	-	649,08	7,29
Bizkaia	1.158,05	-	641,35	4,55
Araba	-	-	-	-
Gipuzkoa	1.328,99	-	669,95	11,78
Bilbo	1.876,93	-	588,74	-

(-) Lagin eskasia daukaten laukiak.

Iturria : Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Higiezinaren Eskaintzaren Inkesta.

Garraioa eta mugikortasuna

Hiri eta metropoli barruko garraioa
Aire garraioa
Itsas garraioa

Ingurumena

Jasangarritasunaren aldeko apustua
Hondakinen sorrera eta kudeaketa



Garraioa eta mugikortasuna

Hiri eta metropoli barruko garraioa

Aire garraioa

Itsas garraioa

Ingurumena

Jasangarritasunaren aldeko apustua

Hondakinen sorrera eta kudeaketa

9

Orrialdea: 75

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA [Hiri eta metropoli barruko garraioa

Bilboko

Urtekeri Sozioekonomikoa 2016

Bilboko garraio publikoko bidaiari kopuruak jaitsiera xumea izan du.

Bilbaon, Bilbobusen eta EuskoTranen egindako bidaiak hartzen ditu barne. Hala, % 0,4ko jaitsiera xumea antzeman da aurreko urtearen aldean.

Metro Bilbaok 2016an garraiatu duen bidaiari kopurua % 0,5 jaitsi da. Hirugarren aldia da, garraio honen 22 urteko historian, urtea balantze negatiboarekin amaitu duena. 2016an metroak 87,1 milioi tiket balioztapen erregistratu ditu, termino absolutuetan 430,5 mila bidaiari gutxiago aurreko urtean baino. Murrizketa hori eragin duten arrazoiak batzuk izan daitezke Urduliz eta Plentziako geltokietan egindako lurperatze lanak eta San Nikolas (Alde Zaharra) metro sarrera aldi baterako itxi izana.

Urtean zehar gehien erabili den geltokia Abandokoa izan da, guztira 6,33 milioi bidaiari jasota (% 7,3), eta azaroa izan da bidaiari gehien eman diren hilabetea, 7,82 milioi.


Hiribilduko garraio kolektibo zerbitzuak, Bilbobusek, % 0,7ko murrizketa jasan du bidaiari kopuruan aurreko urtearekiko, 193,3 mila erabiltzaile gutxiago. Autobus zerbitzuak 43 linea ditu, 27 konbentzional, 8 Auzolinea eta 8 Gautxori. 148 unitateko flota dauka eta 517 geltoki dauzka zerbitzuak Bilbo osoan, honek esan nahi du biztanleen % 99,8ak Bilbobuseko geltoki bat duela etxetik 300 metro baino gutxiagora.

Maiatza izan da bidaiari gehien bildu dituen hilabetea, zehazki 2.385.163; ostegunak izan dira bidaiari jario handiena izan duten egunak eta astegunetako batez bestekoa 86.362 erabiltzailekoa izatera heldu da. 77 eta 56 lineek jarraitzen dute linea erabiliaren rankingeko lehen postuetan, 2.068.341 eta 1.932.802 bidaiariarekin, hurrenez hurren.

EuskoTran, tranbia zerbitzua, izan da 2016. urtean joera positiboa azaldu duen bakarra, 3 milioi bidaiari gaindituta (3.006.576). Urte arteko % 4,1eko hazkundea izan du eta egunean 8.237 pertsona erabiltzaileko batez bestekoa.

Bizkaiko Garraio Partzuergoak argitaratutako datuen arabera, 2016. urtean zehar garraio publikoak Bilbon 116,0 milioi bidaiari hartu ditu. Kopuru honek Metro

Hiri eta metropoli barruko garraioa



Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa.

Garraioa eta ingurumena

Garraioa eta mugikortasuna

Hiri eta metropoli barruko garraioa

Aire garraioa

Itsas garraioa

Ingurumena

Jasangarritasunaren aldeko apustua

Hondakinen sorrera eta kudeaketa

9

Orrialdea: 76

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA [Aire garraioa

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa 2016

% 7,3 hazi da Bilboko aireportuko bidaiari kopurua.

Bilboko aireportuak guztira 4.588.265 bidaiari jaso ditu 2016an. Honek % 7,3ko hazkundera erakusten du aire garraioan urte arteko terminoetan, 310.835 bidaiari gehiago izatea eta beste urte batez gainditzea lau milioi bidaiariko kopurua.

Nazioarteko hegaldietako bidaiari kopurua % 11,2 hazi da 2016. urtean eta azken urteetako joera positiboa berretsi du. Egonkortu egin da espainiar estatuko trafikoaren berreskuratzea ere, aurreko urtearen aldean % 4,8 hazita.

Espainiar estatu barneko zirkulazioa, 2,5 milioi 2016an, nagusi da oraindik euskal aireportuan hegaldi komertzialei dagokienez, nahiz eta bere pisu erlatiboa murriztu egin den pixkanaka 2009an zeukan % 74tik gaur eguneko % 56ra.

2016an 45.105 hegaldi burutu dira Loiuako Aireportuan, % 2,8ko hazkundera aurreko urtearen aldean, 1.243 hegaldi gehiago. Hegaldi komertzialek, guztien % 92,8a, % 1,8ko igoera jasan dute, bai nazioarteko garraioaren igoeraren eraginez (% 3,4, 2015ean baino 618 hegaldi gehiago) eta baita, era apalagoan, espainiar estatu ko garraioaren igoeragatik (% 0,5, 114 hegaldi gehiago).

Vueling, Air Europa eta Lufthansa izan dira joan den urte honetan bidaiari gehien jaso dituzten konpainiak, bidaiarien % 35,2, % 11,0 eta % 10,3a hartuta, hurrenez hurren. Hiru hauen artean biltzen dute aireportuko urteko bidaiari fluxuaren erdia baino gehiago.

Madrilgo Barajas Adolfo Suarez eta Bartzelonako El Prat aireportuak dira Bilboko aireportuko bidaiari zirkulazioaren % 28aren jatorri edo helmuga.

Aire garraioa

	2015	2016	% 2016/15
Bidaiariak (guztira)	4.277.430	4.588.265	7,3
Hegaldi komertzialak	4.251.672	4.570.398	7,5
Estatukoak	2.464.304	2.582.830	4,8
Nazioartekoak	1.787.368	1.987.568	11,2
Hegaldiak (guztira)	43.862	45.105	2,8
Hegaldi komertzialak	41.114	41.845	1,8
Estatukoak	23.106	23.219	0,5
Nazioartekoak	18.008	18.626	3,4
Merkantziak (Tn.)	2.872	2.974	3,6

Iturria: Aena.

Bidaiari gehien jaso dituzten konpainiak



Garraioa eta ingurumena

Garraioa eta mugikortasuna

Hiri eta metropoli barruko garraioa

Aire garraioa

Itsas garraioa

Ingurumena

Jasangarritasunaren aldeko apustua

Hondakinen sorrera eta kudeaketa

9

Orrialdea: 77

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA [Itsas garraioa

Bilboko

Urtekari Sozioekonomikoa 2016

Portuko trafikoa 32 milioi tonara heldu da 2016an.

Bilboko Portuaren trafiko datuek 2016. urte amaieran % 2,5eko murrizketa erakusten dute, 32 milioi tona baino apur bat gehiago izan dituzte eta geldotu egin da aurretik ikusten zen jardueraren suspertzea.

Merkantzien trafikoak hartzen ditu praktikan operazio guztiak: 32,0 tona, urte arteko % 1,4 jaitsita. Bertako trafikoa eta hornikuntzakoak, 118.528 tonarekin, soilik % 0,4a biltzen du.

Ontziratutako likidoak (petrolio gordina, fuel olio eta gasa, nagusiki) biltzen dute Portuko merkantzia trafikoaren % 56,6a eta 18,1 milioi tonara heldu dira 2016an. Datu honek % -0,61eko jaitsiera xumea erakusten du. Ontziratutako solidoak gehiago jaitsi dira, % -3,7, eta guztira 4,4 milioi tonako bolumena izatera heldu dira.

Salgai orokorren mugimenduari dagokionez, bolumena 9,7 milioi tonatik 9,5era jaitsi da, % 1,8ko murrizketa.

Azkenik, edukiontzien trafikoa ere gutxitu egin da 2015. urtearen aldean, % 4,9, guztira kudeatutako 596.688 TEU unitate erregistratu direlarik.

Itsas garraioa

	2015	2016	% 2016/15
Portuko trafikoa (Tn.)	32.876.518	32.069.207	-2,5
Merkantzia trafikoa	32.401.597	31.950.679	-1,4
Ontziratutako likidoak	18.199.806	18.087.209	-0,6
Ontziratutako solidoak	4.528.224	4.362.068	-3,7
Salgai orokorrak	9.673.567	9.501.402	-1,8
Bertako trafikoa eta hornikuntza	474.921	118.528	-75,0
Edukiontzia (TEUak)	627.302	596.688	-4,9

Iturria: Estatuko Portuak.

Hiri eta metropoli barruko garraioa

Jasangarritasunaren aldeko apustua

Aire garraioa

Hondakinen sorrera eta kudeaketa

Itsas garraioa

9

Orrialdea: 78

INGURUMENA [Jasangarritasunaren aldeko apustua

Bilboko

Urtekeri Sozioekonomikoa 2016

Badira urte batzuk Bilboko Udalak erronka bat hartu zuela jasangarritasunaren eta ingurumenaren alde, eta erronka hau azalatu egin zen Klima aldaketarako Bulegoa eta Tokiko Agenda 21 bezalako baliabide garrantzitsuetan. Orain, indartu egin da erronka hau 2015-2019 epealdirako gobernuko planean, izan ere, ardatz estrategiko gisa ipini dira hiriaren eraldatzea eta ingurumena.

Bilboko hiri-garapen jasangarri eta osatuaren estrategiak erantzuna ematen die Europar Batzordeko hazkunde jasangarriaren programa operatiboan ezarritako helburuei. Hauen artean nabarmentzekoak dira batzuk:

- Hiriko mugikortasun jasangarria sustatzea.
- Energiaren kudeaketa burutsua eta efizientzia bultzatzea eraikin eta azpiegitura publikoetan.
- Ingurumenaren kalitatea hobetzea.

Horretarako, hiriak askotariko neurriak hartu ditu: pertsonen mugikortasun eskaria kudeatzea banaketa modalaren norabidea moldatuz oinezkoen bideetara, bidegorrietara eta garraio publikoaren erabilpena; zoru urbanoen egoera birgaitu eta hobetzea zonalde berde gisa erabil daitezkeen; eta ekoizpena murriztean oinarritutako hondakinen kudeaketa bermatzea.

2016. urtean zehar, ondorengo ekimenak nabarmendu dira:

- **Hiri eta Herri Jasangarrien Europako Konferentzia** Bilbon ospatu zen. Nazioarteko 800 aditu inguru bildu ziren hirian, bide orri berri bat diseinatzeko asmoarekin, udalerrak garapen jasangarriago baterantz joan daitezkeen. "Ekintza eraldatzailea: Europaren potentziala" lelopean, arlo ezberdinetako hizlariak aztertu zuten nola praktikan jarri maila lokalean Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuak eta Pariseko aldaketa klimatikoaren aurkako borrokarako hitzarmena.
- **BRODISE Final Conference**. Bilboko Udalak kutsatutako lurak tratatzeko ikerketa proiektu bat koordinatzen du, Italiako Trieste eta Portugaleko Seixal hiriekin batera. EBk finantzatzen du proiektu hau eta Bilboko Zorrozaurre zonaldean jartzen da praktikan.

Ekimen honen harira, irailean Euskalduna Jauregiak hainbat topaketa hartu zituen erosketa publiko berritzailearen inguruan, berrikuntza sustatzen duten kontratazio publikoko politikak lantzeko. Brodise eta Papyrus europar proiektuen Amaierako Konferentziak egin ziren, Brodise Bilboko udalak zuzenduta eta Papyrus Tecnia enpresa bizkaitarrak zuzendua. Bi proiektu hauek, Brodise eta Papyrus, Zerumuga2020 programa europarraren barruan kokatzen dira, europar testuinguruan arlo tematiko ezberdinetan ikerketa eta berrikuntza proiektuak finantzatzen dituen programaren barruan, 2014-2020 epealdirako ia 80.000M€ dituztelarik.

Hiri eta metropoli barruko garraioa

Jasangarritasunaren aldeko apustua

Aire garraioa

Hondakinen sorrera eta kudeaketa

Itsas garraioa

9

Orrialdea: 79

Bilboko

Urtekeri Sozioekonomikoa 2016

INGURUMENA | Hondakinen sorrera eta kudeaketa

Etxeko hondakinak Hiribilduko etxeetako hondakinen sorrera 121.239 tonako bolumen osoa izatera heldu da 2016an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Hondakinen

% 3,4 hazi dira.

Behatokiak argitaratutako datuen arabera. Kopuru honek % 3,4ko hazkundea jasan du 2015ean erregistratu zen bolumenaren aldean. Igoera honek ekarri du etxeko hondakinen per capita sorrera tasa 351,3 kilokoa izatea 2016. urtean.

Bilketa nahasia hazi egin da 2015. urtearen aldean (2.201 tona gehiago, % 2,2) eta etxeko hondakinen bolumen osoaren % 79,7a hartzen du. Gaikako bilketari dagokionez, 2016. urtean jasotako 24.586 tonara igo da, urte arteko % 8,5eko igoera (1.927 tona gehiago).

Hondakinen sorrera

	2015	2016	% 2016/15
Etxeko hondakinak (Tn.)	117.201	121.239	3,4
Bilketa nahasia	94.542	96.654	2,2
Gaikako bilketa	22.659	24.586	8,5
Papera - kartoia	10.129	11.876	17,3
Beira	7.169	6.746	-5,9
Tamaina handikoak	663	1.138	71,6
Ontziak	4.698	4.826	2,7
Etxeko hondakinak (kg./bizt./urte)	339,6	351,3	3,4

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

Gaikako bilketa

Bestalde, Bilboko Udalak % 14,4 igo du hiriko birziklatze tasa 2016an.

Paper-kartoiaren kasuan, bilketa % 17,3 hazi zen aurreko urtearekiko. Termino erlatiboetan ere nabarmentzekoa da tamaina handiko hondakinen hazkundea, % 71,6a, 2015ean jasotako 663 tonetatik 1.138 jasotzera igoz 2016an. Ontzien bilketa 4.426 tonara heldu da, aurreko urtea baino % 2,7 gehiago. Beiraren berreskuratzea soilik jaitsi da, urte artean % 5,9 jausi da.

Bestalde, ehunen berrerabilpena hazi egin da, 2015eko 236,24 tonatik 626,77ra igoz 2016an. Hau, hein batean, hirian zehar 47 edukiontzi zuri ipini izanak eragin du. Pilen kasuan, % 2,7 jaitsi da hauen bilketa.

